

Juan Bautista Agirre

**KONFESIOKO,
ETA KOMUNIOKO
SAKRAMENTUEN
GAÑEAN
ERAKUSALDIAK**

Fitxategi hau “liburu-e” bildumako alea da,
liburu elektronikoen irakurgailurako prestatua.

Liburu gehiago eskuratzeko:

<http://armiarma.com/liburu-e>

Bertsio elektroniko honen egilea: Josu Landa Ijurko.

Iturria: *Confesioco, eta comunioco sacramentuen
gañean eracusaldiac*, Juan Bautista Aguirre.
La Lama, 1823.

<http://klasikoak.armiarma.com/>

Egileari buruzko informazioa:

<http://zubitegia.armiarma.com/egileak/00330.htm>

**KONFESIOKO,
ETA
KOMUNIOKO
SAKRAMENTUEN GAÑEAN
ERAKUSALDIAK,**

lenbiziko Komuniorako prestatu bear diran
Aurrentzat,
eta bidez Kristau azientzat ere bai.

ESKEINZEN DIEZTE EUSKALDUNAI
D. Juan Bautista Agirre, Asteasuko
Benefiziadu, eta Gipuzkoako Arziprestazko
nagusian Diputadu jeneralak.

TOLOSAN.

Iruñeko gure Apaiznagusiaren, eta
emengo Korrejidorearen baimenarekin, D.
Juan Manuel la Lamaren moldiztegian,
1823. urtean.

LAU PARTE, EDO PUSKA DITU

Lenengoan erakusten dira, Konfesioko Sakramentuari dagozkan gauzak. Bigarreanean, Komunioari dagozkanak. Hirugarreanean, nola obraz egiten dan lenengo bietan hitzez adirazi dana. Laugarreanean, erakusten zaio, ala lenbiziko Komunioa egiten duan aurrari, nola, edozein Kristauri betiko bizitza doatsuaren bide eder-garbia.

PROLOGO

Fin, a que se dirigen estas Instrucciones: y método que, para ponerlas en práctica con los Niños, y Adultos, adoptaría el Autor.

La ignorancia de muchos Cristranos á ceren del modo práctico de prepararse para recibir los Sacramentos de la Confesion, y Comunion, es un mal contra el cual claman los Predicadores, y Escritores celosos, y que no obstante subsiste en muchas partes. ¿Cual será la causa de esto? Apenas podrá encontrarse otra tan poderosa como es la facilidad, con que en muchas Parroquias se admiten los Niños á la primera comunion. En algunas no se les obliga á aprehender las cuatro partes del Catecismo; en otras se contentan con que sepan estas, especialmente si responden con puntualidad á lo siguiente: *¿Qué es lo que se requiere para una buena Confesion? ¿Qué cosa es Exámen? ¿Qué el Dolor? ¿De cuantas maneras es el Dolor? ¿Qué cosa es Contricion? ¿Qué la Atricion? ¿Para que fue instituido el*

Sacramento dei Altar? ¿Cuántas cosas se requieren para una buena Comunión? De aquí resulta el que los niños comiencen á participar de los Divinos Misterios, sin saber que es lo que deben, y como deben practicar para recibirlas dignamente. De aquí el perseverar regularmente én la misma ignorancia hasta la muerte. De aquí el tropezar, los Confesores con penitentes tan mal guisados, y desprevenidos; que se ven precisados á disponerlos en el mismo Confesonario, si las circunstancias lo permiten. De aquí finalmente un número inmenso de Confesiones, y Comuniones sacrilegas, ó á lo menos infructuosas. Yo confieso, que es empeño arduo el desterrar del todo esta ignorancia en muchos pueblos derramados en barrios distantes de la Iglesia; pero al mismo tiempo creo, que se remediará en gran parte, si con tesón, y método se procura la instrucción de los Niños antes de la primera Comunión; si además al pueblo se le explica el modo práctico de disponerse para la confesión, y Comunión, en Misas mayores, ú otros tiempos oportunos, no una, ú otra vez, sino una gran temporada. Y para que el Catequista tenga

algun alivio en un Ejercicio tan importante, le presento estas pequeñas instrucciones distribuidas en cuatro partes. En la primera parte se instruye al Niño sobre la Confesion: En la segunda sobre la Comunión: En la tercera se le hace poner en práctica lo que en las dos primeras se le ha enseñado especulativamente. Y en la cuarta se han recogido las Instrucciones mas importantes, y oportunas, para que un Vascongado viva segun la Ley de Jesu-Cristo.

El método que convendrá adoptarse en cada Pueblo, dejo con gusto a la prudencia, y discrecion de los Señores Párrocos; y solo añadiré, que si me viese en la necesidad de haber de emprender una ocupacion tan delicada, procuraria valerme, en cuanto fuese posible de las reglas simientes. I. A ningun Niño colocaria en la clase de los que han comenzado las Instrucciones para la primera Comunión, si no sabe las cuatro partes del Catecismo. Esta es la práctica de los Obispos donde esta Disciplina de la primera Comunión ha estado mas floreciente, y se conforma con el sentir de los autores, que para la primera comunión piden, que el Niño sepa la

Doctrina, cuyo compendio son las cuatro partes del Astete. Esto viendo, que algunos me dirán, que no es necesario que se sepan las cuatro partes á la letra, si se saben en cuanto á la sustancia. Es asi. ¿Pero cómo podrán saber los Niños, e idiotas la sustancia de las cuatro partes; y como darán razon suficiente de ellas si jamas las han aprehendido, ni con las expresiones con que las esplica el Cátecismo, ni con otras? II. Donde hay Maestro, y Maestra de primeras letras debe procurarse, que los Padres envíen á tiempo los Niños, y Niñas á la Escuela respectiva, para que desde la edad tierna comiencen con la Doctrina. III. Aunque no haya este auxilio, la esperiencia enseña, que no suelen faltar personas que con amor y caridad sacrifiquen algun tiempo para instruir á los Niños y Niñas. He conocido un hombre, y una muchacha que en las Parroquias donde vivían se divertian en este egercicio, y hacían segun me aseguraron un bien imponderable á la juventud. IV. En muchas Parroquias de este Pais hay barrios tan distantes de la Iglesia que los Niños, y Niñas no pueden asistir á la Escuela, ni otra casa de la proximidad de la

Parroquia á no hacer sus Padres un empeño extraordinario. Para instruir á los Niños de semejantes barrios, dos medios oportunos se practican en algunos Lugares: el primero es instruir algunos Niños y Niñas de los mismos barrios, para que estos enseñen á los demas; y el segundo el enviar alguna persona juiciosa, para que durante el invierno los instruya. Ojala se estableciesen en nuestras Parroquias las Cofradías de la Doctrina Cristiana tan recomendadas de la Silla Apostolica. Entónces no habría estas angustias, y en cada barrio los Cofrades cuidarían de la enseñanza de los Niños, e ignorantes en la doctrina. V. Cuando el Niño ha aprehendido las cuatro partes del Astete, se le pasa á la clase de los están instruyéndose para la primera Comunión. Se le enseña el primer año lo perteneziente al Sacramento de la Confesion: en el segundo lo respectivo á la Comunión; y finalmente sé le detiene el tiempo necesario en el modo práctico de prepararse, y recibir ambos Sacramentos. Algunos reputarán esto casi imposible para practicarse con los Niños. pero si consultan con la experiencia de varios Obispados, se desengaña-

rán. VI. A los que se muestran mas aplicados se les debe dar algun premio. Asi se práctica en muchas partes; y con extraordinario esmero en Italia. El dia de la primera Coinunion á cada Niño se le dará un exemplar nuevo de estas Instrucciones, para que les sirva de Devocionario. VII. Segun la Diciplina actual de la Iglesia parece mas verisimil, que la discrecion suficiente para la Confesion no basta para la primera Comunion, exceptuando el peligro de la muerte, para la debida inteligencia de esta regla debe tenerse presente primero: Que en las primeros tiempos de la Iglesia no se esperaba á los años de la discrecion, ó uso de la razon para dar á los niños la primera comunion, sino que se les administraba á una con el Bautismo bajo las Especies de vino. Esta Diciplina dura todabia en la Iglesia Griega, y duró en la latina hasta el Siglo XII. á lo menos en algunas partes; y Martene Escritor del Siglo, que acaba de espirar, asegura, que el mismo la vio practicarse en Basilea. 2. que en la primitiva Iglesia los que asistian á Misa comulgaban, y solo se excluia á los Catacumenos, y Penitentes; de donde se puede inferir que los niños que lle-

garon al uso de la razon, y asistían al Sacrificio no serían excluidos. 3. Que el Concilio Lateranense IV. celebrado el año de 1215. en el Canon 21. mandó, que todos los Fieles, que hubiesen llegado á los años de discrecion, se confesasen á lo menos una vez al año, y se comulgasen por Pascua. Hay alguna duda sobre si este Concilio se contentó para la primera comunión con la misma discrecion que basta para la confesion; pero mirando al contesto del Canon, y á la Disciplina que hasta entonces se observó en este punto, parece muy creíble con San Antonino, que los padres del citado Concilio no quisieron exigir mayor discrecion para el uno que para el otro Sacramento. 4. Ultimamente opinaron insignes Teólogos que para la primera comunión no basta que el niño tenga discrecion para conocer el bien y mal, sino que ademas se requiere que discierna el manjar celestial de la Eucaristia, conozca sus efectos, y pueda gustar de ellos, y la Iglesia en el Ritual nos dió la regla siguiente: *lis, qui propter aetatis imbecillitatem nondum hujus Sacramenti cognitionem, & gustum habent, administrari non debet.* VIII. La edad en

que regularmente llegan los niños á este con-
cirriente, y gusto de que habla el Ritual, suele
ser la que media entre los diez y catorce años,
como nos dice el Manual impreso en Salamanca
el año de 1591. *Communiter aetas huic rei apta
(ut pueris ministretur Eucharistia) esse solet ab
anno decimo usque ad decimum quartum*, Esto
mismo nos dice Francisco Suarez. Mas esto no
quita el que pueda haber niños en quienes se
anticipe la discreción que se requiere para la pri-
mera comunión, ya por el clima, y claridad de
entendimiento, ya por una diligente educación.
De esta regla se puede colegir, que si los niños
empiezan á instruirse á tiempo, hasta los cator-
ce años se les podrá enseñar cuanto se requie-
re, para que reciban la primera comunión con el
debido respeto y discreción. IX. En cuanto al
pueblo particularmente si hay muchos que igno-
ren el modo de disponerse para recibir los Sacra-
mentos, procuraria explicarle en Misas Mayores,
y otros tiempos oportunos por espacio de dos ó
tres años las Instrucciones, que aquí ofrezco á
mis paisanos, ú otras que se escriban mejor,
siguiendo el órden con que están puestas. Haria

decir al chico destinado para este fin una instrucción oyéndole el pueblo; y ella me serviría de asusto para una, ó mas platicas; y para este fin puede servir mucho la apreciable obra que en dialecto Guipuzcoano acaba de dar á luz mi caro amigo Don Juan Antonio de Moguel. Es muy bueno exponer el Evangelio del dia; pero nosotros vivimos en pueblos donde los Feligreses no pueden acudir á la Parroquia con la comodidad que en Navarra, Aragón, y Castilla; y es necesario que primero se atienda á lo mas urgente en aquellas horas, en que el pueblo pueda asistir, y esto parece muy conforme al Concilio Tridentino *Sess 5. Cap. 2. de Reformat. X.* Las Cédulas de aprobacion en Doctrina Cristiana deben ser muy caras, para que el pueblo se mueva á acudir á la Doctrina; y si en esto se da lugar á contemplaciones, si no se les exâmina sino de pura ceremonia, todas las Instrucciones que el Párroco diese en los dias Festivos, no alcanzarán para la gente mas necesitada, porque no acudirá a ellas. XI. Con los jóvenes que aspiran al Matrimonio debe observarse con puntualidad lo mandado por el Ilustrísimo Irigoyen, examinandolos seria-

mente en la Doctrina antes de las proclamas. Si algunas de estas reglas no agradaren á los Catequistas acostumbrados á otro método de menos fatiga, no riñamos por esto, y concluyo con lo que segun escriben Sidonio dijo á Drossulo Satyra 1ª. *Quod justum est scribo, nec multum, Drossule, curo sive huic, sive illi displiceat, placeat.*

Advertencia I.

Este prólogo se ha puesto en castellano, temiendo que muchos Catequistas no lo leerían de otra suerte.

Advertencia II.

El dialecto en que se escriben las Instrucciones, es un medio entre el de Beterri, y Goyerri. Se diferencia del de Hernani, y San Sebastian v. g. en *dezute, dute, duenak, dutenak dituzute, dituzte, &c.* que es segun el modo de San Sebastian; y en el nuestro: *dezue, due, duanak, duenak, dituzue y ditue.*

Advertencia III.

Al pie de cada instruccion se pondrán varias veces citas, no porque sirvan para los Niños; sino porque el Catequista muchas veces deseará saber, y registrar las fuentes de donde se ha extractado la instruccion; y es mas facil el quitarlas, que ponerlas.

Advertencia IV.

Para insinuar la pronunciacion particular que tienen varias espresiones Vascongadas uso del accento circunflexo al modo que en el castellano está hoy en uso: v. g. *gaixoá* tiene su pronunciacion particular que no es facil fixarla mejor que con la crema, ó capucha, en cuyo lugar usan algunos de dos consonantes, como en *ttipia*, *maittea*, &c.

LENENGO PARTEA

**KONFESIOKO SAKRAMENTUARI
DAGOZKAN ERAKUSALDIAK**

LENBIZIKO ERAKUSALDIA

*Zer dan eta nork Eliz Ama Santari
utzi zion Penitenziako edo
Konfesioko Sakramentua.*

Erakusleak. A aurra, ikasi dezu Asteteren Doktrinako liburutxoa? Ikasi bear dituzu bada orain Penitenziako edo konfesioko Sakramentuari daguzkan gauzak. Esadazu.

G: Eliz Ama Santaren Sakramentuen artean hirugarrena zein da? **E:** Penitenziako edo Konfesioko Sakramentua. **G:** Zer da Penitenziako edo Konfesioko Sakramentua? **E:** Bekatariaren aldetik: biotzeko damua ontzeko asmo osoarekin; aozko Konfesioa eta obrazko satisfakzioa: Eta Konfesorearen aldetik absoluzioa. **G:** Nork utzi zion Eliz Ama Santari Sakramentu au? **E:** Jesu-Kristo gure Jaunak. **G:** Jesu-Kristoren etorrera baño len ez ote zan Konfesorik? **E:** Moisesi Jaunak letraz ezarririk Lege zarra eman zion artean, etzan izan Konfesorik, ez eta geroz ere lege zarraren azpian bizi etziranen artean. **G:** Moise-

sen Legean ote zan Konfesorik? **E:** Omen zan, Jauna, Konfesioa baña Sakramentu etzana; eta bekatuak barkatzeko indarik eta kemenik etzana. **G:** Beraz Jesu-Kristo etorri zan artean etzan izan bekatarietzat barkaziorik? **E:** Bai, Jauna, Fede, Esperanza, ta onezko damu edo Kontrizio osoarekin biurtzen baziran Jaunagana. **G:** Nori utzi zion Jesu-Kristok bekatuak barkatzeko eskua? **E:** Ez edozeñi, baizik Apostoluai, Obispo Jaunai eta, oek Konfesioak aditzeko bidaltzen dituen Apaizai.

BIGARREN ERAKUSALDIA

*Zertako ipiñi zuan Jesu-Kristok
Konfesioko Sakramentua eta zer
ondasunak dakarzian.*

G: Zertako ipiñi zuan Jesu-Kristok Konfesioko Sakramentua? **E:** Bataioa ezkeru ekindako bekatuak barkatzeko. **G:** Zer ondasun dakarzi barkazio onekin batean? **E:** Ondasun andiak eta asko. **G:** Zein dira? **E:** Lenbizia, barkatzen du bekatuak zegoen betiko pena, eta aldatzen du, emen edo purgatorioan denboraz bukatuko dan penan. Bigarrena, biurtzen dio animari, bekatuarekin galdu zuan graziaren apaindura ta soñeko ederra birtute ta doai askorekin. Irugarrena, berriro egiten du Jainkoaren hume ta adiskide, Jesu-Kristoren senide, Espiritu Santuaren bizileku edo Eliza eta Zeruari jabegai. Laugarrena, ematen ditu bekatutik aldegiteko eta bizitz onean irauteko Zeruko lagunzak. Bostgarrena, ematen du askotan animako pakea ta sosegu gozo bat. Sei-garrena, piztutzen ditu, bekatuarekin illak gera-

tu ziran obra on, edo Zerurako irabaziak. **G:** Konfesatzen diran bekatari guztiak artzen ote ditue ondasun oek? **E:** Ez, Jauna, baizik Konfesio ona egiten duenak.

IRUGARREN ERAKUSALDIA

Konfesio on batek eskatzen dituan gauzak.

G: Zenbat gauza bear dira Konfesio on bat egiteko? **E:** Bost gauza. **G:** Zein dira? **E:** Lenengoa examina; bigarrena dolorea, edo egindako utsegiteen damua. Irugarrena ontzeko edo; aurrera bekaturik ez egiteko asmoa. Laugarrena Konfesioa. Bostgarrena Satisfakzioa. **G:** Zenbat gauzatarra biurtzen dira esan dituzun bost oek? **E:** Iru-tara. **G:** Zein dira? **E:** Biotzeko damua, aozko Konfesioa ta obrazko satisfakzioa. **G:** Zergatik bost gausa ark biurtzen dira iru oetara? **E:** Zeren examina biurtzen dan Konfesio onera; eta ontzeko asmoa egiazko damura. **G:** Zer izen eman oi zate biotzeko damuari, aozko Konfesioari eta obrazko satisfazioari? **E:** *Penitenziaren iru parteen izena.* **G:** Zergatik ori? **E:** Zeren iru gauz oek txit bearrak diran Penitenziako Sakramentua osatzeko eta bekatuen barkazioa osatoro iristeko.

LAUGARREN ERAKUSALDIA

*Zer dan eta nola egin ditekean
examina.*

Esan dituzu, Konfesio on bat egiteko bear diran bost gauzak. Orain esadazu.

G: Zer da examina? **E:** Egindako utsegite edo bekatuen kontuak ateratzea. **G:** Zer egingo dezu onetarako? **E:** Bost gauza. **G:** Zein dira? **E:** Lenbizi-
a, jarriko naiz Jaunaren aurrean leku egokiren batean, ta adoratuko det humiltasun eta errespeto guziarekin, goizeko jaieran erakusten dan bezala. Bigarrena, emango diozkat eskerrak egin dizkidan mesede guziak gatik, baña batez ere; zeren oraindaño itxedon didan bekatutik irteteko eta beragana biurtzeko. Irugarrena, eskatuko diot Espiritu Santuari argia ta lagunza nere utsegiteak ezagutzeko, ongi damutzeko ta Konfesatzeko. Laugarrena, begiratuko det, azkeneko konfesioan bekatu larriren bat aztu ote zitzatan, eta emandako penitentzia egin nuan, edo ez. Bostgarrena, animaren begien aurrean ipiñiko

ditut Jainkoaren Legeko amar Aginteak, Eliz Ama Santaren bostak, nere estadu, bizimodu eta karguak dituan eginbideak, eta kontu aterako det, nola eta zenbat bider utsegin dedan bakoitzaren kontra. *Erakusleak*. Ongi esan dezu: eta zer dan Jaunaren aurrean jartzea, eta nola gauz oek egi-ten diran batzuetan laburrago, erakutsiko zatzu hirugarren Partean.

BOSTGARREN ERAKUSALDIA

Konfesio gaiztoak berritzeko nola egin ditekean examina.

Erakusleak. Esan dezu, nola egin bear dan azkeneko Konfesorik oraindañoko examina. Demagun, aurtasunetik, edo geroz egin dituzula Konfesio gaiztoren batzuek: nola egingo dezu oek berritzeko bear dan examina? **E:** Lenbizia, jarriko naiz Jaunaren aurrean, eta adoratuko det humiltasun eta errespeto guziarekin. Bigarrena, emango diozkat eskerrak, egin dizkidan mesede guziak gatik, baria batez ere zeren oraindaño itxedon didan bekatutik irteteko ta beragana biurzeko. Hirugarrena, eskatuko diot Espiritu Santuari argia eta lagunza nere utsegiteak eza-gutzeko, ongi damutzeko eta Konfesatzeko. Lau-garrena, begiratuko det, zenbat denbora, edo urte dan gaizki Konfesatzen asi nintzala, batz bestea urtean zenbat Konfesio eta Komunio egin ditudan bitarte orretan. Bostgarrena, Konfesatzen nintzanean, oroitzen ote nintzan leneko

Konfesio ta Komunio gaiztoaz. Seigarrena, animaren begien aurrean ipiñiko ditut Jainkoaren Legeko amar Aginteak, Eliz Ama Santaren bostak, nere estadu, bizi modu ta karguak dituan eginbideak, eta kontu aterako det, nola, ta zenbat bider utsegin dedan bakoitzaren kontra. Zazpigarrena, zenbat bider utsegin dedan, oroitu ezin banaiz, alik ongiena kontu aterako det, zer oitura gaizto izan dedan Mandamentu bakoitzean, astean edo illean zenbat bider erortzen nintzan pensamentuz, itzez eta obraz gutxi gorabera.

SEIGARREN ERAKUSALDIA

Zer dan Konfesio onak eskatzen duan bigarren gauza, ta onek bear dituan doaiak.

G: Konfesio on bat egiteko bear dan bigarren gauza zein da? **E:** Dolorea, edo egindako utsegi-teen damua. **G:** Zer doai edo kondizio eskatzen ditu damu onek? **E:** Lau doai edo kondizio. **G:** Zein dira? **E:** Lenengoa, Zerutikakoa, edo sobrenaturala izatea. Bigarrena, barrendik, edo biotzetik jaioa izatea. Irugarrena, bekatu larri edo mortal guzietara zabaltzen dana. Laugarrena, kalte eta gaitz guzien gañetikakoa izatea. **G:** Zer aditzen dezu *Zerutikako damuaren* izenez? **E:** Aditzen det, damu au dala Espiritu Santuaren lagunza eta graziarekin sortzen dana. Aditzen det gañera, damu au sortzen dala Fedeak erakusten duan damu bide edo motiboren bategatik. **G:** Zer aditzen dezu *barrendik*, edo *biotzetik* jaiotzen dan damuaren izenez? **E:** Aditzen det, ez dala asko auaz esatea *damu det, Jauna*, ezeta bularrari

golpe andiak ematea ere, baizik bear dala biotzetik egiaz eta benaz sortzen dan damua. **G:** Zer aditzen dezu bekatu larri guzietara zabaltzen dan damuarekin? **E:** Aditzfn det, ez dala asko bekatu larri batzuen damua, baizik bear dala guziena. **G:** Zer aditzen dezu kalte eta gaitz guzien gañetikako damuaren izenez. **E:** Alako eran eta añ biotzetik damutu bear zaiola bekataritari, non naiago lukean beste edozein kalte eta gaitz gertatu balitzaio ezen ez bekatuan erortzea.

ZAZPIGARREN ERAKUSALDIA

*Zenbat gisatara dan damu
Zerutikakoa, edo sobrenaturala: Zer
dan Atrizioa.*

G: Zenbat gisatara da damu Zerutikakoa, edo sobrenaturala? **E:** Bitara. **G:** Zein dira? **E:** Bata da beldurrezkoa ta berekoia, eta deritza *Atrizioa*; bestea onezkoa, eta deritza *Kontrizioa*. **G:** Zer da *Atrizioa*? **E:** Damu bat biotzean sortzen dana, lenbizia, zeren gauza guziz itsusia dan, Zerurako egin, eta bere Semearen odol preziotsuaren kostuz erosi ginduan Jaunaren kontra altxatzea eta bekatu egitea. Bigarrena, zeren bekatu larria egitean, galdu degun Jaunaren grazia eta Zerurako esku eta deretxa guzia. Irugarrena, zeren bekatu larri bakoitzarekin irabazi ditugun betiko su eta garrak, edo infernuko penak. Laugarrena, zeren Jaunak guganako urrikimentuz deitzen digun bekatutik irteteko eta eskeintzen digun gure eskergabekeria guzien barkazioa, Jesusen Eriotza eta merezimentuak bitarteko dirala. **G:**

Zergatik deitzen zaio *Atrizioari beldurrezko damua*? **E:** Zeren sortu oi dan betiko bizitza galtzeko eta betiko su eta garretan erortzeko beldurrez. **G:** Zergatik deitu diozu *berekoia*? **E:** Zeren biotzak atriziozko damua sortzen duanean, bere on eta egitekoari bakarrik begiratzen dion. **G:** Asko ote da atrizioa Konfesio ona egiteko? **E:** Bera utsik ez da asko bekatariari graziaren apaindura ederra emateko, baña prestatzen du au iristeko Konfesioko Sakramentuarekin batean; eta onena da beiñ saiatzea Atriziora, ta gero onezko damu edo Kontriziora.

ZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

*Onezko damu edo Kontrizioaren
gañean.*

G: Zer da onezko damu edo Kontrizioa? **E:** Damu bat biotzean sortzen dana, zeren Ontasun eta Maitagarritasun baztergabea dan Jaunaren kontra bekatu egin degun. **G:** Zergatik damu oni deitu diozu *onezkoa*? **E:** Zeren damu au sortzeko bidea dan, ez beldurra, baizik Jaunaren Ontasun eta Maitagarritasun bazterrik eta neurririk ez duana. **G:** Atrizioa edo kontrizioa da ohea? **E:** biak dira onak, baña askoz prestuagoa ta ohea da onezko damua edo Kontriziua. **G:** Zergatik? **E:** Zeren, len esan dan bezala, Atrizioa bera utsik ez dan asko bekatariari graziaren apaindura ederra emateko; baña Kontrizioa da damu añ indartsua, añ miragarri ta prestua, non biotzean sortzen dan une edo puntuan bertan aienatzen dituan bekatu larri guziak, eguzkiak gauaren illuntasunak aienatzen dituan eran. **G:** Beraz onezko damu edo Kontrizioarekin konfesatzeko

prestatzen bada bat, eta Elizara dijoala bidean iltzen bada Konfesio gabe, Zerura joango da? **E:** Bai, Jauna, zeren Jaunaren grazian ilko dan. **G:** Eta beldurrezko damu edo Atrizioarekin prestatzen dana konfesatzeko, Elizarako bidean iltzen bada Konfesio gabe, nora joango da? **E:** Infernura, zeren bekatuan ilko dan. *Erakusleak:* Ongi diozu; orregatik sarritan, eta biotz osoz egin bear lituke Kristauak Fede, Esperanza, Karidade ta Kontriziozko afektoak, eta oek egiteko balia ditoke, Dotrinako liburutxoak dakarren goizeko jaieraz.

BEDERATZIGARREN ERAKUSALDIA

*Zer dan Konfesio onak eskatzen
duan hirugarren gauza.*

G: Konfesio on bat egiteko bear dan irugarren gauza zein da? **E:** Ontzeko, edo aurrera bekaturik ez egiteko asmoa. **G:** Nolako asmoa ote da asmo au? **L.** Lenbizia, asmo *oso eta sendoa*. Bigarrena, bekatu guzietara, larrietara beintzat, zabalzen dana. Hirugarrena, asmo *eragillea*. **G:** Zer aditzen dezu diozunean: *asmo oso eta sendoa*? **E:** Aditzen det asmo biotz guzitik jaioa, eta alako sasoian ipintzen duana bekataria, non prest jartzten dan ezergatik ere aurrera bekaturik ez egiteko, ez eta bizitzagatik edo eriotzagatik ere. **G:** Zer aditzen dezu diozunean: *bekatu guzietara, larrietara beintzat, zabalzen dana*? **E:** Aditzen det, Konfesio ona egiteko ez dala asko bekatu au edo ura ez egiteko asmoa, baizik bear dala bekatu, larririk beintzat, batere beñere ez egitekoa. **G:** Askot ote da bekatu larririk beñere ez egiteko

asmoa, bekatu benialik baizik egin ez duana, konfesatzen danean? **E:** Ez, Jauna. **G:** Zeregin bear du bada onelako bekatariak, Konfesioko Sakramentuaren ondasunak ez galtzeko? **E:** Artu bear du asmo osoa bekatu larririk ez egiteko, beiñere, ezeta Konfesatu dituan, benialak ere, batez ere au edo ura. Orregatik onena da gutxitan egindako bekatu benial andiskoteren bat aitortzea, larririk ez danean. **G:** Zergatik hori? **E:** Zeren errazago sortzen dan gutxitan egin oi dan bekatuan ez erortzeko asmoa. **G:** Zer aditzen dezu diozunean: *asmo eragillea*? **E:** Aditzen det asmo bat, bekataria esnatzen eta azkartzen duana, aurrera bekatu rik ez egiteko neurri ego-kiak artzera.

AMARGARREN ERAKUSALDIA

*Asmo eragilleak eskatzen dituan
neurri egokien gañean.*

Erakusleak. Esan dezu, asmo eragillea dala asmo bat, bekataria esnatzen eta azkarzen duana, aurrera bekaturik ez egiteko neurri ego-kiak artzera. Ezadazu orain.

G: Zer neurri dira oek? **E:** Bearrenak sei. **G:** Zein dira? **E:** Lenengoa bekaturako bide eta perill urkoak beti-betiko utzitzea. Bigarrena, utzitzea era berean, besteri bekaturako bidea ematen dioen izketa eta modu gaizto guziak. Hirugarrena, lagun urkoari bere honran, izen onean edo beste ondasunetan egindako kalteak desegitea eta gauza bere jabeari biurtzea lenbaitlen. Lau- garrena, bekaturen batean erorzeko oitura izan bada, au eskuratzeko eta ezitzeko benaz saia- tzea: Eta argaltasunez irristatzea gertatzen bada, lenbaitlen altxatzeko alegiña egitea Sakra- mentuen sendagaiak artuaz. Bostgarrena, bakoit- zaren estadu, bizimodu eta karguari dagozkan

eginbideai arretaz erantzutea. Seigarrena, eza-
gutzea ez gerala gauza edo gai gerenez, eta Jau-
naren grazia ta lagunza gabe neurri oek artzeko,
ezeta *Jesus bat* esateko ere: eta grazia hau kon-
tuz billatzea, dala Jaun berari umilki eskatuaz,
eta sarritan Sakramentuak artuaz, dala Birjiña
txit santa bekatarien Ama gozoa Bitarteko ipi-
ñiaz. **G:** Konfesatzera datozen guziak ote dakarte
esan dezun bezalako asmoa? **E:** Ez Jauna; omen
dira alabaña bekatari asko asmoaren iduri utsa-
rekin datozenak.

AMAIKAGARREN ERAKUSALDIA

*Ontzeko asmo-iduri utsarekin
konfesatu oi diran bekatarien
gañean.*

G: Nor, edo zein ote dira ontzeko asmo egiazko gabe, edo asmo-iduri utsarekin konfesatzen diranak? **E:** Asko bide dira, baña ezagutuenak hoek. Lenbizia, Dotrina eta ongi konfesatzeko prestaera ikasteko arretarik artu nai ez duenak. Bigarrena, bekaturako bide ta perill urkoak, uzteko biotzik ez duenak. Hirugarrena, besteri bekaturako bidea ematen dioen hitz loi eta modu gaiztoak laja nai ez dituenak. Laugarrena, lagun urkoari onran, izen onean, edo beste ondasunetan egindako kalteak desegiteko, edo jabeari bere gauza biurtzeko arretarik ez duenak. Bostgarrena, bekaturako oiturak garaitzera benaz saiatu nai ez duenak. Seigarrena, bere estadu, bizimodu eta karguaren eginbidez ardurarik gabe bizi diranak. Zazpigarrena, lagun

urkoaganako gorrotoa, edo gorrotoaren siñaleak utzi nai ez dituenak.

AMABIGARREN ERAKUSALDIA

Zer dan, Konfesio onak eskatzen duan laugarren gauza.

G: Konfesio on bat egiteko bear dan laugarren gauza zein da? **E:** Konfesioa. **G:** Zer aditzen dezu konfesioaren izenez? **E:** Aditzen det egindako bekatuak aitortzea edo esatea barkatzeko eskua duan Apaizari. **G:** Aitortu edo konfesatu bear ote dira bekatu benialak ere? **E:** Ona da, baña ez da premiako gauza; eta nola konfesatu ditekean bekatu benialak baizik ez duana, esan da bederatzigarren Erakusaldian. **G:** Zer doai edo kondizio bear ditu Konfesioak? **E:** Hirutara biur ditezke guziak. **G:** Zein dira? **E:** *Umilla egiazkoa eta osoa izatea.* **G:** Zer da konfesio *umilla*? **E:** Umiltasun eta lotsa eder batekin bekatuak aitortzea. **G:** Zer da konfesio *egiazkoa*? **E:** Aitortzea bekatuak examinan arkitu diran eran eta adiña. **G:** Zer da konfesio osoa? **E:** Bekatu larri konfesatu gabeak osotoro aitortzea. **G:** Konfesatu gabe utzitzen badezu bekatu larriren bat, zeren examinan gogora

etzatzun, edo zeren gero aztu zatzun, gaiztoa izango ote da zure Konfesioa? **E:** Ez, Jauna, hori nere kulpaz gertatzen ezpada, baña geratuko naiz aztutako bekatu hura gero konfesatu bearran. **G:** Lotsaz edo gaiztakeriaz bekatu larriak edertzen, edo ixilik gordetzen badira Konfesioan, zer bekatu egiten da? **E:** *Sakrilejioa* deritzan bekatu izugarri bat. **G:** Zer egin bear du onelako bekatariak? **E:** Berritu bear ditu gaizki konfesatzen asi zanetik egindako Konfesio guziak. **G:** Beraz konfesatu gabe utzi zuan bekatua ezezik, konfesatuak ere berriro aitortu edo esan bear ko ditu? **E:** Bai Jauna, zeren Konfesio onarekin baka- rrik kenzen eta bukatzen dan bekatu larrien kon- fesatu bearra. **G:** Eta konfesatu gabe utzi zituan bekatuak aitorzeaz gañera, esan bear ko ote du, nola lotsaz edo gaiztakeriaz utzi zituan? **E:** Bai, Jauna, zeren onetan dagoan Sakrilejioa deritzan bekatua orain diogun tranzean. *Erakusleak*. Ongi diozu: eta konfesio gaiztoak berritzeko nola egin ditekean examina, esan zan bostgarren Eraku- saldian.

AMAIRUGARREN ERAKUSALDIA

*Zer dan Konfesio onak eskatzen
duan bostgarren gauza.*

G: Konfesio on bat egiteko bear dan bostgarren gauza zein da? **E:** Satisfakzioa. **G:** Zer aditzen dezu Satisfakzioaren izenez? **E:** Konfesoreak emandako penitentzia leialki egitea. **G:** Konfesoreak ematen dion penitentzia egiteko asmo gabe konfesatzen danak zer bekatu egiten du? **E:** Bekatu larria. **G:** Emandako penitentzia autsitzen, edo egin gabe uzten duanak zer bekatu egiten du? **E:** Ausitzen badu penitentzia larria eta aintzakotzat emana, bekatua izango da larria, baña ausitzen duan penitentzia txikia bada, txikia edo beniala izango da alde onetatik egiten dan bekatua ere. **G:** Konfesoreak agintzen dizun penitentzia, ezin ongi egin dezakezuna bada, zer egingo dezu? **E:** Umilki eskatuko edo erregutuko diot, alda degidala beste penitentzia batera, alda badi-teke. **G:** Konfesoreak ematen diezten penitentziaz

gañera zer egiñ oi due Kristau onak? **E:** Ontzat, edo Jaunaren izenean artzen ditue emengo gurutze ta samintasunak; eskeintzen diozkee Jaun berari beren obra guziak, eta egiten due alegiña Induljenziak edo barkazioak irabazteko.

AMALAU GARREN ERAKUSALDIA

*Kristau guziok Konfesatzeko degun
eginbidearen gañean.*

G: Kristau guziak beartuak ote daude konfesatzera? **E:** Bai, Jauna, gaitzarekin onaren ezaqueran sartu ezkeru. **G:** Urtean zenbat bider? **E:** Urtean beiñ bederik. **G:** Urtearen zer denboraz egin bear du Kristauak, Eliz Ama Santak agintzen duan Konfesio hau? **E:** Ez du Elizak señalatu denbora hau, baba Iruñeko Apaiz Nagusiaren mendeko errietan ala legez, nola usanzaz garizuman egiñ oi da. **G:** Urtean beiñ ezezik beste zenbait aldiz ere konfesatzera beartua ez ote dago Kristaua? **E:** Bai, Jauna. Lenbizia, hilzeko perillean dagoanean. Bigarrena, Komulgatu bear badu, eta bekatuan arkitzen bada. Hirugarrena, sarritan edo noizean beiñ konfesatu gabe ezin bekatuaren berrizkaturak utzi baditu. **G:** Urtean beiñ bederik Konfesatzeko aginte hau, gordetzen ez duenai zer kastigu señalatzen die Eliz Ama San-

tak? **E:** Agintzen du, bizitzan ez dakiela utzi Elizan sartzen eta hiltzen diranean, ukatu dakiela Elizlurra.

AMABOSTGARREN ERAKUSALDIA

*Konfesatzeko prestatzen zeranean,
akusatzen asi baño len egin bear
dezuna.*

G: Konfesatzera zoazenean, nola jarriko zera?

E: Jarriko naiz belauniko umiltasun andiarekin,

eta ziñatuko naiz. **G:** Beraz janzian ta egoeran

umiltasun eta modestia andi bat agertu bear

dezu? **E:** Bai, Jauna; orregatik gizonak ez due

jarri bear ezpatarekin, ez eta emakumeak ere

soñeko arroakin. **G:** Ongi da besteri bere txanda

kendu naiez ibiltzea? **E:** Ez, Jauna, eta beragatik

itxedon bear dio bakoitzak bere txanda edo

aldiari. *Erakusleak:* ongi diozu, baña zarrai eta

eritxo daudenai leku egitea, lenbaitlen Konfesa

ditezen, ederki dirudian gauza da. **G:** Besteren

bekatua aditzen badezu, hura Konfesioa egiten

ari dala, esan ote dezakezu lagun artean? **E:** Ez,

Jauna, baizik ixilik iduki bear det, Konfesoreak

iduki bear duan eran. **G:** Ongi da jakin naiez, Kon-

fesioko gauzak aditzeko moduan jartzea? **E:** Ez, jauna, ta ongi izan ordean da bekatu andi bat. **G:** Akusatzen asi baño len zer esango dezu? **E:** *Ni bekataria*, edo guzia anziñatik Españan esaten dan bezala, edo beintzat erdiraño: edo Ni bekatariaren lekuan esango det *Nere Jesu-Kristo Jauna*. **G:** Akusatzen asitzeko aurrean ongi da egun onak Konfesoreari ematea? **E:** Ez jauna; absoluzioa artu artean ez da hitzegin bear Konfesioari dagozkan gauzak baizik. **G:** Asieran esan badezu *Ni bekataria* erdiraño, edo hitz oetaraño: *Nere kulpaz, nere kulpaz, nere culpa txit andiaz*, gañerakoa noiz esango dezu? **E:** Absoluzioaren aurretik.

AMASEI GARREN ERAKUSALDIA

*Akusatzen edo zere burua salatzen
asitzen zeranean, nola hau ongi
egingo dezun.*

G: Akusatzen asi baño len esan eta egin bear dezuna aditu degu: esazu orain nola akusatuko zeran? **E:** Umilki, egiaz eta osotoro aitortzen dituala nere utsegite ta bekatuak, eta hau erakusten da hirugarren partean. **G:** Aditu det, akusatzeko denboran kontuz utzi bear dirala Konfesioko Sakramentuari ongi ez dagozkan hitzak: zein dira oek? **E:** Lenbizia, hitz eta hipui alferrak. Bigarrena, hitz loiak. Hirugarrena, besteren izen ona edo fama gutxitzen eta beztutzen duenak. **G:** Zer hitz dira *alferren* izena eman diezun horiek? **E:** Hitz alferrak dira esatea: *Akusatzen naiz nere Jangoikoa bear bezala ez amatuaz; akusatzen naiz eriotzako orduan etsaiak akusatuko nauan guziaz;* alferrak dira bekatua esateko nastutzen diran hipui edo kontuak, baldin luzagarri oek

gabe adirazi baditeke egindako utsegitea. **G:** Zer hitz dira loien edo zikiñen izena emen diezunak? **E:** Hitz loiak edo zikinak dira aragien izenak; eta beragatik seigarren Mandamentuaren kontrako bekatuak aitortu bear dira al dan onestidade guziarekin, bekatua ezagutzeko diña baizik esaten ez dala. **G:** Zer hitz dira besteren izen ona edo fama gutxitzen eta beztutzen duenak? **E:** Onelakuak izan ditezke, baldin bekatariak, akusatzen danean, izendatzen badu bekatuan lagun izan duana, edo Senarrak Emaztearen eta Emazteak Senarraren bekatuak kontatzen baditu.

BIGARREN PARTEA

**KOMUNIOKO SAKRAMENTUARI
DAGOZKAN ERAKUSALDIAK**

LENENGO ERAKUSALDIA

Zer dan Komunioko edo Aldareko Sakramentua.

Erakusleak. Ikasi dituzu konfesioko Sakramentuari dagozkan gauzak. Asi gaitezen komunioko edo Aldareko Sakramentuari dagozkionak ukitzen. Esazu.

G: Eliz Ama Santaren Sakramentuen artean laugarrena zein da? **E:** Komunioko edo Aldareko Sakramentua. **G:** Zer da Alderako Sakramentua? **E:** Da, ogiaren eta ardoaren anz eta idurien azpian Jesu Kristo bera Jainko ta gizon egiazkoa berekin daukan Sakramentu guziz miragarria. **G:** Zergatik deitzen zaio *Komunioa edo Komunioko Sakramentua*? **E:** Zeren Kristau fededun guzien animako janaria ta edaria dan, ta ala andiak, nola txikiak, ala aberatsak, nola bearsuak berdin duen janari ta edari hau artzeko eskua. Zeren gañera janari hau ongi artzen duenak bat egiten diran Jesu-Kristorekin eta elkarrekin. **G:** Zergatik deitzen zaio *Aldareko Sakramentua*? **E:** Zeren

Aldarean egiten eskeintzen eta artzen dan. Zergatik izendatzen da *miragarria*, eta askotan: *guziz miragarria*? F. Zeren mirari guzien artean andiena, guzien oroipena, eta guzien miragarritasuna berekin duana dan.

BIGARREN ERAKUSALDIA

*Komunioko Sakramentuari eman oi
zaizkan beste zenbait izenen
gañean.*

G: Esan dituzunaz gañkra Komunioko Sakramentuak ote du beste izenik? **E:** Bai, Jauna, ta ez bat bakarra. **G:** Zein dira oek? **E:** *Eukaristia Jaunaren afaria, Aingeruen ogia, biderako janari ta edaria, edo Biatikoa, eta guziz Santua.* **G:** Zergatik deitzen zaio *Eukaristia*? **E:** Lenbizia, zeren Eukaristiak esan nai duan *grazia ona*, eta Komunioko Sakramentuan dagoan *grazia ona* ezezik, *grazia guziaren iturburua* eta *Emallea*. Bigarre-na, Zeren Eukaristiaren izenak esan nai duan *gañera eskerrak ematea* eta Komunioko Sakramentua eskintzea da *eskerrik andienak ematea*. **G:** Zergatik deitzen zaio *Jaunaren afaria*? **E:** Zeren, azkeneko afarian eta afal ondoan Jesusek egin zituan gauza miragarrien oroipena dan. **G:** Zergatik deitzen zaio *Aingeruen Ogia*? **E:** Zeren Jesu-Kristo dan *Aingeruen atsegin-kontentua*;

eta Jesu-Kristo bera Komunioko Sakramentuan jartzen dan gure animen janari ta edari izateko. **G:** Zergatik deitzen zaio *biderako janari ta edaria*, edo Biatikoa? **E:** Zeren Zerurako bidean ongi ibiltzeko eta betiko bizitza doatsua iristeko janaria ta edaria dan. **G:** Beraz noiznai ar dezazula Komunioko Sakramentua, beti artzen dezu biderako janaria ta edaria, edo Biatikoa? **E:** Bai jauna. **G:** Nola bada biltzeko dagoanari ematen zaionean bakarrik deitzen zaio *Biatikoa*? **E:** Zeren Kristauak beti baña batez ere hiltzeko dagoan, artzen duan betiko bizitzaren bidea. **G:** Zergatik izendatzen da *Guziz Santua*? **E:** Zeren Sakramentuen artean Komuniokoa bakarrik dan Santutasun guziaren Iturburua eta emallea bera beregan daukana.

HIRUGARREN ERAKUSALDIA

Nork eta noiz utzi zion Eliz Ama Santari Komunioko Sakramentua.

G: Nork utzi zion Eliz Ama Santari Komunioko Sakramentu miragarria? **E:** Jesu-Kristok berak. **G:** Noiz? **E:** Ostegun Santu arratsean. **G:** Esazu nola gertatu zan Misterio izugarri hau? **E:** Ostegun Santu arratsean, bukaturik Lege zarrak agintzen zuan afaria, altxa zan maietik Jesus: artu zuan gerrian eskuzapi bat, eta pertzean ura. Garbitu ziezten Apostoluai oñak, eta biurtu zan maiera. Artu zuan ogia, Eta Konsagrazioko hitzak esanik, eman zien Apastuluai. Artu zuan Kalizaere arduarekin, eta Konsagrazioko hitzak esanik, eman zien Apostulu berai. Hau egin ondoan esan zien: Nik oraiñ zuekin egin dedana, egizue zuek ere gero, Nere, eta gaur arratsean egiñ, ta bigar egingo ditudan gauzen oroipena berritzen dezuela. **G:** Beraz arrats onetan eman zien Jesu-Kristok Komunioko Sakramentua egiteko eskua Apostoluai, eta oetatik datozen Apaiz guziaz? **E:**

Bai, Jauna; akindu zien alabaña egin zezeela berak arrats artan egin zuana. G: Noiz egiten du Apaizak Sakramentu miragarri hau? E: Mezan Konsagrazioko hitzak ostiaren ta arduaren gañean esatean.

LAUGARREN ERAKUSALDIA

Zer dagoan ostian Konsagrazioko hitzak Apaizak esan ditzan artean, eta esan ezkeru.

G: Ostian zer dago? **E:** Konsagrazioko hitzak Apaizak esan ditzan artean ogi pixka bat, eta esan ezkeru Jesu-Kristoren gorputza. **G:** Jesu-Kristoren gorputza bakarrik ote dago ostia Konsagratuan? **E:** Ez, Jauna, baizik Jesu-Kristo Jainko ta gizon egiazko guzia. **G:** Beraz Ostia Konsagratuan Jesu-Kristoren gorputzarekin batean arkitzen dira beraren odola, anima ta Jainkotasuna? **E:** Bai, Jauna. **G:** Nola hori? **E:** Zeren Konsagrazioko hitzen indarrez jartzen dan ostian Jesu-Kristoren gorputza bizirik, eta gorputz ziziari ditxeozkanak diran odola eta anima. Zeren gañera Jesu-Kristoren Jainkotasuna gizon egiñ zanetik bat egiña edo unitua dagoan beraren gorputz eta animarekin.

BOSTGARREN ERAKUSALDIA

Zer dagoan Kalizan, Konsagrazioko hitzak Apaizak esan ditzan artean, eta esan ezkeru.

G: Kalizan zer dago? **E:** Konsagrazioko hitzak Apaizak esan ditzan artean ardo ta ur pixka bat, eta esan ezkeru Jesu Kristoren Odola. **G:** Jesu-Kristoren odola bakarrik ote dago Kalizan, Konsagrazioko ezkeru? **E:** Ez, baizik Jesu-Kristo Jainko eta gizon egiazko guzia. **G:** Beraz Kalizan Jesu Kristoren odolarekin batean arkitzen dira beraren gorputza, anima eta Jainkotasuna? **E:** Bai, Jauna. **G:** Beraz Jesu-Kristo guzia dago ostia Konsagratuan eta guzia Kalizan? **E:** Bai, Jauna, baña ostian ogiaren eta Kalizan ardoaren antz ta idurien azpian. **G:** Ostia Konsagratu utsarekin komulgatzen danak, artzen ote du ostia ta ardo Konsagratua artzen dituanak adiña? **E:** Bai, Jauna; artzen du alabaña, ala batak, nola besteak, Jesu-Kristo Jainko eta gizon egiazko guzia. **G:** Zergatik kristau guziak ez dira komulgatzen ostia ta ardo

konsagratuarekin, Apaizak bezala? **E:** Enzun det, asko lekutan onela komulgatzen zirala kristau guziak anziñako denboran; baña kendu zuala Eliz Ama Santak usanza hau, zeren gertatzen zan Jesu-Kristoren odola komunioko denboran ixurtzea, eta gañera, zeren premiazko gauza ez dan era onetan kristau guziak Komulgatzea.

SEIGARREN ERAKUSALDIA

*Komunioko Sakramentuan jartzean,
eta jarri ezkeru Jesu-Kristok egiten
dituan gauza miragarriak.*

Erakusleak. Esan dezu len Komunioko Sakramentuari deitzen zaiola *guziz miragarria*, zeren mirari guzien artean andiena, guzien oroipena, eta guzien miragarritasuna berekin duana dan. Esazu.

G: Zer gauza miragarri egiten ditu Jesu-Kristok Komunioko Sakramentuan jartzean eta jarri ezkeru? **E:** Askok, eta oen artean zorzi txit arrigarriak. **G:** Zein dira? **E:** Lenengoa, Konsagrazioko hitzak esaten diran une edo puntuan bertan jartzea Sakramentuan Jesus Jainko eta gizon egiazkoa, naiz izan Apaiza ona, naiz ez, naiz Katolikoa, naiz herejea. Bigarrena, ezin konta al adiña Elizetan egun oro jartzea eta egotea Jesu-Kristo, Zeruko bere jarlekua utzi gabe. Hirugarrena, Konsagrazioko itzak esatean bertan biurzea len ogi zana Jesu-Kristoren gorpuz, eta len ardo zana

Jesu-Kristoren odol. Laugarrena, Konsagrazioko hitzak esan ondoan ogirik eta ardorik batere Sakramentuan ez geratzea, baña bai ogi ardoen antza ta iduriak, nola diran usaia, kolorea, gus-toa ta indarra. Bostgarrena, ogiaren eta ardoa-ren antz eta iduri oek artzen dituanari ematea ogiak eta ardoak adiña indar. Seigarrena, ostia batek duan bezin toki txikian jartzea eta egotea Jesu-Kristo Jainko ta gizon egiazkoa. Zazpigarrena, ostia erdiratzen edo puzkatzen danean ez puskatzea Jesu-Kristoren gorputza, eta puskatu ordean osorik arkitzea ostiaren puskarik txikie-nean ere. Zortzigarrena, Bizirik, eta Zeruan dituan doai eta edertasun guziarekin jartzen badaere, hillaren eran egotea Sakramentuan. **G:** Nola gerta ditezke gauz aiñ miragarriak? **E:** Jainkoak nai izate utsarekin, zeren dan Guzialduna edo Omnipotentea. **G:** Sakramentua agertzen, edo sagarako denboran goratzen duenean, zer ekusten dezu? **E:** Ez ogirik, zeren ez dagoan; ez Jesu-Kristo, zeren ezkutatua dagoan, baizik ogia-ren antza ta iduria.

ZAZPIGARREN ERAKUSALDIA

*Komunioko Sakramentuak
dakartzian ondasunak.*

G: Zer ondasun ote dakartzi Komunioko Sakramentuak? **E:** Txit andi ta miragarriak, eta asko. **G:** Esaitzu andienak bederik? **E:** Lenengoa, animako janaria eta edaria dan bezala, animari graziaren bizitza ugaritzea. Bigarrena, ongi prestatu artzen duanari bekatu benialak barkatzea. Hirugarrena, bekatu larrian ez erortzeko sendagai txik andia izatea. Laugarrena, animaren etsaiak garaitzeko Zeruko indarrak ematea. Bostgarrena, bekatuak animan utzi oi dituan zauriak, nola diran onerako gogoaren gabea, eta gaitzerako makurtasuna, sendatzea. Seigarrena, bekatuak oiturak eta erraztasunak desegitea, eta birtuteak iristen laguntzea. Zazpigarrena, prestaera ederrarekin artzen duanaren biotzean ixurtzea, askotan beintzat, bere gozotasun miragarriak; animako pakea eta atsegin-kontentu

garbiak. Zortzigarrena, betiko bizitza doatsuaren
prendatzat gure biotzean geratzea.

ZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

Zeiñ bekatu izugarria dan Komunio gaiztoa, eta zer bear dan bekatu onetan ez erortzeko.

Esan dituzu Komunioko Sakramentuak dakartzian ondasun miragarriak: esangidazu: **G:** Guziak artzen ditue, komulgatzen diranean, ondasun oek? **E:** Ez, Jauna, zeren asko diran Komunio gaiztoak egiten dituenak. **G:** Zer bekatu da Komunio gaiztoa? **E:** Sakrilejio guziz izugarria. **G:** Zergatik hori? **E:** Zeren Judasen eran saltzen duan Jesus Jainko biziaren Semea, eta beregan danez berriro ipintzen duan gurutzeko neke-oñazeen artean; orregatik jaten eta edaten du, Paulok dionez, bere betiko galera. **G:** Komunio gaiztoa ez egiteko zer bear da? **E:** Hiru gauza; lenengo zer, eta nolako prestaerarekin artu bear dan jakitea. Bigarrena, Jaunaren grazian egotea. Hirugarrena, barau *naturalean*, edo gau erdia ezkerre ezer ere jan eta edan gabe egotea. **G:** Onezko damu edo Kontriziorekin Jaunaren gra-

zian jartzen bada bekataria, komulgatu ote ditek-
ke? **E:** Konfesio gabe ez, Jauna. **G:** Hiltzeko peri-
llean Sakramentu hau artzen duanak Biatikoaren
eran, artu ote dezake baraurik egon ez arren? **E:**
Bai, Jauna. **G:** Esan dituzun hiru gauz oek asko
ote dira Komunioko Sakramentuaren ondasunak
artzeko? **E:** Asko dira, gizon jakintsuen iritzian,
Sakramentuaren ondasunetatik zerbait artzeko,
baña ez ugari artzeko..

BEDERATZIGARREN ERAKUSALDIA

*Zer bear dan, Komunioko
Sakramentuaren ondasunak artzeko
naroro edo ugari.*

Erakusleak. Aditu degu, Komunio gaiztoa ez egiteko bear dirala hiru gauza, eta dira nolako prestaerarekin artu bear dan jakitea, barau naturalean, eta Jaunaren grazian egotea. Aditu degu gañera, hiru gauz oek asko dirala, Komunioko Sakramentuaren ondasunetatik zerbait artzeko, gizon jakintsuen iritzian, baña ez ugari artzeko. Esan girazu oraiñ.

G: Komunioko Sakramentuaren ondasunak ugari artzeko zer geiago bear da? **E:** Bost gauza. **G:** Zeiñ dira? **E:** Lenengoa da, garbitzea anima, bekatu larrien loietatik ezezik, benialen gogoetatik ere bai, ta onetarako lagunduko du ongi konfesatzeko hirugarren Partean ipiñiko dan prestaerak. **G:** Zergatik garbitu bear da anima bekatu benialen gogoetatik? **E:** Zeren ala aditzera

eman zigun Jesu-Kristok, Apostoluai oñak garbitzean; eta gañera zeren bekatu benialak, eza guera osoarekin, eta ardura gabe egiten badira, galtzen diran Sakramentu onen ondasunetatik asko. **G:** Zein da bigarrena? **E:** Anima ederki apaintzea Fede, Esperanza, Karidade eta beste birtuteen afektoekin, eta onetarako lagundu dezake hirugarren partean dagoan Komunio aurreko prestaerak. **G:** Zein da hirugarrena? **E:** Asmo edo intenzio garbia. **G:** Zer aditzen dezu asmo edo intenzio garbiaren izenez? **E:** Aditzen det, Komunioko Sakramentua artu bear degula, ez bortxaz edo borondate gabe; ez besteak egiten duena egiteagatik; ez oitura utsez, baizik bizitz onean, eta Jesu-Kristoren amorioan aurretzeagatik, eta beste onen anzeko fiñen bateagatik. **G:** Zein da laugarrena? **E:** Janzian modestia. **G:** Eta onela dijoaz arrotasun andiarekin janzirik, eta bearbada bularrak estali gabe Komunioko maiean jartzen diranak? **E:** Ez jauna? ta orregatik ukatu bear zate Sakramentua. **G:** Zein da bostgarrena? **E:** Beldur Santu ta errespeto andi bat erakustea egoeran, begiratzean, eta modu guztie-

tan. Noren maiean jarri, eta Nor artu bear dan begiraturik.

AMARGARREN ERAKUSALDIA

*Komunioko denboran, eta ondoren
egin bear dana.*

G: Zer egin bear da Komunioko denboran eta ondoren? **E:** Lenengo gauza da umiltasun andi batekin, eta belauniko jartzea, ez Aldare aurreko lenengo mallan, baizik Komunioko lekuan: eta gizonezkoak jarri bear due alde batean, emakumezkoak bestean. Bigarrena, egon bear da zuzen, baña begiak beeronz makurtzen dirala. Hirugarrena, artu bear da eskuetan Komunioko zapia. Laugarrena, Jauna datorrenean, poliki idikiko det aua, eta azpiko ezpañaren gañean ipiñiko det mia. Bostgarrena, zerbait ezatu dedin, idukiko det Ostia Santua denbora gutxi batean miaren gañean, eta gero irintxiko det Fede bizi eta beldur Santu batekin. Seigarrena ausapaiari itsasten bazaio Ostia, artuko det miaren puntarekin, eta irintsiko det, eta ala bear bada artuko det ur pixka bat. Zazpigarrena, joango naiz leku egoki batera, Jaunarekin biotzez biotz, ordulaur-

den batean bederik, hitzegitera. Zortzigarrena, denbora onetan emango diozkat eskerrak, eta egingo diozkat nere erregu umillak, eta gero ere sarritan oroituko naiz egin didan mesede andiaz. Bederatzigarrena, ordu laurden batean bederik ez det txisturik botako; baña oarkabean botatzea ez da bekatu; eta eztulak ematen badu estutasunen bat, artu diteke istua musu-zapian.

G: Eta nola emango diozkatzu Jaunari Komunio ondoko eskerrak? **E:** Al dedan ongiena, eta irakurtzen dakiana balia diteke hirugarren partean erakusten danaz.

AMAIKAGARREN ERAKUSALDIA

*Komunio gogozko edo espiritualaren
gañean.*

G: Zer Komunioren gañean hitzegin da aurreko Erakusaldietan? **E:** Aldareko Sakramentua egiaz arturik, egiten dan Komunioaren gañean.

G: Omen da beste Komunio mota bat, Sakramentua egiaz artu gabe egin oi dana? **E:** Bai, Jauna, eta da *Komunio gogozko edo espiritual* deritzana.

G: Zer ote da gogozko Komunio hau? **E:** Guga-nako onginei eta amorioz Sakramentuan dagoan Jesus maitagarria artzeko gogo, egarri ta deseo bero batzuek biotzean sortzea.

G: Zer bear da gogozko Komunio ona egiteko? **E:** Bi gauza; lenengoa da Jaunaren grazian egotea: bigarrena Fede, Esperanza ta Karidadezko afektoakin biotza prestatzea eta apaintzea.

G: Beraz prestaera onen ondoren egin edo sortu bear dira Jesus ona biotzean artzeko eta idukitzeko gogo, egarri ta deseo beroak? **E:** Bai, Jauna.

G: Non, eta zenbat aldiz egin diteke gogozko Komunioa? **E:** Nonere-

nai, naiz etxean, naiz Elizan; eta zenbat aldiz naidan ainbeste bider. **G:** Noiz egin diteke ongiena edo obeto? **E:** Meza enzuten, eta Sakramentua bisitatzen danean. **G:** Eta gogozko Komunio utsa egiten duanak artzen ote ditu Sakramentuaren ondasunak. **E:** Bai, Jauna, eta batzuetan Sakramentua egiaz artzen duenak baño geiago. **G:** Nola hori? **E:** Zeren gogozko Komunioa egiten duana askoz ederkiago prestatzen dan zenbait aldiz, Sakramentua egiaz artzen duana baño.

AMABIGARREN ERAKUSALDIA

*Komunioko Sakramentua artzeko
Kristau guziak duen eginbide edo
obligazioaren gañean.*

G: Kristau guziak beartuak ote daude artzera Komunioko Sakramentua? **E:** Sakramentu oni dagokion ezagueran sartu ezkerro bai, Jauna. **G:** Zenbat bider urtean? **E:** Elizaren lenbiziko denboretan Sakramentu hau artu oi omen zuen kristauak Meza enzuten zuen aldi guzietan. Asi ziran zabartzen, eta agindu zuan Elizak, Komulga zitezela urtean hiru bider bederik edo Pazko loratuan, Maiatzekoan eta Eguerriz. Etziran zentzatu, geienak beintzat, Aginte onekin ere, eta azkenean agindu zan Komulga zitezela urtean bein gutxienez. **G:** Zer denboraz egin bear da urtean beingo Komunio hau? **E:** Pazkoa loratuan: baña Pazkoaren izenez aditzen dira orain Erramutik urrengo amabost egunak, Erramu eguna ere amabost egun oetan sartzen dala. **G:** Non egin bear da Komunio hau? **E:** Bakoitzak egin

bear du bere Elizan, bere Arzaiaren baimenik ezpadu bestetan egiteko. **G:** Pazkoako denboraz kanpora ez ote dago beartua Kristaua zenbait aldiz Komulgatzera? **E:** Bai, Jauna. **G:** Noiz ote? **E:** Lenbizia; hiltzeko perillean arkitzen danean. Bigarrena, Zeruko janari hau gabe ezin garaitu baditu bere griña txarrak, edo ezin iraun badezake Jaunaren grazian. **G:** Urtean zenbat aldiz artu bear luke Kristau guziak janari miragarri hau? **E:** Gutxienez illean beiñ gizon jakinsuen ititzian. **G:** Nor dira Komunioko maiean jartzea eragotzi bear zaten bekatariak? **E:** Errian guziak edo geienak dakiela gaizki bizi diranak, nola diran gorrotoan, ordikerian, adiskidetasun gaistoetan eta usuretan dirauenak.

AMAIRUGARREN ERAKUSALDIA

*Noiz egin bear dan lenbiziko
Komunioa.*

G: Noiz egin bear due Aurrak lenbiziko Komunioa? **E:** Komunioko Sakramentuaren ta Sakramentu berak dakartzian ondasunen ezaguera ta gustua igerritzen zatenean. **G:** Noiz azaldu edo agertu oi da Aurretan ezaguera ta gusto hau? **G:** Amar urteetatik amalauren bitartean, geienean beintzat. **G:** Zer bear da lenbiziko Komunio hau Aurrak ongi egiteko? **E:** Hiru gaura, baraurik, eta Jaunaren grazian egoteaz gañera. **G:** Zeiñ dira? **E:** Lenengoa. Dotrinaren lau parteak ongi jakitea. Bigarrena, konfesioko ta Komunioko Sakramentuari dagozten gauzak ere jakitea. Hirugarrena, ongi konfesatzeko eta komulgatzeko bear dan prestaera nola egiñ ikastea. **G:** Zergatik hori? **E:** Zeren prestaera hau ikasten ez duan aurra konfesio ta komunio gaiztoak egiteko perillean biziko dan. **G:** Pazkoaz, edozeiñ egunez egin bear

due aurrak lenbiziko Komunika? **E:** Hori erabaki bear du animen Arzaiak. **G:** Lenbiziko Komunioa egiteko, berritu bear ote dira arterañoeko Konfesioak? **E:** Ez, jauna, ongi egiñak badira, baña nola aur denborako Konfesioak egin oi diran nolana, eta ardura gitxirekin, berritu oi ditue leku batzuetan lenbiziko Komuniorako. *Erakusleak.* Ongi diozu: eta Konfesioak ezezik, bataioan emandako hitzak ere berritzen ditue.

AMALUGARREN ERAKUSALDIA

*Mezaren Sakrifizio miragarriaren
gañean.*

G: Komunioko Sakramentua denbora berean omen da Jesu-Kristoren Legeko Sakrifizio guziz arrigarria? **E:** Bai, jauna: ala erakusten digu gure fede Santak, eta sinisten degu Katoliko guziok. **G:** Zergatik da Sakramentu? **E:** Zeren ogiaren eta ardoaren anz eta idurien azpian dagoan Jesu-Kristo gure animen janari ta edari izateko. **G:** Zergatik da Sakrifizio? **E:** Zeren dan Trinitade txit Santari Aldarean eskeintzen zaion doai eta ofrenda guziz eder eta onragarria. **G:** Nola deritza Sakrifizio oni? **E:** Meza. **G:** Nori eskeinzen zaio Meza? **E:** Jainkoari bakarrik. **G:** Nola bada Meza batzuek dira Birgrita txit Santarenak, besteak Apostoluenak, besteak Aingeruenak, edo beste Santuren batzuenak? **E:** Ez zeren Meza oek Santuai eskeintzen zaizten, baizik zeen oen oroipe-na egiten eta gure bitarteko Jaunari ipintzen

zaizkan. **G:** Zer eskeintzen zaio Jaungoikoari Mezako Sakrifizioan? **E:** Jesu-Kristo Jaungoiko eta gizon egiazkoa bera ogiaren eta ardoaren idurien azpian. **G:** Beraz bat dira Mezako Sakrifizioa, eta Jesu-Kristok gurutzean eskeñi zuana? **E:** Bai, Jauna bat dira eskeintzen dan gauzaren aldetik, baña ez eskeintzeko eran. **G:** Nola hori? **E:** Zeren gurutzekoa eskeñi zuan Jesu-Kristok, ixuriaz zuan odola, baña Mezakoa eskeintzen da odolik ixuri gabe. **G:** Mezako Sakrifizioa ote da Gurutze-koaren Anza eta oroipena? **E:** Bai Jauna; eta ipiñi zuan Jesu-Kristok, adirazteko guri, gure amorioa gurutzean eskeñi zuan Sakrifizioa; eta onen oroipenak iraun zezan Munduak dirauen artean. **G:** Nori eman zion Jesu-Kristok Sakrifizio hau egiteko; ta eskeintzeko eskua? **E:** Apostoluai eta oen ondorengo Apaizai bakarrik.

AMABOSTGARREN ERAKUSALDIA

*Zertako eskeintzen zaion Jangoikoari
Mezako Sakrifizioa.*

G: Zertako eskeintzen zaio Jaungoikoari Mezako Sakrifizioa? **E:** Bost gauzatarako. **G:** Zein dira? **E:** Lenbizia, eman al ditekean onrarik andien eta garaiena Jaungoikoari emateko. Bigarrena, beraren esku ongilleak egin dizkigun ontarte edo mesede guzien eskerrak emateko. Hirugarrena, beraren aserrea palakatzeko, eta gurekin lagun urkoen bekatuen barkazioa iristeko. Laugarrena, gure eta Purgatorioko animen bekatu barkatuai dagozten penak pagatzeko. Bostgarrena, Zerurako bidean bear degun guzia, batez ere bekatutik aldegitoko eta onean irauteko Zeruko laguntza ugariak iristeko. **G:** Zergatik Mezako Sakrifizioa eskintzea da eman al ditekean onrarik andien eta garaiena Jaungoikoari ematea? **E:** Zeren eskeintzen zaion bere Seme bakar Jesus Jainko ta gizon egiazkoa, eta ofrenda

hau dan neurririk eta mugarik gabe onragarria.

G: Nola Sakrifizio onek barkatzen ditu bekatuak?

E: Iristen dituala Jaunagandik, bekatutik irteteko bear ditugun Zeruko laguntzak. **G:** Hau onela izanik, nola geratzen dira asko beren bizitza gaiztoan? **E:** Zeren baliatzen ez diran bekatutik irteteko Jaunak bidaltzen diezten laguntzaz.

AMASEIGARREN ERAKUSALDIA

Nola enzun bear dan Meza, eta zein dan modurik errazena.

G: Nola enzun bear dezu Meza Santua? **E:** Ongi oartua, eta errespeto edo begiramentu andiarekin nagoala. **G:** Zeiñ ote da Meza enzuteko modurik errazena? **E:** Batzuei agradatzen zate modu bat, besteai beste bat, baña guzien arrear errazena dirudi, batez ere ezjakiñentzat, Jesusen neke-oñazeak ongi gogoan erabiltzea; eta hau frutuarekin egiteko lagun dezake laugarren Partean ipintzen dan *Mezaren enzunbideak*.

HIRUGARREN PARTEA

**LENENGO BIETAN
ADIRAZI DIRAN GAUZAK
OBRAZ EGITEKO ERAKUSALDIAK**

LENENGO ERAKUSALDIA

Erakusleak: *Lenengo Partearen hirugarren Erakusaldian esan zinduan, Konfesio on batek eskatzen dituan gauzak. Laugarren Erakusaldian esan zenduan, zer dan examina, eta azkeneko Konfesiotik oraindanoa nola egin ditekean. Kontu dagigun illabete dala, azkena zu Konfesatu zinoala: egizu arreizkerako examina.*

Azkeneko Konfesiotik oraindanoa examina

Jarri zaite, nere anima, Jaunaren aurrean Elizan, etxean edo leku egokiren batean, au da sinistu ezazu, begira dagokizula, leku guzietan arkitzen dan, eta guzia argiro ekusten duan Jauna. Adora ezazu umiltasun eta errespeto guziarekin.

Jauna adoratzea

Nere Jaun eta Jaungoikoa! Zu zera gauza guzien Asiera ta Iturburua, guzien Iraupena eta Muga edo fiña; eta ni naiz nerez ezereza, eta

dedan izate au zure esku ongilleak emana da. Ala ezagutzen eta aitortzen det, eta adoratzan zaitut umiltasun eta errespeto guziarekin.

Jaunari eskerrak ematea

Milla esker, Jauna, oraindano egin dizkidatzun mesede guziak gatik, eta batez ere zeren itxedon didazun bekatutik irteteko eta Zugana biurtzeko? Baña zer egiñ al dezaket nik zure grazia ta laguntza gabe?

Eska zaiozu Espiritu Santuari bere laguntza.

Atoz, o Espiritu Santua! Atoz beartsuen gurasoa, atoz doaien Emallea: argi ezazu nere adimentua, nik nere utsegiteak ezagutzeko, mugi ezazu nere biotza oen gañean damutzeko, aurrea bekatutik eta bekatuaren bideetatik aldegitoko ta Konfesatzeko. = *(Zerbait laburrago era onetan: nere Jaun eta Jaungoikoa! Adoratzan zaitut; Milla esker, Jauna, egin dizkidatzun mesede guziak gatik, Betor zure grazia, egitera noan examina eta Konfesio au ongi eta zure onran egiteko).*

Begira orain, nere anima, zenbat denbora dan azkena Konfesatu ziñala. Begira bekatu larriren bat aztu ote zitzatzun, eta emandako penitentzia leialki egin zenduan, edo ez.

1. Begira *lenengo Mandamentuan*, Dotrina ikasteko alegiña egin dezun, dala Elizara etorriaz erakusten dan orduetan, dala dakianen bategana joanaz; Jainkoaren itza kontuz enzun dezun; Fede, Esperanza ta Karidadezko afektoak sarritan egin dituzun = *Onetan zabartu etzaitezen oitu zaite goiz-arratsetako jaierara Dotrinako liburutxoan dagoan bezala.*

2. Begira *bigarren Mandamentuan*, juramenturik egin ote dezun gezurraren, edo, ongi ez dakizun gauzaren gañean, eta zenbat bider? Begira, izan ote dezun juramentuak erraz eta sarritan egiteko oitura, egiazkoak dirala aitzakitizat arturik? *Hau da oitura txit itsusia, bekatu askoren sustraia, eta Kristauen etxeetatik aienatu bear dana Juramentu sarritan egiten duana beteko da bekatzuz, eta ez da haren etxetik irten-go neke; eta naigabea, dio Espiritu Santuak.* Begira, egin dezun birauarekin nastutzen dan juramenturik, egin dezagun kontu: *Emendik*

*mugi ez nadilla, Deabruak naramala, au onela
ezpada: zenbat bider? Begira esan ote dezun;
Nere animan, au edo hura onela da. Zenbat
bider? Oitura edo usanza txarra da au ere, eta
gizon jakintsu askoren iritzian juramentu, eta
beragatik erbestetu bear da Kristauen artetik.
Begira, lagun urkoari bota diozun biraurik? Nola-
ko biraua? Zenbat bider biotzetik eta zenbat
bider bestela? Biraua da esatea itzen batzuek,
zeñakin, lagun urkoari gaitzen bat opa diogula,
aditzera ematen degun. Oitura itxusi au duenak,
batez ere gurasoak, bekatuan bizi oi dira, biotzez
botatzen ezpaditue ere. Begira, idiai, beiai, edo
gizonari ez beste gauzai biraurik bota diezun.
Ezta au bekatu larria berez, jabeaganonz gorro-
toa nastutzen ezpada, baña da izkunza txarra,
eta Kristauak ikasi bear ez duana. Begira, esan
dezun Deabrua, Demonioa, eta zenbat bider? Ez
da berez bekatu larria Deabrua edo Demonioa
esatea, soil-soillik begiratzen zaiola, baña ekarri
lezake onetarako perilla, batez ere gurasoetan;
eta nola nai da oitura itsusia Kristauaren auan.
Begira, promesarik egin, eta leialki eranzun dio-*

zun? edo promesarik egin dezun gaitzen bat norbaiti etorri dakion?

3. Begira *hirugarren Mandamentuan*, jai egunetan Meza enzun zentzakeala enzun gabe geratu zeran, eta zenbat bider? Begira, utsegiteko perillean jarri zeran, dala mugonean etxetik abiatu gabez, dala bidean erausian egonaz? Begira, Meza modestia eta errespeto andiarekin enzun bearrean, ibilli ote zeran batera eta bestera begiraka, edo aldemeneko lagunakin itz egiten, edo oek oñakin eta ukalandoakin joaz? Denbora luzean edo laburrean, Mezaren zer partean, eta zenbat bider? Begira, jai osoetan bear debekatuak egin dituzun? Zenbat denboran, zenbat bider, bakarrik edo iñoren aurrean? Begira, aste egunean egin zintzakean lanak, soñekoak edo gurdia adabatzea, abarkak jostea, esiak itxitzea, jai osorako utzi dituzun? (*Badira zenbait guraso eta nagusi edo etxeakoandre Mairuak baño gogorragoak gai onetan*). Begira, kontuzkoa izan zeran, alegiñean *Meza Nagusiak*, eta *Jainkoaren Hitza* enzuteko, *Errosariora* eta *Dotrinetara* joateko? *Gauz oetako bakoitzak ez gaitu beartzen bekatu larriaren azpian, guziok beintzat, baña*

oetatik igesi ibiltzea marka ebarra da. Begira, aragirik jan dezun jatea debekatua dagoan egu-netan? Bakarrik edo lagunakin, eta zenbat bider? Baraurik autsi dezue, barautzeko adiñean sartua bazera, eta artara beartua? Begira, amarrenak eta primiziak sisatu, edo txarrenetik egin dituzun?

4. Begira *laugarren Mandamentuan*, guraso-ai, edo zure buru diranai; gaitzik opa izan diezun? Zer gaitz, eta zenbat bider? Begira, zor zaten errespetua galdu diezun, dala begiratze gogorakin, dala isekak eginaz? edo lotsagabe-keriak eranzunaz? Zenbat bider, eta zenbat lagun en aurrean? Begira, ibilli ote zeran gurasoen aginduak egin nai gabe? Zenbat bider eta nolako gauzetan? Begira, asi dezun bizimodua ikastera ongi saiatu zeran, dala Eskolan, dala jostean, nekazaritzan, arotzian, edo beste langintzaren batean? *Gazteak* txit ardura andia bear du ordu onean etxeratzeko, sarritan Konfesatzeko, Dotrinetara joateko, lagun gaiztoen batzarreetatik aldegitiko, eta ez du estadua artzeko asmoetan asi bear Gurasoen baimen gabe. Gurasoak nagusi, ta Etxekoandreak,

ezkonduak, eta karguren bat duenak emen begiratu bear due nola, eta zenbat bider utsegin duen beren eginbide edo obligazioen kontra.

5. Begira *bostgarren Mandamentuan*, egiaz eta biotzetik amatu ote dituzun zure lagun urko guziak, eta oen artean zure etsaiak? Egiñ ote dituzun sarritan akto Karidadezkoak? *Hau erakusten du Dotrinako liburutxoak goiz arratsetako jaieran*. Begira, opa izan ote diozun etsaiari gaitzen bat? Zer aitz eta zenbat bider? Begira, haren gaitzaz poztu, eta onaz naigabetu zeran? Gauz andian edo txikian? Oarkabean edo oartu ezkeren? Zenbait bider? Begira, zure etsaiari diosala ukatu edo musinka egiñ diozun, edo gorrotoaren siñalaren batzuek agertu diozkatzun? Zenbat bider, eta zenbat lagunen aurrean! Begira, borroka, ukabilka edo makilka ibilli zeran, eta zenbat lagunen aurrean? Begira, edanean igaro ote zeran, ezaguera galtzeraño edo aldeskoraño; zenbat bider? Begira, griña lotsagarri orretatik sortu edo etorri ote diran aserreak, hitz desonestoak, keñada itsusiak, lagun urkoen kontrako erausiak etxean naigabeak, umeen arloteria, aziera gaiztoa eta zorrak ez pagatzea? Bekatari

mota hau txit nekez sendatzen da, zeren biotzik ez duen beren griña kutuna utzitzeko.

6. *Begira seigarren eta bederatzigarren Mandamentuetan*, garbitasunaren edo Kastidatearen kontrako goporazioetan egon ote zeran, edo poztuaz, edo goixatuaz, edo deseatuaz, edo zeregandik aienatzeko alegiñarik egin gabe, eta leku emateko perillean? Oarkabean edo osotoro oartu ezkeru hau gertatu dan, eta zenbat bider? Begira, aragizko izenak esan, hipui zikiñak kon-tatu, edo kanta desonestoak kantatu dituzun? Zenbat bider, zenbat lagunen aurrean, eta horiek aideak eta zer estadutakoak ziran? *Onelako bitz nazkagarrietarako makurtuak eta oitura zarra duenak, txit nekez sendatzen dira*. Begira, erabilli ote dituzun zure begiak, bekaturako bidea dakarten gauzai begiratuaz, edo zelatan? Zenbat bider? Begira, ganaduak elkarganatuak dabilzanean, egon ote zeran begira goixatuaz, edo onetarako perillean? *Begi arroak, zelatariak, ta guzia ekusi bear duenak nekez izango dira garbiak*. Begira, egon ote zeran hitz desonestoak aditzen, eragotzi zentzakeala onelako hitzketa loia, edo aldegin zentzakeala? Begira, ezin alde-

gin zentzakeanean, kopeta beltz erakutsi zenduan, edo hau egin lekuan erakutsi ote zenduan poza? Begira zure kidekoaren batekin egiñ dezun jolas edo ibillera itsusirik? Zenbat bider? Bakarrik edo iñoren aurrean? Begira, jai egunetan edo beste denboretan joan ote zeran lagun gaistoetara, edo bekaturako perilla izan oi dan lekuetara? Begira, zure esku horiek garbiak izan ote diran, garbitasun edo Kastidadeari dagozkan gauzetan? *Ez da emen geiago ipintzen irakurlearen gogoak zikindu ez dedin: bekatariak berak gertatu zaionaren kontuak atera bear ditu, gauz andiagorik badu.*

7. Begira zazpigarren eta amargarren Mandamentuan ezer ostu dezun? Zer eta zenbat bider? Begira, etxeko gazteren baten estalki izan ote zeran, artoa, garia, edo beste gauzaren bat ostutzeko, edo ixilka saltzeko? Begira, gauzaren bat saltzean, edo erostean egin dezun tranparik neurrian, pisuan, edo prezioan? Begira, epetan zer bait eman dezunean goieneko prezioa baño geiago tiratu dezun? *Hau da usura deritzan bekatu itsusia?* Begira, jokoan tranparik egin dezun? eta ezer gis-onetan irabazi dezun? Eta

tranpa ez egitera, galduko ote zenduan? Begira, gurasoen mendean bizi diran gazteekin oei dagotenaz kanpora, eta gurasoen borondatearen kontra jokatu dozun zerbait? Besteren gauzaren kutiziari lekurik eman diozun bide okerrez hura iristeko gogo, edo asmoarekin? Bide onez gauza nai izatea berez ez da bekatu.

8. Begira *zortzigarren Manamentuan*, egotzi ote diozun norbaiti ez duan falta edo mantxa, edo egiñ ez duan okerren bat? Zenbait bider, eta zer falta? Begira, lagun urkoaren bati aurpegira eman ote diozun lotsatuko edo naigabetuko duan gauzaren bat, dala berea, dala aide edo aurrekoena? Bakarrik edo iñoren aurrean? Begira, lagun urkoen falta ixillak, edo barreatu gabeak agertu ote diozkatzun etzekizkianen bati edo geiagori? Zer faltak, zenbat bider, ta zenbat laguni? Begira, etxean igarotzen dana kanpoan kontatu dezun? Zer kontatu dezun, eta gauz andiak, edo pakea-galeraztekoak ziran? Begira, egon ore zeran lagun urkoen faltak edo gustoz aditzen, edo erausi oek eragotzi zintzakeala eragotzi gabe? Begira, lagun urkoaren falta barreatuak aditu edo kontatu dituzun, zeregan poztu-

tzen zerala, ta esaten dezula: *Jainkoak barka degidala, ongi egiñ zaio?* Begira, norbaitek sekretoaren azpian esan edo fiatu dizuna kontatu dezun? Zenbat bider, eta zenbati? Begira, saria agindurik, edo losentxakin ager erazo ote diozkatzun norbaiti urliaren, sandiaren edo berendiaren faltak, edo ixillik gorde bear zituan gauzak? Zenbat bider? Begira, izan dezun lagun urkoaz ariñ edo erraz gaizki juzgatzeko, edo haren faltak sinisteko oitura? Begira, esan ote dezun iñoren kalteko gezurrik = *Gezurra erraz esaten duana, erraz eroriko da utsegite andietan ere.*

Ona nola egiten dan azkeneko Konfesiotik, oraindañoko examina lenengo Partearen laugarren Erakusaldian esan zenduan bezala. Ez dira gauz asko ukitzen, zeren guzia esatea, eta begien aurrean ipintzea on eztan; eta bekatariak gañerakoaren kontua atera dezake erraz. Aurrai gogoan arrerazo bear zate lenbizia examinaren asierako prestaera; gero mandamentu bakoitzari dagokan examina liburutik esanerazo liteke egun batean pixka bat, bestean beste pista bat. Ondoren erakusleak aditzera emango die iraku-

rri dana bera, eta onela neke andi gabe oituko
dira examina egiteko modura.

BIGARREN ERAKUSALDIA

Erakusleak. Lenengo Partearen bostgarren Erakusaldian esan genduan, nola examina egin bear dan Konfesio gaiztoak berritzeko. Kontu dagigun, gaiztoak izan dirala, zuk aurtasunetik egin dituzun Konfesioak, dala zeren bear dan damu ta ontzeko asmoa gabe konfesatu zeran dala zeren bekatu larriren batzuek lotsaz konfesatu gabe utzitzen zinduan. Orain guziak berritu nai eta bear dituzu. Egutzu bada examina bostgarren Erakusaldi artan esan zenduan bezala.

Aurtasunetik oraindañoko Konfesioak berritzeko examina. Jarri zaite, nere anima, Jaunaren aurrean, Elizan, etxean edo leku egokiren batean, hau da sinutu ezazu, begira dagokizula leku guzietan arkitzen dan, eta guzia argiro ekusten duan Jauna. Adora ezazu umiltasun eta errespeto guziarekin.

Jauna adoratzea

Nere Jaun eta Jaungoikoa! Zu zera gauza guzien Asiera eta Iturburua eta Muga edo fiña,

eta ni naiz nerez ezereza, eta dedan izate hau zure esku ongilleak emana da. Ala ezagutzen eta aitorzen det, eta adoratzan zaitut umiltasun eta errespeto guziarekin.

Jaunari eskerrak ematea

Milla esker, Jauna, oraindaño egin dizkidatzun mesede guziak gatik, eta batez ere zeren itxedon didazun bekatutik irteteko eta zugana biurzeko: baña zer egiñ al dezaket nik zure grazia ta laguntza gabe?

Eska zaiozu Espiritu Santuari bere lagunza

Atoz, o espiritu Santua! atoz beartzuen gurasoa; atoz doaien emallea: argi ezazu nere adimentua, nik nere utsegiteak ezagutzeko, mugi ezazu nere biotza oen gañean damutzeko, aurrea bekatutik eta bekatuaren bideetatik aldegitako ta konfesatzeko. (*Laburrago: Nere Jaun eta Jaungoikoa! Adoratzan zaitut. Milla esker egin dizkidatzun mesede guziak gatik. Betor, Jauna, zure grazia egitera noan examina, eta ondorengo Konfesioa ongi eta zure onran egiteko*).

Begira, nere anima, zenbat urte dituzun, eta zenbat zinduan lenbizia konfesatu ziñanean? Begira, urtean zenbat bider konfesatu zeran? (Aurtasunetik ez, baizik urteren batzuetako Konfesioak berritu bear dituanak, kontu hau bera atera bear du Konfesio ta Komunio gaiztoen gañean). Begira, konfesatzen ziñanean ezagutzen zenduan, gaizki konfesatzen ziñala? Begira, emandako penitenziak egin bage utzitzen zinduan? Zer penitenziak ziran, eta zenbat bider utzi zinduan era onetan?

Begira gero Mandamentu bakoitzean, nola, eta zenbat bider utsegin dezun, baliatzen zerala azkeneko Erakusaldian ipiñi dan examinaz. Zenbat bider utsegin dezun, ezin esan, edo ezin kontua atera badezakezu, oroi zaite, zer oitura, eta zenbat denboran gutxi gora bera izan dezun, eta asteen edo illean zenbat bider utsegiten zenduan. Lotsaz bekaturik konfesatu gabe utzi bazenduan, onena da aurrenetik Konfesoreari garbiro au esatea. Egizu alegiña berezitzeko pensamentuzko bekatuak hitzezkoetatik, eta oek obrazkoetatik. Seigarrengo bekatuetan begiratu bear da, aidearekin eta zer estadutakoare-

kin egin diran, eta zenbat bider. Azkenean ona da aurrena Konfessorearekin egotea, eta erakutsiko dizun eran examina egitea, bestela ezin moldatu bezera.

HIRUGARREN ERAKUSALDIA

Erakusleak. *Egin dezu examina? Orain sortu bear dezu egindako utsegiteen damu egiazkoa, eta ontzeko, edo, aurrena bekatu ez egiteko asmo osoa. Lenengo Partean esan zenduan, onetarako ipiñi bear dirala animaren begien aurrean damubide egokiak, bein beldurrezko damu edo Atrizioarenak, gero onezkoarenak; eta sasoi onean jartzen danean biotza, egin ditezkeala Fede, Esperanza, Karidade eta Kontriziozko afektioak. Dakuskun nola obraz egurten dezun hau guzia.*

Beldurrezko damua edo atrizioa biotzean sortzeko bide egokiak. Nere anima (esango det neregan examinaren ondoren), ekusten dezu, zenbat bekatu eta eskergabekeria egin dituzun zure Jaun eta Jaungoikoaren, eta zu Zerurako egin zinduan Aita onaren kontra? Eta nork esan, zenbat izango diran ongi ezagutzen ez dituzunak? utzi dezu zere Jabe ona eta Salbatzallea, utzi dezu zuri betiko bizitza eman naiez gizon egin, eta bere odolaren kostuz erosi zinduan

Jauna; eta obraz esan dezu: *Ez det Jaun hau ser-bituko*. Nere anima, ez da hau eskergabekeria guziz itsusia?

Zer galdu ez dezu zure bekatu eta eskergabekeria horiekin? Ai! galdu dezu zure Jainkoa, eta Jainkoa galdu ezkeru guzia galdua da. Galdu dezu beraren grazia, arako soñeko eder hura, zeñarekin apaindu zuan Espiritu Santuak bataio-ko egunean zure anima, eta egin zinduan Aita betikoaren ume, Jesu-Kristoren senide, eta Trinitate guziz Santaren Jauregi edo Eliza bezala, ta azkenean Zeruaren jabegai edo heredero. Galdu dezu Zerurako esku, zuzen edo deretxa guzia: galdu betiko bizitza doatsua, betiko atsegin-kontentuak, eta, Jaunak zuretzat prestaturik zeuzkan ondasun miragarriak. Geratu zera Jainkoaren aserrearen azpian, eta etsai galgarriaren mendean. Ai nere anima! ta bazenekus zein itsusi-nazkagarria zauden Jaunaren begietan!

Eta onenbeste kalteren ordaiñ zer frutu atera dezu? Zer irabazi dezu, orain lotsatzen zaituen bekatu, horiekin, galdetzen dizu S. Pablok? Zer, betiko su eta garrak, betiko pena eta oñazeak baizik? Jatxi zaite oraiñ bizirik pensamentuz

oñaze oen toki izugarrira edo infernura, gero hill ondoan jatxi etzaitezen betiko? Zer dala, uste dezue, infernua? Hura da etsai gaistoaren, eta bere serbitzarian lize izugarri bat, non betikotasun guzian egon bearrak diran oñazez lertzen. Hura da beti sutan dagoan labe ikaragarri bat, beiñere itzaliko ez dana. Eta bekatariak berak izango dira ango ilintxak eta illetiak. Hura da sufre erazekizko ainzira edo putzu bat, non Sata-nas bere langilleekin batean egongo dan beti-raunde guzian erretzen. Hura da, neke ta pena guziak arkitzen diran lekua. Nere anima, toki hau, eta emengo betiko nekeak eta penak dira bekatu egain dezun bakoitzean zuk irabazi dezun saria!

Ala ere zure Jaunaren urrikimentu edo miseri-kordiak itxedon dizue, irten zaitezene bekatutik, eta betiko neke-oñazeen perilletik. Deitzen dizue artzai onak ardi galduari deitu oi dion eran: Ene Jesusen eriotza eta odol preziotsua bitarteko dirala, eskeintzen dizue zure bekatu guzien barkazioa, baldin biotz osoz damaturik eta konfesaturik bizitz on bat egin nai badezue: *Ez det nai*, esaten dizue, *bekataria galtzea, baizik nigana biur-*

tzea. Nigana biurtzen dan une edo puntuan aztuko naz egin dizkidan eskergabekeria guziaz. Nere anima, aditzen dezu hau, eta etzera bertatik zure Jainkoagana biurtuko! Etzera damuz desegingo? Noiz artean, gaixoa egon nai dezu bekatuen katez lotua, eta etsai galgarriaren mendean?

Onezko damua edo Kontrizioa sortzeko bide zuzena

Nere anima, beldurrezko damuaren bide egozia gogora dituzu: zoaz aurreraxeago, eta Fedearen argiarekin billa ezazu Onezko damuaren bidea edo motiboa. Hau da Jaunaren ontasun edo maitagarritasun baztergabea, ez nolana, baizik betiko bizitza doatzuaren emalle gure Animen erosle eta salbatzallea dan aldetik begiratzeko. Zure siniste edo Fedeak erakusten dizu, Jaun hau dala zu ezerezetik atera zinduana, eta atera bera ezagutzeko, amatzeko; ta betikotasun guzian berarekin batean Zeruan doatsu izateko. Zure siniste edo Fedeak erakusten dizu, Adan gure lenbiziko, gurasoak galdu zuala, fruta debekatua janda egin zuan bekatuarekin Jauna-

ren grazia ta adiskidetasuna, ta Zerurako esku eta deretxa: eta galdu, ez beretzat bakarrik, baita guretzat ere. Orregatik Adanen humeak sortzen diranetik arkitzen dira bekatu jatorrizkoaren loiez zikinduak, eta Jaunaren aserrearen azpian. Zure siniste onak erakusten dizu, Adanen bekatuak galerazo zigun Zerurako grazia eta deretxa guretzat irabazteko zerutik jatxi zala Trinidadeko bigarren persona edo Seme Jainkoa, eta gizon egin zala Espiritu Santuaren obraz eta graziaz Birjiña txit santuaren sabelean. Zure sinistek erakusten dizu, gizon eginda gurutzean eman zuala bere bizitza eta bere eriotzarekin irabazi zuala guretzat Zerurako eskua, ta arako bear dan grazia. Zure sinistek erakusten dizu, ipiñi zituala Zeruko grazia animetan ixurtzeko Zazpi iturri edo Sakramentu beiñere agortzen ez diranak, oen artean Bataioko eta Konfesioko Sakramentuak; Bataiokoa, bekatu etorkia edo jatorrizkoa barkatzeko, eta Konfesiokoa, Bataioa ezkeroko egindako bekatuak kentzeko. Zer geiago? Ipiñi zuan Aldareko Sakramentu guziz miragarria, eta Zeruan bizi badaere, denbora berean Sakramentu onetan jartzen da, ango Jarlekua

utzi gabe. Zertako uste dezu? Gurekin eta gure artean bizitzeko; guri emateko bere gorputza, bere odola eta bera dan guzia. Misterio oek guziak Jainkoak berak agertuak, eta Eliz Ama Santak erakusten diskitzunak dira, eta Katoliko guziak sinisten dituenak. Esangidaz orain, nere anima; guri ongi naiez hau guzia egin duan Jaunaren Ontasun edo maitagarritasuna norañokoa izango da? Naitaez aitortuko dezu, dala Ontasun edo maitagarritasun neurrik, bazterrik eta mugarik ez duana? Eta zuk izan dezu Ontasun onen kontra altxatzeko ausardia? Arritu zaitetze Zerukoak, eta desegin Zeruko atea! dio Jeremiasek. Eta ala ere Aita onak bezala deitzen dizu, eta eskeintzen eskergabekeria guzien barbazioa! Zoaz bada, nere anima, zoaz lenbaitlen beragana, Seme ondatzallea joan zan eran; eta damuz eta ontzeko asmoz beterik, egitzu Fede, Esperanza, Karidade eta Kontriziozko afektoak.

Akto Fedezkoak goizeko jaieran dauden bezala

Jaungoiko jakiunde ta egia betikoa zerana! Sinisten ditut benaz eta biotz guzitik, Eliz Ama

Santak sinisten eta erakusten dituan gauza guziak, zeren zuk Eliz Ama Santari agertu diozkatzun, eta onek ala erakusten dizkidan. Sinisten det Jainko Aita guziz poderoso Zeruaren eta lurraren Kriadoreagan. Eta haren Seme bakar Jesu-Kristo gure Jaunagan. Zeña sortu zan Espiritu Santuaren obraz eta graziaz: jaio zan Maria Birjiñagandik. Padezitu zuan Ponzio Pilatosen mendean, gurutzefikatua, hilla ta obiratua izan zan. Infernuetara jatxi zan, hirugarren egunean hillen artetik piztu zan. Zeruetara igo zan; an dago jarririk Aita Jainko guziz poderosoaren eskuietik. Andik etorriko da biziak eta hillak juzgatzera. Sinisten det Espiritu Santuagan. Eliza Santa, Katolika. Santuen Komunioa. Bekatuen barkazioa. Aragiaren resurekzioa. Bizitza betikoa. Amen.

Sinisten det, Jesu-Kristo gure Jaunak utzi ziozkala Eliz Ama Santari Zazpi Sakramentu, eta, oen artean Konfesioko Sakramentua, Bataioa ezkerro egindako bekatuak bateatzeko. Sinisten det, Jesu-Kristo gure Jaunak ipiñi zuala Aldareko Sakramentu guziz miragarria, eta Sakramentu onetan dagoala gure animen janari eta edari iza-

teko, grazia ugaritzeko, eta bere gozotasun miragarriak gure biotzetan ixurtzeko. Siniste onetan bizi eta hill nai det.

Akto Ezperanzakoa

Nere Jaun Jaungoikoa! Zure Seme Jesusen eriotza eta merezimentuak bitarteko dirala, eta beraren graziarekin alegiña egiten dedala, esperatzen det zure Ontasun eta Misericordian nere bekatuen barkazioa; eta betiko bizitza doatsua; zeren Zuk ala agindu didazun, eta zere bitzetan aiñ leiala zeran. Zu zera on guziaren iturburua eta emallea, eta zugandik uste det, Jauna, Zerurako bidean bear dedan guzia.

Akto Karidadezko, eta Kontriziozkoa

Nere Salbatzalle Jesus maitagarria! Zu zera Ontasun baztergabea, eta neurrik ez dezuna, eta beragatik guziz maitagarria! Amatzen zaitut biotz guzitik zure Ontasun orri begiraturik: eta Zugatik, eta zure izenean amatzen ditut nere lagun urko guziak, eta oen artean nere etsaiak. Opa diet Zerua eta arako bidean konbeni zaten guzia. OOntasun miragarria! Damu det Zu ofen-

dituaz, eta damu det gauza guzien gañetik. Artzen det asmo osoa ez geiago bekatu rik egiteko, bekatuaren bideetatik alde giteko, eta konfetsatzeko. *Onen lekuan esan dezake* ala nai duenak: Nere Jesu-Kristo Jauna.

LAUGARREN ERAKUSALDIA

Erekusleak. Prestatu zera azkenekotik oraindañoko Konfesioa egiteko. Lenengo Partearen amabostgarren Erakusaldian esan zenduan, zer egin bear dezun akusatzen asi baño len: eta amaseigarrenean esan zenduan, akusatzen zeranean, nola hau ongi egin dezakezun. Daku-seun bada, nola akusatzen zeran, azkeneko Konfesiotik oraindaño egiñ dituzun bekatuen gañean.

Azkeneko Konfesiotik oraindañoko bekatuen aitormena, edo konfesatzea

Ni bekataria konfesatzen naizaio Jainko guziz poderosoari, Santa Maria beti Birjiñari, S. Migel Aingeruari, S. Juan Bautistari, S. Pedro eta S. Paulo Apostoluai, Santa guziai, eta zuri, nere Aita, bekatu geiegi egin dedala pensamentuz, hitzez eta obraz, nere kulpaz, nere kulpaz, nere kulpaz txit andiaz. *(Hau esaten da akusatzen asitzeko aurrean S. Karlos Borromeok erakusten digun erara.)*

Jauna, onenbeste denborada azkena konfesatu ninzala. Egin nuan edo eznuan Konfesoreak eman zidan penitentzia. Aztu zitzatan orduan konfesatzea onelako bekatu. (*Bekatu benialen batzuek aztu arren, ez da oek esan bearrik urrengo konfesioan.*) Egin det ustez ongi konfesatzeko bear dan prestaera.

1. Lenengo Mandamentuan. Nagitasunez utzi det batzuetan goiz arratsetako jaiera Fede, Esperanza, Karidade ta Kontriziozko afektuakin batean, deboziozko gauzak diralako.

2. Bigarren Mandamentuan. Hiru bider esan det: *Nere animan*, bein gezurraren, eta bi aldiz egiaren gañean, baña ez det bekatu anditzat iduki edo iduki det. Esan det: *Nere konzienzian* lau bider, baña ez det juramentutzat artu. (Juramenturik egin bada, esan bear da *zer juramentu* egin diran, zenbat bider, eta gezurraren gañean ziran, edo ez: egin dezagun kontu: *Ala Zerura noala, Deabruak naramala, emendik mugi ez nadilla: hoek dira juramentu birauarekin nastuak*. Bi bider egin diot birau lagun bati (edo senideari), esaten diodala: *Eztanda egingo al den; ede Deabruak eremango al au*, baña ez bio-

tzetik (dan bezela esan bear da). Onenbeste bider otsegin diot *Deabruari Demonioari* eta arraioari, baña ez det bekatu mortalzat iduki.

3. Hirugarren Mandamentuan. Hiru Mezatan ibilli naiz aldameneko lagunakin hizketan, eta elkar ukalondoakin joaz, eta batera ta bestera, begiratuaz, baña ez denbora luzean, eta ez nuan gauz anditzat artu. Ostiral batean ixilka jan nuan aragi pixka bat. Dotrina, Errosario eta Bezperetara ez naiz onenbeste bider etorri, baña ez det bekatu mortalzat iduki. (*Geiago duanak esan bear du beregan arkitzen duan bezela*).

4. Laugarren Mandamentuan. Onenbeste bider aserrerazo diot gurasoari, aginduak egin naigabez; baña gauz andietan ez. Eskolan eta beste lanetan saiatu nindekean geiago, baña zabartu naiz zerbait. (*Geiago duanak begira beza kontuz, eta esan beza examinan arkitu duan bezala*).

5. Bostgarren Mandamentuan. Nere zabarke-riaz utzi det batzuetan lagun urkoetarako onginai ta karidadezko afektuak egitea, goiz arratsetako jaieran erakusten dan bezala; baña ez det bekatutzat artu, deboziozko gauza dalako. Bi

bider atsegiñ artu det lagun bati gaitz txiki bat gertatu zitzaiola, ekusirik. Aserratu ninzan lagun batekin, eta borrokatu giñan beiñ, baña gorroto andi gabe. (*Geiago duanak, esan beza zer duan*).

6. Seigarren Mandamentuan. Oartuta pentsamentu gaiztoai lekurik eman bazate, hitz loidesonestorik esan bada; begiak eta eskuak erabili badira gaizki edo bekaturako moduetan, belarriak zabaldu badira hipui çikiñak eta aragizko hitzak gustoz aditzeko, esan bear da zenbat bider gertatu dan hau, zenbat lagun ziran, eta aidetasunik oekin zenduan, edo ez (*Geiago duanak esan beza zer duan*).

7. Zazpigarren Mandamentuan. Ostu diot Amari onelako gauza ez gaiztakeriarako, baizik nere burua apaintzeko, edo lagunakin jokoan aritzeko. Ostu ditut gereziak eta sagarrak auzotik, baña ez asko. Pillotan egin det onelako tranpa onenbeste bider. (*Geiago duanak, esan beza duana.*)

8. Zortzigarren Mandamentuan. Nere falta bat egotzi diot senide bati, eta zan onelako utsegite. Lagunen faltak kontatu dituk onenbeste bider, baña etziran andiak; eta aditzen egon naiz

gustoz hiru aldiz besteren utsegiteak. (*Andiak, edo onra biziro ukitzen zuenak ziran, edo ez, begiratu kontuz*). Esan ditut onenbeste gezur txiki, eta lenere esan oi ditut. (*Gauz andiagoak dituanak esan bear ditu examinan arkitu dituan eran*). Jauna, oek dira azkeneko konfesiotik oraindañoko denboran gertatu zaizkidan utsegite edo faltarik andienak, eta ala bear bada, *akusatzen naiz lagun urkoaren kontra bota izan ditudan birau guziaz eta azkenekoaz. (Biraunik len beñere bota ez duanak, esan dezake beste bekatu konfesatutako bat gutxitan egiten duana)*. Eskatzen diot nere Jaungoikoari guziaren barkazioa, eta berorri, nere Aita Espirituala, penitentzia eta absoluzioa. (Emen kontuz aditu bear da Konfesureak emanen duan penitentzia, gañerako hitz onakin batean, eta absoluzioa ematera dijoanean esango det): *Argatik erregutzen diot Santa Maria beti Birjiñari, San Migel Aingeruari, San Juan Bautistari, San Pedro eta San Pablo Apostolui, Santa guziai, tu zuri, nere Aita, erregu degiozuela nigatik gure Jaungoikoari. Amen.*

Erakusleak. Onenbesterekin oar diteke Kristaua, nola konfesatu bear dituan bekatuak, dira-

nak dirala. Orain gogoan arritzatzu iru gauza. Lenengoa, oraingo konfesaldian bekatu larriren bat badezu, ez dezu lenekoak esan bearrik, baña ala ere esan ditzaketzu. Bigarrena: Ni bekatarien azkeneko erdia bukaeran esan dezun bezala, esan desakezula Nere Jesu-Kristo Jauna; gauz oek dira alabaña deboziozkoak, eta Konfesatze-ko modu onari dagozkanak. Hirugarrena, absolutioa artu ondoan, beta badezu, zoaz leku egoki batera eta gero esango dan eran emangiozkatzu Jaunari eskerrak, eta presta zaite Komuniorako.

BOSTGARREN ERAKUSALDIA

Erakusleak. Bigarren Partearen amairugarren Erakusaldian esan zenduan, lenbiziko Komunioa egin bear duen Aurrak berritu oi dituela zenbait lekutan arterañoako Konfesioak zeren Aur denborako Konfesioak egiñ oi diran nolana, edo ardurara gutxirekin. Hau bera gertatu zatzu zuri ere, eta egin dezu examina. Parte onen bigarren Erakusaldian ekusi degun eran oraindañoako Konfesioak berritzeko asmoarekin. Dakuskun nola akusatzen zeran.

Aurtasunetik oraindañoako bekatuen aitormena edo konfesioa, lenekoak gaiztoak izan diranean.

Ni bekataria konfesatzen naitzaio &. beste konfesioan bezala. Jauna, ditut onenbeste urte, eta lenengo Konfesioa egin nuanean, nituan ainbeste. Arreizkero konfesatu naiz urtean onenbeste bider. Aur denboran gertatu zitzatan one-lako gaiztakeria, eta lenengo Konfesioan, edo geroxeago utzi nuan lotsaz konfesatu gabe, (edo

ez nuan ezertan artu, baña ezagutzen nuan ona izango etzala egin nuan gaistakeria hura). Gerozko Konfesioetan oartzan nintzan (*edo ez nintzan*) bekatu artzaz. Beste askotanere utzi ditut (*edo ez ditut*) bekatuak lutsaz konfesatu gabe. Egiten nituan Konfesoreak ematen zizkidan penitenziak, (*edo egin gabe*) utzi nituan onenbeste bider onelako edo alako penitenzia.

1. *Lenengo* Mandamentuan. Aurtasunetik izan naiz zabarra Dotriñara etortzeko, Fede, Esperanza eta Karidadezko afektoak egiteko, eta lenbiziko Komuniorako prestatzen asi nitzan artean, ezertan artzen ez nituan gauz oek (*besteak esango du besterik, eta bakoitzak esan bear du igaro zaiona igaro zaion bezala*).

2. Bigarren Mandamentuan, eta era berean besteetan esango ditut egin ditudan bekatuak, dala pensamentuz, dala hitzez, dala obraz. Ezin gogora bazat, zenbat bider gutxi gorabera utsegin dedan, kontu aterako det, zenbat denboran izan dedan oitura edo erraztasuna bekatu onetan edo artan erortzeko, eta astean edo illean zenbat bider erortzen nintzan gutxi gora bera.

Konfesioa bukatzen dedanean, egingo det beste Konfesioaren bukaeran esan dana bera. *Erakusleak. Ongi esan dezu; baña orain gogoan arrezazu gauza bat. Baldin leneko Konfesioak berritu nai badituzu, ez gaiztoak izan diralako; baizik borondatez, orduan ongiena izango da, aurrena konfesatzea azkeneko konfesiotik oraindañoko bekatuak, eta gero berritzea berritu nai dituzunak.*

SEIGARREN ERAKUSALDIA

*Konfesioa egin, eta Jaunaren maiean
jartzeko prestaera Kristau
guzientzat.*

Erakusleak. *Konfesatu ondoan jarri zaite leku egoki batean, eta beta badezu, presta zaite Jaunaren maiera joateko. Prestaera hau egin diteke era askotara, baña oberen bat arkitu dezazun artean, balia zaitezke emen ipiñiko danaz.*

Eman giozkatzu Jaunari eskerrak, zeren konfesioko Sakramentuarekin bekatuak barkatu ditzkitzun.

Nere Jainko ta Aita guziz maitagarria! Zure Seme Jesusek utzi zuan konfesioko Sakramentua gure animak sendatzeko. Sakramentu hau ongi prestatu artzen duanari barkatzen diozkatzu bekatuak, Jesusen eriotza eta merezimentuak bitarteko dirala, eta uste det, hau bera egin dezula nerekin ere, Apaizak barkazioa edo absoluzioa eman didanean. O ontasun eta urrikimen-

tu paregabea! Milla esker, Jauna, mesede berri onegatik.

Berritu itzatzu Bataioko egunean emandako hitzak

Ez naiz, Jauna, eskerrak emanarekin kontentatzen; berritu nai ditut, Bataioko egunean eman nizkitzun hitzak. Gaurdanik utzi nai det, eta uzten det Satanas betiko. Eta Satanasekin batean uzten ditut beraren lagun eta langilleak, edo Mundu galdua, eta aragiaren, eta nere gura txarren naikuntzak. Hau da Zeruaren eta gizonen aurrean Bataioko egunean Zuri eman nizun hitza, eta hau bera ematen dizut gaur ere betiko. *Abrenuntio.*

Gaurdanik betiko utzi nai ditut, eta uzten ditut Satanasen obrak, edo bekatuak eta bekatu-rako bideak. Zoazte nigandik urrutira, adiskidetasun gaiztoak, etxe anima galgarriak, eta lagun dongeen bildura. Hau da, Bataioko egunean eman nizun bigarren hitza, eta hau bera berriro ematen dizun gaur ere. *Abrenuntio.*

Gaurdanik betiko utzi nai ditut, eta uzten ditut Satanasen arrotasun eta zorakeriak, dala

jantzian, janean, edanean, eta beste gastuetan, dala atsegiñ eta jolasetan. Hau da, Bataioko egunean, nik eman nizun hirugarren hitza, eta hau bera berriro ematen dizut benaz eta biotz guztik. *Abrenuntio*. Lagun zaizkizkit arren, eta indazu zure lagunz ugaria agindu dizudana leialki egiteko.

**Arritu zaite, Jaungoiko gizon
Jesus maitagarria zugana
etortzeko dagoala, oroiturik**

Eta oraiñ, nere anima, Nor ote da gaur zugana etortzeko dagoana? Gauz arrigarria! Errege guzien Erregea, Aita Santu guzien Aita Santua, Trinitadeko bigarren Persona, gugatik gizon egin zana, eta gurutzean bizitza eman zuana bera. Hau guzia gutxi bazan bezala, guri onginaiez jarri nai izan zuan Aldareko Sakramentuan, eta jartzen da Konsagrazioko hitzak Apaizak esaten dituanean: eta gaur Sakramentu miragarri onetan zure biotzera etorri nai du zuri bere ondasunak, eta bera dan guzia emateko. Nere anima, nondik zuri onenbeste mesede eta ondasun? Arritzen eta izutzen naiz, nere Jesus ona, Zu nere

biotzera etortzeko zaudela gogoratzean; ez da alabaña nere biotz eskergabe hau zurediñako tokia; baña izutzen ere naiz denbora berean zure hitz oek aditzean: *Ezpadezue gizonaren Semearen gorputza jaten eta odola edaten, ez dezue iritsiko betiko bizitza doatsua.*

Zer egiñ al dezaket bada onenbeste beldurren artean, nere Jesus ona? Aitortzen det, ez naiza ni Zu nere biotzera etortzeko diña? Ta Zuk ala ere nigana etorri nai! Egin bedi, nere animaren jabe maitagarria, egin bedi Zuk nai dezuna, baña egizu Zuk lenago Erregeak, etxeren batera dijoazenean, egiñ oi duena. Aurretik bidaltzen ditue oek, etxea apaintzeko bear diran gauzak. Bidalitzazu bada Zuk ere Errege guzien Erregea, nere animako etxe arlote onetara Zu ongi artzeko bear diran apaindurak, edo Zeruko grazia, doai eta birtuteak. Esazu hitz bat, eta egiña geratuko da guzia. Atoz; nere Salbatzallea; egin zaitte nere animaren jabe. Atoz Jainkoaren Bildots bekatuak kentzen dituzuna, senda ezazu nere anima, bekatuen zauriz betea. Atoz Zeruko su animen Berotzallea, zure amoriozko garrare-

kin aiena itzatzu nigandik bekatuaren kutsuak,
eta onerako epeldasunak.

**Komunio Santua artu baño lenebeago:
esan dezakezu biotzez**

Sinisten det, Jesus maitagarria, Sakramentu
orretan zaudela egiaz. Hau da nere gorputza,
esan zenduan Zuk Sakramentu miragarri hori
egin zenduan arratsean. iEta nork ez du sinistu-
ko Zuk esandako gauza? Adoratzen zaitut, nere
Jaungoikoa, nere Errege eta Salbatzallea.

ZAZPIGARREN ERAKUSALDIA

*Lenbiziko Komunioa egitera dijoan
Aurrak, nola berritu ditzakean, bere
Arzaiarekin batean Bataioan
emandako hitzak.*

Zenbait lekutan egiten da lenbiziko Komunioa fest-andi baten eran. Prestatzen dira Aurrak bizitza guziko Konfesioarekin: Komunioko egunean, Jauna artzeko aurrean, joaten dira Apaizarekin batean pontera. Kandela irazekiak eskuetan dituela; berritzen ditue Bataioko egunean emandako hitzak, eta gero artzen due Komunio Santua. Ez da gure errietan oraindik usanz eder hau artu, baña erraz egin ditekean gauza da hau. Ara nola. Lenbizia: prestatzen dira Aurrak bizitza guziko Konfesioarekin. Bigarrena: adirazten du Arzaiak Meza nagusiren batean, zer egunez izango dan lenbiziko Komunioa. Hirugarrena: era bada, ordu siñalatuan esango da Meza Komunio onetarako. Laugarrena: Komunio artu bear duen Aurrak egongo dira, kandela irazekia-

kin. Bostgarrena: Aurrak era onetan daudela Apaizak Aldaretik hitzegingo die lenbiziko Komunioaren gañean oraiñ ipiñiko dana, liburutik, edo bestela, ondoren berrituko dira Bataioko hitzak, eta emango die Komunioa.

Hitzegingo die apaizak era onetan

Aurrak, arkitzen zerate Jaun andia lenbiziko aldian artzeko puntuan. Bataioko eta lenbiziko Komunioren egunak dira Kristauarenzat egun txit andiak, sinalatuak, eta beti gogoan iduki bear lirakeanak. Bataiokoa, zeren egun artan irteten dan Kristaua betatu jatorrizkoaren eta etsai galgarriaren, mendetik, eta egiten dan Jainkoaren ume, Jesukristoren senide, eta Zeruaren jabegai. Lenbiziko Komuniokoa, zeren egun onetan bere biotzera datorkion Errege guzien Erregea; agintzen dion betiko bizitza, eta hitz onen prendatzat bera jartzen eta geratzen da Kristauaren biotzean. Egingo du Jesu-Kristok guziz leialki agindu duana, baldin guk ala gordetzen baditugu Bataioko egunetik eman ginduan hitzak. Esan gidazue orain, Aurrak.

APAIZAK: Prest arkitzen zerate Bataioko egunean eman zinduen hitzak berritzeko eta gordezeko?

AURRAK: Bai, Jauna, Jesu-Kristoren graziarekin batean.

APAIZAK: *Aurra, Abrenuntias Sathanae?* Esan nai det; gaurdanik betiko uzten dezu Satanas eta Satanasekin batean beraren lagun eta langilleak, zeñak diran Mundu galdua, edo Munduan bizi diran gaistoak eta aragiaren gura txarrak?

AURRAK: Bai, Jauna, beti-betiko uzten ditut. *Abrenuntio.*

APAIZAK: *Et omnibus operibus ejus?* Esan nai det, Gaurdanik betiko uzten dituzu Satanasen lan eta obra guziak, nola diran bekatua ta bekaturako bideak?

AURRAK: Bai, jauna, beti-betiko uzten ditut. *Abrenuntio.*

APAIZAK: *Et omnibus pompis ejus?* Esan nai det: Gaurdanik betiko uzten dituzu Satanasen arrotasun eta zorakeriak, dala janzian, janean, edanean eta beste gastuetan, dala atsegin ta jolasetan?

AURRAK: Bai, jauna, beti-betiko uzten ditut.
Abrenuntio.

APAIZAK: Arrezazue bada oraiñ Jaun andia fede bizi, umiltasun eta errespeto andi batekin.

ZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

*Komunio ondoan nork-erenai egin
bear lukeana.*

Erakusleak. Bigarren Partearen amargarren Erakusaldian esan zenduan Komunio ondoan zer egin bear dan. Artu dezu zuk orain Jaun andia; zoaz bada toki egoki batera eta egizu obraz *orduan hitzez esana.*

Nor, norgana, eta zertako etorri zatzun Komunio Santuan. Nere anima, artu dezu Komunio Santua, Aingeruen ogia ta Zeruko mana. Esnazaite bada, eta fedearen begiakin begira, Nor dan Komunioan etorri zatzuna? Norgana eta zertako etorri dan? Nor ote da ogi pixka baten idurian etorri zatzun hau? Hau da zu ezerezetik egin zinduan, Jauna bera, eta egin zinduana bera ezagutzeko, amatzeko, eta betikotasun guzian berarekin batean Zeruan doatsu izateko. Hau da zu Adanen bekatuarekin galdua ikusirik, gizon egin zana, eta gurutzeko eriotzarekin Zerurako grazia ta deretxa zuretzat irabazi zuana bera.

Hau zuri bere grazia eta lagunzak emateko Sakramentuak ipiñi zituana, oen artean Komunioko Sakramentua. Nor gana etorri da? Gauz arrigarria! izan zu zeran beziñ eskergabea eta ezereza, eta ala ere zugana etorri da zuganako onginei eta amorioz beterik? Zertako etorri dala, uste dezu? Etorri da zure janari ta edari izateko, ta zuri bere ondasunak, eta bera dan guzia emateko.

Miretsi zaite zugana era onetan Jaun andia etorzeaz

Nundik, nere anima; nondik zuri onenbeste onasun eta mesede? Arriturik geratu zan Salomon, zeren berak egin zuan Eliz ederrean bizizera Jauna etorri zitzaion. Arriturik geratu zan Santa Isabel, zeren ekustera edo bisitatzera joan zitzaion Jainkoaren Ama. Arritzen da Eliz Ama Santa, zeren Trinidadeko bigarren Persona gizon egin eta bizitu zan Birjiña txit Santaren Sabelean. Nere Anima? eta Jaun Andi hura bera zugana etorri bada, eta zerekin badaukazu, etzera miretsiko? Jesus ona! Zer da gizona, eta zer naiz ni, Zu era onetan nizaz oroitzeko?

Egizu Fede, Esperanza ta Karidadezko afektoak, eta adoraezazu

O Jesus ona, nere animaren Erosle edo Redentore maitagarria! Sinisten det Zu egiaz arkitzen zerala Aldareko Sakramentuan, eta Sakramentu onetan nigana etorri zerala. Sinisten det Zu ongi artzen Zaituanari ematen diozula Zeruro grazia ta ongi bizitzeko laguntzak: ta gañera agintzen diozula betiko bizitza; eta bera-gatik Zugan ipintzen det nere uste guzia, zeren Zu zeran Jaungoiko Guzieldun edo Guzia dezake-zuna, eta zere hitzetan guziz Leiala. O ontasun guziz miragarria! amatzen zaitut biotz guzitik, eta kure izenean amatzen ditut nere lagun urko guziak, eta oen artean nere etsaiak. Adoratzen zaitut nere Jaungoikoa, nere Erregea, nere Salbatzallea.

Emangiozkatzu eskerrak

Nai nuke nik, nere Jesus ona, egin dizkidatzun mesede guziai, eta orain nigana etortzean egin didazun oni alik ongiena eranzutea; baña aitor-tzen det, ez naizala gauza, eta gai onetarako

ezezirik, milla bider gutxiagorako ere. Geiena nik egia dezakedana da, esker umillak ematea. Milla esker bada, nere Ongille andia. Alabatu eta bedeikatu zaitzeela Zeruan eta lurrean diran gauza guziak. Bedeika zaitzeela Zeruko Eguzkiak eta izarrak; lurreko loreak, belarrak eta itsasoko arraiak. Bedeika zaitzeela lurrean bizi diran anima on guziak. Bedeika zaitzeela Zeruko Kerubin jakintsuak, Serafin Jaunaren amorez erazekiak eta Aingeru doatsu guziak. Bedeika zaitzala zure Ama maitagarri Aingeruen eta Santu guzien Erregiñak.

**Egin giozkatzu zure, eskari,
edo erregu umillak**

Zer uste ez dezaket gaur Zugandik, nere Salbatzallea? Etxe batean sartzen badira lurreko Erregeak, ez oi dira andik irten etxekoai mesederen batzuek egin gabe. Ta izanik Zu Errege guzien Erregea. Zer ez du Zugandik uste izan bear nere anima beartsu onek? Bera dan guzia eman duanak zer ukatu al dezake? Indazu bada, nere Jesus ona, emendik aurrera bekatutik aldegitiko, eta grazian irauteko doaia. Indazu nere

griña txarrak, batez ere arako geiena nekatzen nauan hura ezitzeko eta garaitzeko zure laguntza ugaria. Oroi zaite nere aide ta ongilleaz, baña nere etsaiaz ere, ala bizi az, nola hillaz. Gorde ezazu zure Eliza Santa bere etsai guzietatik, baita gure Jaun Erregea ere bere etxeko guzietekin.

Jesusen anima, birtutez bete nazazu. Jesusen biotza, amorez erre nazazu. Jesusen gorputza, salba narazu. Jesusen odola, Zeruko amorioa zora nazazu. Jesusen biotzeko ura, garbi nazazu. Jesusen izerdia, graziaren bizitzaz bete nazazu. Jesusen Pasioa, indartsu egin nazazu. O Jesus ona, adi nazazu. Zure llogen artean gorde nazazu. Zugandik alde giten ez arren utzi. Etsai galgarriagandik gorde nazazu. Nere eriotzako orduan dei nazazu. Zeregana eramán nazazu. Zere aldean ipiñi nazazu. Zure Santu ta Aingeruakin alaba zaitzadan sekula guzian. Amen.

LAUGARREN PARTEA

**ERAKUSTEN ZAIO, ALA
LENBIZIKO KONUNIOA EGIN
DUAN AURRARI, NOLA EDOZEIÑ
KRISTAURI BETIKO BIZITZA
DOATSUAREN BIDE EDER-
GARBIA**

LENENGO ERAKUSALDIA

Betiko bizitza doatsua iristeko ez da asko lenbiziko Komunioarekin edo beste edozeñekin ongi asitzea, baizik irauñ bear da bizitz onean: eta zer onerarako bear dan.

Jarri zera, Kristaua Jaunaren grazian? *Poztu gaitezen egun onetan hau da Jaunaren ontasunak neretzat argitu duan eguna*, esan dezakezu. Egund onetan urratu dituzu Ejiptoko kateak; garaitu dezu etsai galgarria, eta igaro zera Jaunaren bendizioetako lurrera. Egund onetan aienatu dituzu bekatua, eta onek berekin dakartzian illuntasun edo tristurak. Egund onetan biurtu zera zure Aita Zerukuagana, Ebanjelioko seme ondartzallearen eran, eta zure Aita onak apaindu zaitu graziaren soñeko ederrarekin. Eman dizu *Karidea* deritzan birtutearen eraztuna, eta gañera Zerurako bidean ongi ibiltzeko oñetakoak edo laguntzak. Azkenean eman dizu zure animaren janaritzat bere Seme bakarra, Bildots bekatuak kentzen dituana. Asi zera ongi betiko bizitza doatsua iristeko bidean. Baña begira; ez da asko

ongi asitzea, baizik iraun bear dezu bizitz onean. Ongi asi zan Saul; Ongi asi zan Judas; eta ongi asi ziran infernuan daudenetatik asko, baña galdu ziran, zeren bizitz onean iraun etzuen. *Azkeneraño dirauena salbatuko da*, dio Jesu-Kristok.

Eta zer bear ote da anetarako? Asko, baña guzia biltzen du Dabidek hitz oetan *Aldegizu bekatutik, eta egizu ongia*. Ez dio Jaunak iñori agintzen bizitz onean irauteko doaia, zabartu ez gaitezen; baña ez dio ukatzen beldur Santu batekin bekatutik aldegiten, eta obra onetan diardunari.

Hau onela izan, eta ala ere ni bizitu naiz ardurra aiñ gutxirekin? Nere Jaungoikoa! Zu zera nere uste guzia, eta zure laguntza ugariaren ustean erabaki det Zu serbitzea, bekatutik aldegitea, eta obra onai jarraitzea. Birjiña txit Santa, bekatarien Ama gozoa lagun zaikizkit arren, nere asmo oek leialki gordetzen.

BIGARREN ERAKUSALDIA

Zer bekatutik gaste Euskaldunak berezkiro aldegin bear duan.

Aldegizu bekatutik, esaten digu Dabidek. Hitz oek adirazten digue, aldegin bear degula edozein bekatutik. *Ene Seme*, esaten zion Tobias zarrak gazteari; *gogoan iduki ezazu beti Jaungoikoa, eta begira, ez lekurik eman bekatuari zere biotzean*. Ala ere badira bekatu batzuek besteak baño ondoren negargarriagoak dakartzienak, ala animarako, nola erri, eta etxeetarako, eta oetatik aldegiten ezpadu gazteak, galduko du bere burua, eta egingo ditu nortaki zenbat kalte. Enzun ezazu bada, gazte Euskalduna, zer bekatu diran arreta txit andia gazte denboran eskatzen duenak, galdu etzaitez.

Lenengua da alferkeria. Ezpada gaztea oituzten dagokan bizi-moduan nekatzera, dala eskolan, dala nekazaritzan edo beste bizimodua ikasteko lanetan, galdua da, ala Jaunaren, nola munduaren begietan; ez du alabaña iñork ere begi

onez ekusten alferra. Onetan bear lizakean kontua errietan artu gabez, ondatzen dira onrarekin denbora luzean iraun duen etxeak, gaitzgillez betetzen dira erriak, eta bekatariz infernua. *Lanean asi nai ez duanak, ez dezala jan*, dio S. Paulok.

Bigarrena da, juramentu erraz egitea, naiz egiaren gañean izan. *Ez dezula juramentuetara zure aua oitu, zeren oitura onek bekatu asko dakartzian*, dio Espiritu Santuak. Ez dezazula bada ikasi askoren gisa esaten: *ala gurutzea; emendik mugi ez nadilla; ala Zerura noala; Deabruak naramala; nere animan*. Oitu zaite esatera *bai* edo *ez*, Kristok erakusten digun bezala.

Hirugarrena da, birauak egitea lagun urkoaren kontra. Hau da oitura txit itsusia, eta gazteak ikasten badu, nekez utziko du. Ala ekusten da egun oro, eta zenbait etxetan bekatu jatorrizkoa edo orijinala bezala igarotzen da aurrekoetatik ondorengoetara. Ez dezazula aitzakiatzat artu: *biotzetik ez dituzula botatzen*, zeren oitura duanak norbaitekin mintzen danean, erraz biotzetik botaku ditu. Gañera ematen du ejemplo txarra, eta hau iritsi oi da, gurasoetan beintzat, bekatu

larrira. Idiai, beiai, eta beste eskutarteko gauzai birauak botatzea ez da berez bekatu larria, baña zuk ez dezazula hizkunde onelakorik artu, zeren malla onetatik bestera erraz irristatu zindezkean.

Laugarrena da *Deabruari, Demonioari, arraioari* deitzea. Ez det esan nai, gaistoari deitzea uts utsik dala bekatu larria edo mortala, baidzik oitura itsusia Kristauaren auan; oitura beñ artu ezkerro, utzi ez oi dana obiraño, eta gurasoetan exenplo gaiztoa dakarrena. Oitu zaite Jesusen eta Birjiña txit Santaren izena auan eta biotzean erabiltzera. Aiena bedi zure autik, eta Kristauen etxeetatik etsai galgarriaren izena.

Bostgarren bekatua da edanean igarotzea. Gazteak, ederretsi ezkerro edanari, nekez txit utziko du bere oitura lotsagarria, eta izango da bere eta beste askoren galgarria eta desonra. Gaurdanik betiko arrezazu griña txar oni lekurik ez emateko asmua.

Seigarren bekatua da hitz loi-desonestoak edo aragizkoak esatea. Begira, oitura hau artu duenak oitura berarekin joan oi dira obiraño. Hau da miñ anze bat nekez sendatzen dana, eta ezin

konta al anima galtzen dituana. S. Paulok ez du nai aragizko bekatuaren izenik aitatzea ere. Aldegizu bekatu mota onetatik, baita lagun mingaiñ enas zikiñak dituenetatik ere.

Zazpigarren bekatua da Erlijiosoen eta Jaunaren Ministroen kontra nolana, edo begiramenturik bage hitzegitea. Hau da Luziferrek, herejeak eta Kristau gaistoak erakutsi duen hizkuntza. Zabaldu da minanze hau izurriaren eran, eta andiak dira egiten dituan kalteak. Ez dezazula ikasi zuk era onetako hizketarik: gorde giezu zarrai, eta Jaunaren Ministroai errespeto andia. Azkenean etzaitezela oitu, aditzen dituzun gauzak erraz kontatzera, lagun urkoaren onra eta izen ona ukitzen bada, ez eta gezurra esatera ere.

HIRUGARREN ERAKUSALDIA

*Zer dan eta nola aldegin bear duan
gazteak eskandaloa deritzan
bekatutik.*

Azkeneko Erakusaldian ukitu diran bekatuaz gañera, bada beste bat txit kontu andia eskatzen duana gure aldetik, eta izendatzen da *eskandaloa*. Eskandaloaren izenei aditzen da lagun urkoari bekaturako *bidea, oña edo lagunza ematea*, dala gaiztakeria erakutsiaz, dala artan lagunduaz losentxakin, edo bestela, dala eragotzi litekeala, eragotzi gabez. Ez due ezertan artzen asko gaztek bekatu mota hau, eta ezertan artu ordean, zenbat eta bekatu geiagotarako bidea ematen duen dala hitzez, dala obran eta ejemplo gaiztoz, anbat geiago berengan poztutzen eta arrotzen dira, eta bear bada laudatzen, ere bai lagun artean. Ala gertatzen da hitz aragizkoak esateko, hipui zikiñak kontatzeko, modu itsusietan ibiltzeko oitura duenakin. Baña zuk, kristaua, gorroto andi batekin begira zaiozu bekatu mota

oni, eta aldegi zu beragandik arreta andi batekin. Onetarako lagunduko dizue asko pensamentu oek.

Lenengo pensamentua: Satanas munduaren asieratik ari da Jaungoikoari gerra egiten, eta animak infernura amilderazten: ta zu Kristaua, jarriko zera Satanasen morroi eta langille, lagun urkoari bekaturako bidea ematen diozula?

Bigarren pensamentua: lagun urkoaren anima Zerurako bidean ipintzea kosta zitzaion Jesu-Kristori gurutzeko eriotza gogorra; eta erosi zuan bere odol preziotsuaren kostuz: eta zuk kenduko dezu Jesu-Kristori ainbeste kostatako anima, eta emango diozu etsai galgarriari?

Hirugarren pensamentua: zure lagun urkoaren anima da Jaunak egiña betiko bizitza doatsua iristeko eta zuk amilderazo nai dezu betiko su eta garren artean?

Laugarren pensamentua: eskandaloa ematen duana beartua dago kalteak alegiñean desegite-ra: eta nola hau egingo du, ezpadaki norañoko kalteak egin dituan? Bearbada anima batzuek infernura dira argatik; besteak argandik ikasi zuen bekaturak zabaltzen, edo batari eta besteari

erakusten ari dira. Pekatuaren izugarria! Ai!
Eskandaloa ematen duanaren zori gaiztokoa, dio
Jesu-Kristok.

Nere anima, egizu asmo osoa, lagun urkoari
beñere bekaturako biderik ez emateko, ez
hitzez, ez exenplo gaistoz. Oraindañoko kalteak
alegiñean desegiteko, bizi zaite Jesu-Kristoren
Lege Santak eskatzen duan eran, eta zere bizitz
onarekin erakutsi giezu zure lagun urkoai Zeru-
rako bidea. Ala egin zuan Dabidek, eta esaten
zion Jaunari: *Erakutsiko diet bekatariari Zerurako*
bidea, eta zugana biurtuko dira gaiztoak.

LAUGARREN ERAKUSALDIA

Jokoaren gañean.

Jokoa, ezpada debekatuetakoa, eta egiten bada bere denboran eta neurrian, ona da dio S. Franzisko Salesek. Baña zer gertatzen da? Bada-bill gazte ariña batetik bestera biltzen da beiñ ta berriz, ta askotan jokalariaikin: asitzen da jokoari ederretsitzen, eta azkenean geratzen da jokorako guziz etziña, makurtua ta itsutua. Jokoaren eta jokorako itsumenaren gaiñan hitz bi esan nai dizkitzut, nere gazte Euskalduna. Oxala ipiñi al baneza itsumen hau zure begien aurrean dan bezalakoa, ta dan bezaiñ animen, etxeen eta errien galgarria! Oxala huskaldunen erri guzietan argiro adirazi al balitez jokorako jaiera eragabekoak dakartzian bekatu ta ondoren izugarriak! Etsaiaren sare ta bixka onetan erori etzaitezen, adiraziko dizut, benik beiñ, zer bear dan bekatu-rik gabe jokatzeko. Adiraziko dizut urrena, ezin konta al bekatu ta ondoren negargarri dakartziala jokorako itsumenak. Asi gaitezen bertatik.

Jokoaren izenez emen aditzen da jokatzea, ez nolana, baizik ipintzen dala zerbait irabazlearentzat. Zer ote da bekaturik gabe hau egiteko bear dana? Ara zer.

1. Lenengo lekuan bear dan gauza da, ez jokatzea joko debekatuan; badira alabaña jokoen artean batzuek debekatuak ez daudenak, eta oetatik dira pillota, saltoa, bolak, trukoak, baita zenbait kartajoko ere. Badira beste joko batzuek, berenez gaistoak ez izan arren, ekarri oi dituen kalteak gatik debekatu diranak, eta onelakoak dira suertezko edo fortunazko joko guziak. Ansiñatik debekatu zituan Elizak onelako jokoak, eta hau bera egin zuen Españako gure Jaun Errekeak; baña ez dira kontentatu Errege berak onenbesterekin, baizik debekatu ditue jokoaren bidez gertatzen ziran, asko gauza. Debekatu ditue osoro trabesak, dana dala jokoa. Debekatu due Legeak diona baño geiago jokoan ipintzea. Debekatu due geroko jokatzea. Debekatu due dirua ez beste gauzarik jokatzea. Debekatu due langilleak, eta alogeran edo jornalean dabilzanak jokoan aritzea astegunetan, goizeko seietatik amabien, eta aratsaldeko ordu bietatik

arratseko zortzien bitartean. Debekatu due azkenik jokoan aritzea edaria saltzen dan lekuan, baita etxetan jokalariai jokorako tokia ematea ere. Ona zenbat gauza debekatu dituen gure Jaun Erregeak jokoan gañean. Emendik atera ezazu, garbiro ta bekatu gabe jokatu nai duanak ez dituala sutsi bear aginte oek, beintzat gai andian. Diot hau, zeren gizon jakintsuen iritzian eta onelako Legeak ez dieza gauza txikiak begiratzen. Orregatik ez da bekatutzat ematen emakumeak bateko ezpatara edo urrera arditako jokatzeko, edo beste jokoren batean trabes txiki bat egitea.

2. Bekaturik gabe jokatzeko bear dan bigarren gauza da, jokoan ez ipintzea nai dezuna egiteko eskua dezun gauza baizik. Emendik eziñ joka dezake gurasoen mendean bizi danak oen baimenaren neurrian baizik, eta alakoakin jokatzen duenak ez due berendutzen irabazia, baldin galzalleak igarotzen badira gurasoen baimenaren, edo beintzat dagoten neuriaz kanpora. Era berean, ezin jokoan ipiñi diteke ostutako gauzarik, ez eta limosnak edo beste obra onak egiteko utzi dizuena ere.

3. Hirugarrena, ezin da inor jokorako bortxatu, ez kuturtu bear gezurrez, hitz gaiztoz eta engañioz, askok egiñ oi duen bezala.

4. Laugarrena, ez da tranparik egin bear jokoko legen kontra. Gisa onetako tranpa da tantoak ostutzea, kartak ixillik markatzea edo signalatzea, gañetik begira daudenekin keñuz elkar aditzea, eta besteak duan jokia onela jakitea. Era onetako tranpakin irabazten duanak biurtu bear du irabazia, baita tranparik egin espalitz besteak irabaziko zuana ere.

5. Bostgarrena, ez da jokatu bear, baldin jokatzea bekaturako bidea bada zuretzat edo bestearentzat, egin dezagun kontu birauak botatzeko, juramentuak nolaini egiteko, pakea galtzeko, etxeakoak naigabez erkiturik ipintzeko, umeai aziera txarra emateko, dagoten bezalako dote, eta irteera gabe utzitzeko, zorrak beren oñean idukitzeko, edo beste eginbide edo obligazioen bati ez erantzuteko. Emendik ezagutu dezakezu, nere Euskaldun ona gutxi izango dirala jokalarien artean bekaturako bide urko eta perill andian bizi ez diranak.

6. Seigarrena, jokoan ez da ipiñi bear diru asko; jokoa alabaña asmatu zan atsegin artzeko ta barruna alaitzeko, utzirik beste kezka alde bat; eta diru asko jokatzen bada ez du alaitzen jokalaria, baizik alaitu ordean kezka betetzen du.

7. Zazpigarrena, ez da igaro bear jokoan denbora luzea; bestela ez da izango atsegiñ artzea, baizik nekatzea, dio S. Franzisko Salesek.

8. Zortzigarrena, bekaturik batere gabe jokatzeke, artu bear da asmo edo intenzio garbia. Onelako asmoetatik bat da jokatzea batek bere burua alaitzeko, gero bere lan eta egitekoai obeto ekin degien.

9. Azkenean, kontu, dio S. Franzisko Salesek, zure gogo ta biotza ez ipintzeaz jokoan. Santuak diona zuk ez egitera, gutxika eroriaz joango zera jokorako gura itsu batean, eta gero nortaki zehat utsegite ta bekatutan amilduko zeran. Baña goazen aurrera, ta dakuskun, nola eziñ konta al diran jokorako itsumenak dakartzian bekatu ta ondoren negargarriak.

Ez da erraz adiraztea, ez eta ezagutzea ere zenbat bekatu eta ondoren negargarri dakar-

tzian jokorako makurtasun eta itsumenak; baña bai, ezin konta al dirala oek, eta zuk zerorrek ezagutu dezakezu egia hau erri askotan gertatzen danari begiratze utsarekin; zoaz ezperen zerbait diran errietara, eta begira ondo, zer gertatzen dan oraiñ ukitzen degun gaiean. Zer ekusiko dezu? Ekusiko dezu festen eta pillotajokoen aitzakian biltzen dirala batetik eta bestetik jokalaria. Billatzen due neke andi gabe jokorako tokia, eta ari dira Legeak debekatzen duan jokoan gau ta egun. Sarritan estaltzen da maia urrez eta zillarrez, eta bereala ekusten da ezer gabe. Onela diardue jokoan batak bestea mutildu dezan artean. Nor, edozein ote dira jokalaria oek? Batzuek dira zorra zorraren gaiñ egiñ, eta oei eziñ eranzun diezanak; besteak bearbada errietako kargudunak; batzuek gazteak, besteak zarrak. Ekusiko dezu, pillota-jokoa edo idiapustua danean ugari egiten dirala trabesak, Legez debekatuak badaude ere. Ekusiku dezu pillota jokoetan, eta legeak debekatzen ez dituan beste edozeiñetan ipintzen dala ixilik, eta guziak dakiela dirua, Legeak siñalitzen duanaz kanpora. Ekusiko dituzu edaria saltzen dan lekuetan

jokoan diarduela ez gutxik; eta era berean aste-
gunetan langilleak eta beren nekearekin bizi
bear duenak, legeak debekatzen duan denbo-
ran. Ekusiko dezu, nola gurasoen mendean bizi
diranetatik asko dabiltzan erriz erri eta festaz
festa jokoan, eta erakerietan. Alferrak dira gura-
soen ongiesan guziak, onelako gazte jokalariai
galerazteko ibillera txar oek. aurrera dijoaz
beren griña txarrak daramatzian tokietara, eta
billatzen duena, edo gurasoai ostutzen diezena
ondatzen due edanean, jokoan eta gaiztakerie-
tan. Ekusiko dezu, nola igesi dabilzan jokalariai.
Meza nagusietatik, errosario eta dotrinetatik.
Ekusiko dezu jokorako itsumen txar onetatik
jaiotzen dirala lagun arteko pakearen galtzea,
gorrotoa, iskanbilla, borroka, buruak autsitzea,
eriotzak, eta onraz agertzen ziran etxeak ezere-
zera biurtzea. Nai dezu oraindik geiago ekusi?
Zoaz bada karzeletara eta gazteluetara, eta an
ekusiku dituzu asko burniz beteak, zeren jokoari
eta gero lapurretari ederretsi zioen. Zoaz urka-
mendietara, galde ezazu, nor zinzilika jarri oi
diran an? Erauzungo dizue, aratzen diran geie-
nak dirala jokalariai, berea griña txarra ez

uzteagatik lapurreta ta eriotzak egin zituenak. Esangidazu orain, nere Euskaldun ona, esangidazu arren: hau guzia onela bada, dan bezala, ez dira ezin konta al jokorako itsumenak dakartzian bekatu ta ondoren negargarriak? Bai egiaz, bai.

Nai dezu zuk, gazte Euskalduna, kalte izugarri oetatik aldegin? Egizu bada kontuz oraiñ esango dizudana. Lenbizia: aldegizu joko debekatuetatik, baita trabesak egitetik ere. Ez dizut esan nai fortunazko jokoetan gauza pixka bat ipintzea, edo beste jokoetan trabes txiki bat egitea dala utsegite andi bat, baizik aditzera eman nai dizut, etzaitezela oitu gauz oetara, txikitik andira igaro etzaitezen. Bigarrena, debekaturik ez dauden jokoetan ere, egin dezagun kontu, pillota jokoan, ez ipiñi diru asko, baizik atsegiñ artzeko diña bakarrik. Hirugarrena, ez ipiñi zure biotza jokoan, baizik atsegiñ arrezazu neurri ta modu onean, gero obeko egiteko dagozkitzun lanak. Laugarrena, ez jokatu jai egunetan Meza nagusi, errosario ta dotrinako denboran. Azkenean aldegizu jokalaria gaiztoetatik, nola diran biraugilleak eta pakea galtzeko bidea eman oi duenak, eta oitu zaite ordu onean etxeratzera.

Era onetan aldegingo dezu jokoak dakartzian utsegite, andietatik bederik. Gure errietan jokorik egokienak mutillentzat dira pillota, balenka, bola edo birlak eta saltoa, baña onena pillota: ojala utziaz ezpalijoaz mutillak joko hau! Neskatxak igaro dezakee jai arratsaldeetako denbora, Dotrina esaten, edo euskerazko libururen bat irakurtzen eta irakurtzen dana enzuten; eta ondoren joka dezakee kartetan. Baña neskatxak jokatu bear due neskatxakin, eta errespetoko andreren bat berekin duela; bestela jokorik onenak ere erraz gaiztotuko dira.

BOSTGARREN ERAKUSALDIA

*Miñantze zein izugarria dan
bekaturako oitura, eta nola ardura
andia artu bear dan onetan ez
erortzeko.*

Edozein bekatu larri da gauza txit gaiztoa eta samiña, Jeremiasek adirazten digun bezala; eta zer izango da bekatua bekatuaren gañean egi-tea, eta arma bekaturoko oitura edo erraztasuna? Oitura hau da miñanze edo gaitz bat gutxitan sendatzen dana. Ala ekusten da egun oro biraugilleakin, edaleakin, hitz desonestoak esateko oitura duenakin. Esana dago: *Anz azturak obiraño*. Espiritu Santuak berak esaten digu: *Gaiztakeriara oitutzen bagera, onera jarriko gerala Etiopiakoak bere larru beltza eta katamotzak edo tigreak bere mantxak utzitzen dituanen*.

Bekaturako oitura da miñanze bat animaren begiak illuntzen dituana. Alfer da gizon bat jakintsua izatea; bekatuari ederretsi ezkeru, gau illun

batean bezala geratuko da animako gauzetan. Ala ekusi zan Salamonekin.

Bekaturako oitura da gaitz bat, mailuak ingudea bezala, gerotik gerora geiago gogortzen duana bekatariaren biotza. Esan diteke Job Santuak Luziferregatik diona: *Gogortuko da onelakoren biotza arria bezala, eta mallukaria ari zaion txingudearen eran.* Eta onela gogortu ezker bekatariaren biotza zer gerta diteke? Zer, ezpada, ezertan ez artzea Jaunaren hitza eta gazti-guak? *Jo zinduan*, dio Jeremiasek onelako bekatariatz, *zere zigorrarekin, eta ez due egindako gaiztakerien damurik artu; zeatu zinduan, eta ez due ikasi nai izan zuk erakusten zeñiena.*

Bekaturako oitura da gaitz mota bat aiñ izugarria, non bere ondoren ekarri oi duan bekatuaren berrizkatura berrizkaturaren gaiñ, egun oro dakuskun bezala. Eta bekatuaren edozeiñ berrizkatura guziz izugarria bada, zer izango da berria, eta berriz gaitzaren mendera biurtzea? Onelako bekatariak dira, Eskritura Santak dionez, *gora bota duana berriz jatera biurtzen dan zakurra bezala.*

Azkenik bekaturako oitura da miñanze bat bekatari gaixoa amilka daramana bekatuen neurria igarotzera. Gure Jaunak beregan erabakia dauka, zenbat bekatu barkatuko diozkan bakoitzari. Neurri hau ez da guzientzat berdiña. Aingeru gaiztoak pensamentuzko bekatu batekin amildu ziran Zerufik Infernura; eta S. Gregoriok dion bost urteko Aurrak juramenturen batzuek eginda igaro zuan neurria, eta betiko galdu zan. Neurria igarotzen duan bekatu hau da, betiko eriotza berekin daraman bekatua; eta hau irintsi ezker, beti betiko galdua da bekataria. Ez da geiago ongi sendatuko eta geratuko da, Zeruko euri eta inz gozoak ukitzen ez duan, lur elkorra bezala. Bekatu onetan amilderazo oi du bekatari itsua bere oitura gaistoak. Ekusten dezu, nere anima, zeñ miñanze izugarria dan bekaturako oitura? Begira bada gaitz onetan erori etzaitez. Iñoiz bekatoren batean irristatzea suertatzen bazatzu, ez *erantsi bekatua bekatuari*, esaten dizu Espiritu Santuak; lenbaitlen altxa zaite damuz beterik.

SEIGARREN ERAKUSALDIA

*Bekatuan erori nai ez duanak
aldegin bear du bekaturako bide, eta
perill, batez ere urkoetatik.*

Perilla maite duana, perillean bukatuko da,
dio Espiritu Santuak. Ala gertatu da denbora
guzietan. Perillean jarri zan Salomon, eta erori
zan, eta hau bera gertatu zitzaion Dabidi ere.
Beraz erori nai ezpadezu bekatuan, aldegin bear
dezu bekaturako bide eta perilletatik, batez ere
urkoetatik.

Ez da Zeruan, eta ez da lurrean, guretzat
bekaturako bide eta perilla ekarri ez lezakean
gauzarik, ainbesteraño gaude gaitzerontz
makurtuak. Ala ere ez dira berdiñak, bekaturako
bide eta perill guziak. Bekaturako bide eta perill
bata da *urrutikoa*. Deitzen zaio onela, zeren
beregandik urruti daukan bekatua, eta gutxitan
amilderazo oi duan artan. Bazoaz Elizara, eta
ekusten dezu gizon edo emakume bat ongi jan-
zia; ekuste hau uts utsik bekaturako bide eta

perill *urrutikoa* da, eta etzaude onelako perill urrutikoetatik iges egitera beartua, bestela iges egiñ bearrak giñake Mundu onetatik.

Bekaturako beste bide eta perilla da *urkoa*. Deitzen zaio *urkoa*, zeren bide eta perill onetan jartzen dana edo dagoana, sarritan erortzen dan bekatuan, edo beintzat erortzeko perill andia dan, saiets guzietara ongi begiraturik. Kontu dagigun, an edo emen biltzen dirala jaietan mutillak eta neskatxak: aritzen dira denbora puska batean karta-jokoan, eta ondoren, edo, bitartean gertatu oi dira hitzketa desonestoak, hipuhi zikiñak eta keñada lotsagarriak. Batzarre onetara joatea da bekaturako *bide eta perill urkoa*. Hau bera gerta diteke festara edo danzara joatearekin edo urliarekin eta sandiarekin hizketan egonaz.

Bekaturako bide eta perill urkoa batzuetan da *borondatearen kontrakoa*, eta naitaere eziñ batek utzi dezakeana kalte andi gabe. Arkitzen da bat karzelan, gizon eta emakume limuri-erresen artean, eta bekaturako bidea sarritan ematen dioela; badijoa bestea itsasoan, eta hau bera gertatzen zaio onziko lagunakin. Bekatura-

ko bide eta perill oek urkoak dira, baña borondatearen kontrakoak, zeren naita ere eziñ utzi ditezkean. Beste batzuetan bekaturaro bide eta perill urkoa da *borondatezkoa*, zeren kalte andi gabe utzi ditekeana dan, eta onela dira geienak.

Gerta diteke, gauzaren bat berez gaiztoa ez izatea, eta gaiztoa izan lekuan edo ordean ona izatea, eta ala ere askorentat bekaturako bide eta perill urkoa ekartzea. Ala eguzkiaren eta izarren edertasuna anziñako denboran izan zan jende askorentzat idolarriarako bidea. Era berean ezkonza, Soldadu sartzea, errietako karguak artzea, ez da batzuenzat bekaturako bidea, baña bai askorentzat. Argatik zuretzat bekaturako bidea ta perill urkoa diran batzarre, lagun gaizto, hizketa eta naspilletatik aldegin bear dezu, *besteak badijoazela* aitzakiatzat eman gabe. Bear bada aentzat ez da ainbeste perill, nola zuretzat, edo ezagutzen ez due; eta nolanai dijoazela besteak, zu beartua zaude bekaturako bide eta perill urkoak utzitzera, utzi al baditezke. Ain gauza bearra da hau, non onelako perilletan jartze utsa ere bekatu dan, gero perillari dagoan bekatua egitea zerbaitek eragotziko balu

ere. Dagigun kontu, urliarenzat jai-arratsetan ostatura joatea dala moskortzeko bide eta perill urkoa; badijoa ala ere, baña biurtzen da etxera ardorik ukitu gabe, zeren aitu dan. Ez da aldi onetan orditzen, baña ordi baliz bezalako bekatua egiten du, zeren bere naiez artarako bide urkoan jartzen dan.

Bekaturako bide eta perill urkoa izateko ez da sarritan bekatuan erori bearrik, baldin era danean erortzen bada bat. Urtean beiñ da iñuteria, urtean beiñ dira erri bakoitzeko festak, eta arako hermita haren inguruan egiñ oi diran gazte ta zarren batzarreak; ala ere askorentzat dira denbora horiek bekaturako bide eta perill urkoak. Gañera gerta diteke bekaturako bide eta perill bat *urkoa* izatea bekatuan erori baño ere lenago, baldin saiets guzietara begiraturik erortzeko perill andia bada. Jose anziñako Jakobean Semea etzan bere etxeoandrearekin bekatuan erori; baña zegoan etxean, egon zan baño geiago egotea izango zan bekaturako bide eta perill urkoa, zeren orpoz orpo zerraikion emakume gaizto hura. Argatik, kapa onen atzaparretan utzirik, iges egin zuan etxetik.

Aditzen dezu, nere anima, zer, eta nolakoak diran bekaturako bide eta perill urkoak. Eta nai dezu benaz eta biotzetik bekatuan ez erortzea? Aldegizu bada onetarako bide eta perilletatik. *Lazoetatik aldegiten duana seguru arkitzen da,* dio Espiritu Santuak. Begira, bazter guzietan zabalduak dauzka etsaiak bekaturako sare eta lazoak.

ZAZPIGARREN ERAKUSALDIA

*Bekaturako bideak ez utzitzeagatik
bekatariak eman oi dituen aitzakien
gañean.*

Bekaturako bide eta perill urkoetan nastusik bizi dan bekataria, arkitzen da etsai galgarriaren katez lotua, eta betiko su eta garren artera amiltzeko zorian. Ala ere gauz arritzekoa! Oetatik asko daude bekatuan lilluratuak, eta ez due heren katea gaiztoen mendetik irten nai: eta hau egiñ ordean, eman oi ditue, bekatuaren bideak ez utzitzeko, aitzakia. Zu ere, nere anima, engañatu etzaitzan etsaiak, adirazi nai dizkitzut aitzakia oetatik batzuek.

Lenengo aitzakia: *joango naiz*, esango du bekatariak, *joango naiz arako etxe artara, non neretzat arkitzen dan bekaturoko bidea; joango naiz beste perill artara, baña ez det ezergatik ere bekaturok egin nai*. Engañatzen zera, Bekataria. Bekaturako bide eta perill urkoan bere naiez sartzen danak nai du bekatua, hitzez ezpada,

obraz. Argatik dio Espiritu Santuak: *Perilla nai duana, perillean bukatuko da*. Gertatzen zaio onelako bekatariari argiaren inguruan jostatzen dabillen tximirrika edo ingumari gertatu oi zaiona. Badabill argi-inguruan tximirrika arin arin: begiratzen dio, eder deritza, eta zenbat eta geiago begiratzen dion anbat geiago lilluratzen da. Alderatzen zaio argiari bein ta berriz, eta erretzen zaio orain egoa, gero zankoa. Ezta ala erretzentzen, eta atzenean geratzen da guzia errea eta hilla. Hau bera gertatzen zaio bekatu-rako bide eta perillera jua nari.

Bigarren aitzakia: *ezin egon naiteke urliarekin edo sandiarekin hitz egin gabe; baña ustedet, emango didala Jaunak bekatuan ez erortzeko grazia*. Engañatzen zera; zeren Jaunak emango dizu bekatuaren bideetatik aldegitoko grazia; baña aldegin lekuan zere naiez sartzen bazera bekatu-rako bidean, utziko zaitu zere griña txarren atzaparretan. Atozea, zere naiez sartzen bazera karobi erazeki batean, nai dezu gorde zaitzan jaunak erretzetik? Ez dezu ekusten, hau dala zorakeria andi bat?

Hirugarren aitzakia: *esango diot urliari, utzi dezala bizitza gaiztoa, bukatu dirala gure kontuak, egin dezala Konfesio on bat.* Atozea, ta aitzakia orrekin iraun nai dezu bekaturako bidean? Uste dezu, esan horiekin zenzatuko dala urlia? Dagigun kontu; otsoak ardiren bat erabilli duala itozteko zorian. Andik geroxeago badijoa ardia otsoa dagoan lekura, eta esaten dio: Otso Jauna, etzaitezela izan oraindano bezein ardi-koia, arrezazu bizimodu on bat. Atozea, uste dezu, orrenbesterekin onduko dala otsoa? Ondu ordean egotziko diozka atzaparrak ardi txoroari, eta egingo du artzaz gura duana. Hau bera gertatuko zaio, esan dan aitzakiarekin bekaturako bidea utzi nai ez duanari.

Laugarren aitzakia: urliaren etxera joaten naiz, baña ez gauza gaiztotara; sandiarekin egoten naiz, baña ez da aspaldian bekaturik gertatu. Izan bedi egia orain esan dan hau guzia; baña baldin egoerak, ibillerak eta moduak ematen badue juizio gaiztoak egiteko, eta esan-mesa pisuetarako bidea, eztakizu kendu bear dezula bide hau? S. Paulok esaten digu, utzi bear ditu-

gula gauza gaiztoak ezezik, gaiztoen antza due-nak ere.

Bostgarren aitzakia: *Zer esango due, etxe artatik irteten banaiz, edo ara joaten ezpanaiz? Zer, urliarekin hitzegiten ezpadet? Atozea, bada-kie edo ez zure bizitza gaiztoaren berri? Ezpada-kie, beragatik ez due ezer esateko biderik, zeren milla bide eta modu izan oi diran etxe bat utzi-tzeko, eta bestera igarotzeko, onekin edo hare-kin gutxi hitzegiteko. Baña baldin badakie errian batzuek edo askok zure berri, poztuko dira oek, bide zuzenean sartu zerela, ekustean. Eta ez uste izan, ez dakizkiela zure kontuak: galde ezperen iturriai, sukaldeai eta labeaurreai.*

Seigarren aitzakia: *Al banu utziko nuke beka-turako bide hau: ark pakea emango balit, ez nioke nik gaitzerako biderik emango; baña zer-tan nago ni, eta zer izango da nizaz harekikoa galdu ezkeror? Atozea, eta eztakizu, anima bat bakarra dezula, eta hori galtzen badezu, guzia galduko dezula betiko? Zure eskuak edo oñak ematen badizu bekatuturako bidea, ebaki ezazu, eta bota zeregandik, esaten dizu Jesu-Kristok: Hau da, zure esku-oñak beziñ gauza bearra baliz*

ere zuri bekaturako bidea ematen dizun hori, ken ezazu zeregandik, aldegitu.

Zazpigarren aitzakia: berorrek dion bezein gauza bearra bada bekaturako bide eta perillak utzitza egingo det hori: botako det urlia; edo irtengo naiz etxe artatik; ez naiz geiago ara joango; baña eman bear dit gaur absoluzioa. Ah gezurtia! Zenbat bider orrelako hitzak eman dituzu, eta ala ere lenekoan, bertan geratu zera? Milla juramenturekin aginduko bazendu ere etzatzu sinisterik eman bear, Santo Thomas Villanuevak dionez: eta San Franzisko Xabierrek dio, etzatela absoluziorik eman bear ez gorrotoan bizi diranai, ez besteren gauza biurtu zezakeela, biurtu gabe egon diranai, eta bekatu loien bide eta perillak utzi ez dituenai. Utzi itzatzu bada, Kristaua, bide eta perill horiek benik-bein; presta zaite Konfesio on bat egiteko, eta orduan da absoluzioa artzeko sasoia.

Zortzigarren aitzakia: *utzi nuan bekaturako bidea geroztik ez da gure artean gertatu len bezalako gauz andirik. Eman bear dit arren absoluzioa. Atozea, eta ez dira izan edo erregalotxoak, edo elkarrekin hitz egiteko bidera irteteak,*

hitz loiak, keñadak eta oen anzeko gauzak? Bai, jauna, diozu: eta ori da bekaturako bideak benaz eta biotzetik utzitzea? Ez, baizik biotzez aetan egotea. Utzi itzatzu egiaz eta biotzetik, eta bitartean etzaude absolutioa artzeko prestatua.

Ona, nere anima, nolako aitzakiak eta apukokak billatu oi dituen bekaturako bideetan nastuak bizi diranak. Hau gerta ez dakizun, iges egizu, eta salba ezazu zure anima, Jeremiasek deadar egiten digun bezala.

ZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

*Errietan egiñ oi diran fest-egunetan
etsaiak prestatuak dauzkan
bekaturako bide eta lazoen gañean.*

Egiñ oi dira errietan festak edo misterio andiren baten bidez, edo, bitarteko edo ongilletzat onratzen duen Santu edo Santaren eguna dala-ko, Fest oek lenbiziko Kristauen denboran ziran festa ederrak, garbiak, jaunaren eta Santuen onragarriak. Barautzen ziran bezperatik; arratsa Elizan igarotzen zuen orazioan; eta eguna zeto-rranean komulgatzen ziran, eta obra onetan igarotzen zuen.

Baldin egungo eguneko festak anziñako aen pare ipintzen badituzu, ekusiko dezu, ez duela elkarrekin antzik. Anziñako festetan onratzen ziran Jauna eta Santuak; oraingoetan desonratzen dira era askotara: Anziñakoetan obra onak egiñaz erakusten zan gure Erlijio Santaren edertasuna eta birtutearen bidea; oraingoetan erakusten da bekaturak askotan beintzat, eta egin

dira idoloen festen anzeko. Hitz batean egun oetarako prestatzen ditu etsaiak bekaturako asko bide eta lazo. Entzun itzatzu, Kristaua, oetatik batzuek.

Jarri zaite, festegunetan ekusi oi diran gauzai bekiraldi bat ematen: ekusiko dezu, egun horietan gauak eta egunak igarotzen dituela askok iskanbillan, jokoan eta edanean batez ere arako hermit-artan festa danean. Ekusiko dezu, gizonetzkoak eta emakumezkoak, zarrak eta gazteak eguna argitu baño len dijoazela basoetan nolainai, eta lasakeria andian. Ekusiko dezu, nola hermitaren inguruak betetzen diran jendez, eta nola iñoren beldur gabe igarotzen duen eguna zorakerietan. Ekusiko duzu, asko biurtzen dirala etxera illundu ezkerro. Nork esan zenbat bekaturako bide eta perill prestatuko dituan etsaiak, onela hermiten ingurura fest-aitzakian jendea biltzen danean? atoz erriaren barrunbean egiten diran festai ere begiratzera. Ekusiko dituzu plazetan, batez ere illuntzera dijoanean, fedegabe-ko jendeen artean ere itsusiak izango lirakean modu asko, ala hitzeran, nola keñadetan. Ekusiko dituzu etxeak, karrerak, zokoak, bideak nes-

katxez eta mutillez beteak. Arriturik geratuko zera, adituko ta ekusiko dituzun gauzakin, eta esango dezu: *Oek dira Kristauen festak? Hau da Jaunaren eta Santuen onran egiten dan festa?* Ez, baizik bekatuen sutegia, etsaiaren sare eta lazoz beterikako bidea, eta garbitasun edo Kastidadearen eriotzako denbora.

Nere anima, oroi zaite; Bataioko egunean beti-betiko utzi zinduala Munduaren zorakeria oek. Aldegizu bekatuako bide eta perilletatik. Fest-egunetan jokatu nai badezu, edo beste jolas garbiren batean denbora igaro nai badezu, izan bedi hau Jaunaren beldur Santua duen lagunakin; bestela gertatuko zatzu beste askori gertatu zaiona, edo bekatuan erortzea eta galtzea Jaunaren grazia ta adiskidetasuna.

BEDERATZIGARREN ERAKUSALDIA

*Iñuteria deritzan denborako perillen
gañean.*

Jesu-Kristo gure Jauna Mundura etorri zan artean, jenderik geienak, edo alde aldean guziak bizi ziran Jainko egiazkoaren ezaguera gabe, eta Jainkoaren lekuan adoratzan zituen nortaki zer gauzak, eta oen artean asko gizon eta emakume gaisto ere bai. Jainko gezurrezko oetatik bi ziran Luperco eta Baco, eta oen onran egiten zituen festak *iñuterian*. Deitzen diogu onela urte berri-tik austerrerañako denborari, eta beste leku batzuetan deritza: *iñoteriak, iduteriak, aratuz-teak, zanpanzartak*.

Zer festa ote ziran iñuterian Lupercoari eta Bacori egiten zitzaizten festak? Guziz lotsagariak; fest oetan egiten zan guzia alabaña etzan ergelkeria, luxuria, gizonak eta emakumeak nolanai ibiltzea, ordikeria eta iskanbilla besterik. Jesu-Kristoren Lege Santak aienatu zituan idolo-

ak, edo Jainko gezurrezkoak; baña ez dira aienatu, oek onratzeko jende fedegabeak ipiñi zituen festa eta usanza loi-lotsagarriak. Zenbat bekaturako bide eta perill ez dira arkitzen zori gaistoko egun horietan? Zenbat anima ez dira amiltzen bekatuaren osiñean? Egia hau ezagutzeko, begira, egun horietan lotsarik batere gabe egin oi diran gauzai. Zoaz erriz erri, ekusiko dituzu asko elkarren leian edanean igarotzen. Ekusiko dituzu neskatxak mutillen, eta mutillek neskatxen janzian, eta bazter guzietan ergelkeriaz gala egiten duela. Ez due denbora onetan iñoren beldurrik, ez begiak, ez mihiak, ez belarriak, ez eskuak? Zer esango det illuntzeko puntuan egiñ oi diran danza lotsagarriaz? Zer, etxeetan eta bideetan gertatuko diran lasaikeriaz? Zer?

Baña ken ditzagun begiak idolatriaren kutsu nazkagarri oetatik, eta zuk, nere anima, egizu asmo osoa perill oetatik aldegitoko. Hau da Eliz Ama Santak guziori eskatzen diguna, eta hau zuri eragiteko artu ditu neurri ederrak. Onetarako ipiñi zuan Kandelari eguneko festa Birjiña txit Santaren onran, zeren egun onetan egiñ oi ziran idoloen onran asko ibillera eta jolas zikiñ. Oneta-

rako garizumaren aurreko hiru igandeetan oska dagote bere hume guziaz, utzi ditzeen Munduko zorakeriak, eta presta ditezen Zeruko ondasun eta atsegin-kontentuak irabazteko. Onetarako erri andietan ipintzen du Jaun Andi-Sakramentua agirian berrogei orduz iñuturiko azkeneko hiru egunetan. Ez da erri txikietan onenbeste era, baña, zerk eragotziko dizu agertu batzuek Elizara egitea, eta Jesus maitagarria, egun oetan, ekusten dituan txarkeri ta bidegabeen ordez fede bizi batekin adoratzea eta onratzea? Eta Elizara etortzeko erarik ezpadezu, zerk eragotziko dizu, zere etxetik hau bera egitea? Ezpadakizu nola hau egiñ gero ipiñiko da liburutxo onetan Erakusaldi laburtxo bat onetarako. Irakurtzen ezpadakizu, ez orregatik naigabetu, egizu biotz onarekin alegiña Jesus onratzeko, dala agur umillez, dala Fede, Esperantza, Karidade ta Kontriziozko afektoz, dala erregu eta estazioren batzuek egiñaz.

AMARGARREN ERAKUSALDIA

*Bekatutik aldegiteko gauza bearra
da animaren lenengo etsaia, edo
Demonioa garaitzea.*

Aldegizu bekatutik: hau da bizitz onean azke-neraño irauteko, eta betiko bizitza doatsua iristeko bear dan lenengo gauza. Aurreko Erakusal-dietan ukitu dira lan hau ongi egiteko zenbait bide guziz egokiak eta bearrak. Orain begiratu bear dezu, nere anima, zein gauza bearra dan zure lenengo etsaia garaitzea.

Animaren etsaieetatik lenengoa, eta guzien erregea da Demonioa. Hau da bere antustez edo Soberbiaz Munduaren asieratik Jainkuaren kontra altxa zan Aingeru gaiztoa, eta Zerutik betiko su eta garren artera amildu zana. Deitzen zaio era askotara; batzuetan *Demonioa*, besteetan *Deabrua*; batzuetan *Satanas*; besteetan *Luzifer*; batzuetan *Anziñako Sugea*, zeren Sugearen aotik hitzegin, eta bere losentxakin engañatu zuan Eba; besteetan *gezurraren Aita* edo *Gura-*

soa, zeren gezurrez bekatuan amilderazo zituan lenbiziko gurasoak. Etsai galgarri onek bere mendean ditu beste ezin kunta al adiña Aingeru gaisto, antustean jarraitu zioenak, eta oez baliatzen da animai bazter guzietan gerra egiteko. Jesu-Kristok bere eriotzarekin garaitu zuan artean andia izan zan etsai galgarri onen eskua eta agintea; bada Munduaren bazter guzietan, edo beintzat geienetan, aienatu zuan Jainko egiazkoaren ezaguera, eta Jainkoaren lekuan bera adoratu zuen jenderik geienak. Baña Jesu-Kristok garaitu zuan gurutzean, eta geratu zan Katean dagoan Zakurra bezala. Ari diteke zaunkaz onelako Zakurra, baña ez dio utsikirik egingo beraren ortzetara dijuanari baizik. Hau bera gertatzen da etsai izugarri onekin; egin dezake zaunka, edo bere losentxakin eta gogorazio txarrrakin eman dezake bekaturako bidea, baña ez dio iñori utsikirik egingo, bere naiez aren lazoe-tan nastutzen danari baizik. Ala ere animak engañatzeko baditu milla tranpa eta lazo, eta oetan ez erortzeko ernai bizi bear dezu. Zure inguruan dabil beti gau ta egun; zaitzen zaitu lagun artean, eta bakarrik zaudenean; jaiean eta

astean, jatean eta edatean, lotarakoan eta esnatean: ezagutzen du, zein dan zure saiets argalena, eta zein zure griña nagusia, edo zugaraiena agintzen duana, eta andik asiko zatzu gutxika, eta urrutitik lazora deitzen. Ernai bazau-de ezkutatu da, eta zabartua bazaude, eraso-ko dizu alde guzietatik. Hau da, nere anima, zuk garaitu bear dezun lenengo etsaia. Garaitzen da hau orazioz eta umiltasunez. Orazioz, Jaunari deitzen diozula estutasun guzietan, Aurak bere Amari deitzen dien eran. Umiltasunez, ezagutzen dezula, etzerala zerez gai etsai hau garaitzeko, eta zure uste guzia ipintzen dezula Jaunagan. *Jangoikoa gure alde bada, nor da gure kontra?* Ez degiozula deitu etsaiari askok egiten duan bezala: Sarritan ezan ezazu biotzetik *Jesus, Maria ta Jose*, batez ere estutzen bazaitu tentazioak, eta iges egingo du etsaiak.

AMAIKAGARREN ERAKUSALDIA

*Bekatutik aldegiteko gauza bearra
da animaren bigarren etsaia, edo
mundua garaitzea.*

Animaren bigarren etsaia da Mundua; baña Munduaren izenez ez dezu aditu bear Munduko etxe eder galant hau; zeren etxe hau da Jaunaren eskuetako obra miragarria, gizonaren bizi lekua. eta berak bear dituan gauzaz ederki ornitua dagoan Jauregia. Zer ote da bada *Mundua* deritzan bigarren etsaia? Munduko etxe onetan bizi diran gaiztoak, dio S. Agustiñek, dirala zarrak edo gazteak, ezkonduak edo ezkongaiak, gizonak edo emakumeak.

Gaiztoen talde hau da animai gerra egiten ari dan exerzitua, eta bere Agintari nagusia du Satanas. Hiru gisatara egiten du mundu gaiztoak gerra. Egiten du benik-bein bekatua eta bekatuan amiltzeko bideak erakutsiaz dala exemplo gaiztoz, dala losentxaz. Eta nork eztaki zenbat anima atxitzen dituan Munduak era onetan? Egi-

ten du gañera Munduak gerra onren, doaien eta ondasunen ustearen bixkarekin. Desleiala da bere hitzetan, eta geienean onraren lekuan ematen ditu desonrak, penak eta naigabeak; eta ondasunen ordeztu utzi oi ditu bere serbitzariak Kalean edo Ospitaletan. Ala ere ezin konta aladiña anima engañatzen ditu. Atzenean gerra egiten du munduak berarekikoa galtzeko beldurrez. Beldur hau zabaldua dago bazter guzietan, etxeetan, errietako batzarreetan, eta estatu guzietan, eta onekin edo harekin utsegin dedin beldurrezo egiten dira egia bear ez lirakean gauzak, edo egin gabe uzten dira egin bear lirakeanak.

Nere anima, aldegin nai dezu bekatutik? Utzi bada mundua, edo gaistoen taldea beti-betiko, Bataioan agindu zenduan bezala: *Munduaren adiskide izan nai duana egiten da Jainkoaren etsai*, dio Santiagok, Utzi betiko lagun gaistoak; eta zeregan erabaki ezazu ezergatik ez egitea bekatu dan gauzarik ez Munduaren ustean, ez Munduarekikoa galtzeko beldurrez.

AMABIGARREN ERAKUSALDIA

Bekatutik aldegitoko gauza bearra da animaren hirugarren etsaia, edo aragia garaitzea.

Animaren hirugarren etsaia da aragia. Aragiaren izenez emen aditzen da gaitzerako guban arkitzen dan gura eta makurtasuna, dala borondatean eta adimentuan, dala sentiduetan; baña nola sentiduen gura txarrak saloagoak eta nabarbenagoak diran guziaz ematen zate *aragiaren izena*. Gaitzerako gura txar oek gurekin jaiotzen, gurekin azitzen, eta gurekin biziko dira lurraren gañean gauden artean: eta dira gure etsairik andienak, zeren gerengandik ezin osotaro kendu ditzakegun.

Aragiak, edo gaitzerako gura txarrak gerra izugarria egiten dioe animari; asaldatzen due alabaña, batzuetan antuste edo soberbiaren aldetik; emendik dator bakoitzak bere burua laudatzeko, iñoren mendean ez egoteko, guraso ta Buru diranen aginduak ez egiteko gura; emendik

besteak baño geiago izan nai bat, dala onran, dala edertasunean edo janzian. Beste batzuetan asaldatzen du lurreko izanen, edo ondasunen egarriak; emendik ditugun gauzakin ez kontentatzea, bear adiña izan arren; degunari biotza itsastea, eta besterenari ere atzaparra egotzi nai izatea. Batzuetan ekiten dioe animari gorputzaren atsegin lizunen gogoetak; emendik ekusi bear ez lirakean gauzak ekusteko, eta debekaturik daudenak aditzeko, hitzegiteko, kontatzeko, ukitzeko naikundeak. Besteetan ekiten dioe bere etsaiaren kontra aspertzeko, apendutzeko edo benganza artzeko zaleak. Batzuetan estutzen du jateko ta edateko gogoak, ongi dan neurriaz kanpora; besteetan, illuntasunez eta tristuraz betetzen due lagun urkoaren onrak eta haren berri onak. Atzenean anima gaixoak igerritzen eta ezagutzen du beregan onerako atzerapen, eta nagitasun andi bat. Eta nork esan, gaitzerako gura oetatik beste zenbat jaiotzen diran sustrai gaiztoen alsuma edo muskillak bezala?

Ekusten dezu, nere anima, zer, eta nolakoa dan zure hirugarren etsaia? Ekusten dezu, zer bizilagunak dituzun zure etxapean bertan?

Garaitu bear ditutzu bada gaitzerako gura txar oek, baldin bekatutik aldegin nai badezu: *Jesu-Kristorenak diranak ukatu eta gurutzefikatu due aragia bere gura guziakin*, dio S. Pablok. Hau agindu zenduan Bataioko egunean, eta hau egizu, ukatuaz zure gura txarrai, berak eskatzen duena, eta zure sentiduak, begiak, belarriak, mingaña eta eskuak gordetzen dituzula gauza debekatuetatik. Eska zaiozu Jaunari umilki, eta sarritan bere grazia ta laguntza, zeren hau gabe gai etzeran lan onetarako.

AMAIRUGARREN ERAKUSALDIA

*Bekatutik aldegiteko gauza bearra
da gaitzeraro gura, griña, edo pasio
nagusia garaitzea.*

Gaitzerako gugan arkitzen diran gura, griña edo pasioak ez dira guziak berdiñak; izango da oen artean bat besteak baño geiago tontorra altxatzen duana, eta animari bekatuako gerra geiago ematen diona. Aur denboran griña bat izango da nagusi, gazte denboran beste bat, eta zartzean beste bat. Batzuen griña nagusia izango da antustea edo soberbia, arrotasuna, eta guzian agintari izan naia. Besteena izango da edanerakoa. Batzuen gorputzaren atsegin lotsagarrietarakoa, dala hitzez, dala eskuz, dala begiz, dala bestela. Besteena ondasuna ondasunari erantsitzekoa, naiz bide zuzenez, naiz bide okerrez; besteena lagun urkoaz nolana hitzegitekoea. Batzuen borrokan, iskanbillan ibiltzeko, besteena alferkeriarako. Griña eta pasio nagusi

oek ezitzen eta eskuratzen ezpadira, gaztetxoak diran bitartean, eta hau egin lekuan oitutzen badira, gura duenarekin irtetera, txit nekez eskurako dira. Ala ere, gauza negargarria! Gaitzerako gura eta griña guzien artean geiena barkatzen zaiona, izan oi da griña nagusia, zeren maiteena dan. Egiten du bekatariak griña nagusiarekin Saulek Amalezitakin egin zuana. Agindu zion Jaunak desegin eta urratu zitzala Amalezitak, barkatu gabe, ez andiai, ez txikiyai: ez eta ganaduai ere. Hil zituan Saulek Amalezitak, baña barkatu zion Erregeri, baita onen artalde ederrai ere, eta aserrerazo zion Jaunari. Hau bera egin oi du bekatariak bere griña txarrakin; garaituko eta hilduratuko ditu bear bada oetatik zenbait, baña griña guzien nagusi, eta Erregeari barkatzen dio. Ala gertatzen da geienean edanerako, hitz desonestoak esateko, lagun urkoaz nolanaiz miztoa erabiltzeko griña nagusia duenakin; ez due biotzik oni bizia kentzeko, eta herekin daramee obiraño.

Nere anima, nai dezu bekatuan ez erortzea? Begira bada, zein dan zure griña ta pasio nagusia, eta oni besteen Erregeari bezala bizia kendu

bear diozu. Ezi edo garaitu dezula, uste izan arren, ez zabartu, zeren S. Bernardok dionez, lepoa ebakita ere berriro agertu oi dan. Griña nagusia garaiturik ekin gjezu besteai ere bana-ka, eta beti asi zaite burua guziena altxatzen duanagandik. Onela aldegingo dezu bekatutik. *Nere ondoren etorri nai duanak uka beza bere burua, edo bere griña txarrak, esaten dizu Jesu-Kristok.*

AMALUGARREN ERAKUSALDIA

*Bekatutik aldegiteko gauza bearra
da berenez bekatu ez diran gauzen
gurak ere, dagoten neurri eta muga-
barrunbean loturik idukitzea.*

Gaitzerako gura eta griñaz gañera badira, nere anima, beste gura eta deseo batzuek, berenez bekatu ez diran gauzen gose eta egarri geiegi bat ekarri oi duenak. Eztakit oek, edo gaitzerako griñak bekatuako perill geiago dakarten Bekatura argiro zaramatzian gura eta naikuntza erraz ezagutzen dezu, eta ala nai izatera, garaitzeko neurriak artzen dituzu; baña, berez bekatu ez dan gauzaren gurari erraz barkatzen zaio: badijoa aziaz, eta mallaz malla eramango zaitu bekatu askotan erortzeko perill urkora. Asiko da zure gogo eta biotza gura hari itsasten; oarka-bean bezala osotoro itsatsia geratuko da; eta sasoi onetara iristen danean, perill urkoan zaude era eta tranzea datorrenean, Jaunaren Legea

ausitzeko. Begira ezperen egun oro gertatzen danari. Urkia onra-zalea da, eta onra nai izatea, bakoitzak bere mallan eta dagokan eran, ezta bekatu; ala ere askorentzat da bekatu askotan erortzeko perill urkoa gura hau, zeren oni itsatsia daukeen biotza; eta norbaitek ukitzen baditu alde onetatik, erori oi dira gorrotoaren eta erausi pisuen bekatuetan. Sandia da ondasunzalea; ondasunak nai izatea bide onez, eta bere mallan ongi igarotzeko, ez da bekatu. Ala ere griña onetan askok ipintzen due biotza, eta nastutzen dira ezin konta al adiña bekatutan. Berendia arkitzen da ezkontzeko asmoakin, eta onik agertzen bada; eta ezkondu nai izatea, Jainkoak eta Eliz Ama Santak nai duen bezala, ez da bekatu. Ala ere ainbesterañokoa da askoren ezkondu nai hau, non amilderazten dituan asko, bekatutan. Hau bera gertatzen da, apainduretan eta beste munduko gauzetan biotza ipintzen bada.

Nere anima: zure Jaun eta Jabea bat bakarra da; hau da zure Jaungoiroa. Berak egin zinduan ezerezetik, eta berak erosi zinduan, gizon egin, eta gurutzean bizitza emanik. Ez du nai beragen baizik zuk zure biotza ipintzea. *Amatuko dezu,*

dio, nire Jaun eta Jaungoikoa zure biotz guziaz; beraz ez dezu emengo onra, ondatun eta atsegin-kontentuetan ipiñi bear: eta hau gerta ez dakizun, zure gura eta deseoak eskura bear dituzu, edo lotu dagoten neurri eta muga barrunbean. Hitz batean, bekatu ez diran gauzaz beraz ere baliatu bear dezu, Jaungoikoa biotz osoz amatzeko laguntza diran bezanbat. Argatik dio S. Paulok: *Emazteak dituenak, bizi bitez, ezpali-tue bezala: negar egiten duenak egiten ezpalue bezala: atsegin-kontentuz bizi diranak, atsegiñik ezpalue bezala: erosturak egiten dituenak, erositako gauzen jabe ezpalira bezala.* Esan nai du, Jainkoaz osteronzeko gauzetan ez dala biotza ipiñi bear, eta oen gura eta desoak ukatu eta ezi bear dituzula. Hau ez egitera amilderazoko zaitue bekatu askotan.

AMABOSTGARREN ERAKUSALDIA

Bekatutik aldegiteko gauza bearra da tentazioak garaitzea: eta zer onetarako egin bear dan tentazioaren aurretik, tentazioaren denboran, eta ondoren.

Lurraren gañean zizi zeran artean, tentazioen bagak egingo dizue, nere anima. Hau da gure lenbiziko gurasoen bekatuak berekin dakarren ondoren negargarria. Argatik zion Job Santuak: *Gerra da gizonaren lurreko bizitza guzia*. Zoaz noranai; zoaz, naiz lagun artera, naiz bakardadera, eta toki guzietan arkituko zera tentazioen gerrarekin, dala etsai galgarriaren, dala munduaren aldetik; baña gerrarik andiena izango da zure gura eta griña txarrak emango dizuena. Eskritura Santan irakurzen da zenbait aldiz, Jainkoak tentatu duala nor bait; baña aditzen da, *progratu duala nekeren batekin onerako*. Ala egin zuan Tobiasekin, Abrahamekin, Job Santuarekin.

Etsai galgarria bakarrik da munduarekin eta aragiarekin gaitzerako tentatzallea. Argatik Jauna serbitzeko asmoa artzen duanak *presta beza bere anima tentazioa datorreneko*, eta pelea bedi garaitzeko. Eztago beste biderik bekatutik aldegitiko. Enzun ezazu orain, zer egin bear dezun tentazioaren aurretik, tentazioaren denboran, eta ondoren.

Tentazioaren aurretik egin bear dana

Lenbizia: Etzaitezela zere naiez sartu tentazioan, S. Gregoriok esaten digun bezala; bestela erraz igaroko zera bekatuaren perillera, eta emendik bekatuta, egun oro gertatzen dan bezala. Sarean sartzen bada bat, erraz geratuko da trabaturik, Eskritura Santan adirazten zakunez. Ez dizut esan nai, utzi ditzatzula zure eginbideak, pensamentu gaisto edo beste tentazioen bat etorri dedin beldurrez; baizik etzabiltzala tentazioen billa bezala.

Bigarrena: Kontuz begiratu bear dezu, zein dan zure animak duan saietsik argalena, edo zein aldetik geiena utsegiñ oi dezun, zeren andik gerrarik andiena etsaiak emango dizun. Alde

argal hau gordetzeko etsaiaren ekiñ-aldietatik, ipiñi bear diozkatzu sendogarri onak, dala Jaunari eta Birjiña txit Santari laguntza eskatuaz, dala Sakramentuak artuaz, eta asmo sendoak egiñaz tentazioari lekuri ez emateko. Gerrako denboran gaztelu bat gorde nai duanak, alde argalena-ri kontu egiñ oi dio arreta andienarekin.

Hirugarrena: Etsaia garaitu nai badezu, ez fiatu zeregan, baizik zure uste guzia ipintzu Jaunaren laguntzan: eta uste onekin zaude alai eta biotz andiarekin etsaiaren tentazioak garaitzeko. Era onetan prestatua dagoanagandik laster aldegiten du etsaiak. *Zeiñ argala dan gure etsaia!* dio S. Bernardok; *bada ez du iñor garaitzen, garaitua izan nai duana baizik.* S. Paulok biotz prestu batekin esaten zuan: Jaungoikoa gurealde bada, nor da gure kontra? Jauna, esaten zion Job Santuak: *jarri zaite nere alde, eta betor nornai nere kontra.*

Tentazioaren denboran egin bear dana

Aditu dezu, nere anima, zer egin bear dezun tentazioaren aurretik. Ezta asko hau, etsaia garaitzeko. Badira gerrarik ez dan denboran

gerrari trebeen eran hitzegiten duenak, baña datorrenean gerra eta peleatu bearra, biotzgabe, eta zer egiñ eztakiela geratzen diranak. Hau bera gerta ezta kizun zuri ere, sinistu ezazu, etsaia eta onek prestatzen dituan tentazioak garaitzeko, peleatu bear dala; orregatik ikasi bear dezu ongi peleatzeko modua. Adi ezazu orain modu hau, beste oberen bat ezpadakizu:

Lenbizia: Tentazioa datorrenean, etzaitezela asi musinka, edo buruarekin ibillera farragarriak egiñaz, zeren bestela, are geiago etsaiak estutuko zaituan.

Bigarrena: Ez dezu pelean sartu bear beldur geiegirekin, zeren onelako beldurrak berak ugaritzen dituan tentazioak. Ipintzu zure ustea Jaunagan; eta Jaunarekin batean peleatzeko, noren beldur izan bear dezu?

Hirugarrena: Igerritzen dezunean tentazioren bat datorkizula, dala garbitasunaren, dala lagun urkoaren kontra, zoaz lenbaitlen begira dagokizun Jaunagana, eta tentazioa oles egiten asitzen bada ere biotzaren ateetan, ez eranzun; onela aldegingo du etsaiak, lotsaturik bezala, zeren aterik idiki ez diozun. Hau da tentazioa garaitze-

ko biderik onena eta errazena. Ezpazaio lapurri utzitzen etxean sartzen, kalte gutxi egin dezake etxeko gauzetan.

Laugarrena: Askotan edo geienetan gertatzen dana da anima oartu baño len tentazioa ixilik pensamenturaño igotzea, eta gaitzerako mandatuak egiten asitzea. Oraindik ere erraz garaitu diteke, baldin bereala anima altxatzen bada Jaunaganonz, eta tentazioari eranzun gabe ekiten badie gogorazio onai. Mandatari batek laster aldegingo du etxe batetik, etxekoandreak edo nagusiak ezertan artzen ezpadio mandatua, eta erantzun ere gabe ekiten badie beste lanai.

Bostgarrena: Baña zabartzen da askotan anima, ongi oartu gabez; nola pensamentu edo gogorazio txarra datorkion. Asitzen da begiratzten, nolakoa, txuria edo beltza, polita edo itsutsia dan, eta emendik dator esnatzea etxapeko jende gaizki ezia edo gaitzerako gura eta griña txarrak. Eta anima orduan arkitzen da perill andian, kontuan erortzen danean armak artu, eta gogotik saiatzten ezpada etsaiaren kontra peleatzeko. Orduan lenengo arma da esatea: *Bizi bedi Jesus, hil bedi bekatua*. S. Migelek, Luzi-

ferren kontra peleatu zanean, otsegin zuan: *Nor Jainkoa bezalakorik?* Bigarren arma, deitzea biotz osoz Jaunari eta Birjiña txit Santari: *Jauna, gorde nazazu, galdua naiz bestela.* Ala deitu zion S. Pedrok Jesu-Kristori, itsasoan itotzeko perillean ekusirik bere burua. *Birjiña guziz Santa, zure sortze garbiaren izenean gorde nazazu bekatutik.*

Seigarrena: Beñ baño geiagotan gertatzen da, tentazioak ez aldegitea, deitu arren, esandan bezala, Jaunari eta Birjiña txit Santari; eta aldegin lekuan erasotzea animari, erazekitzen diola etxe guziari. Zer egingo du animak estutasun onetan, etsaiaren mendean, edo bekatuan ez erortzeko? Egin bear duana da, erri batean etsaia sartu ondoan, an zeuden gerrariak egin oi duena. Utzirik erria, igarotzen dira gaztelura: ekiten die etsaiak bonbakin, baña ezkututzen dira, onetarako berariaz egiñak dauden lurpeko etxeetan. Hau bera egin bear dezu zuk ere tentazioaten suak etxeari erazekitzen dionean: joan bear dezu pensamentuz edo gogoz eta biotzez leku egoki batera, eta egon zaite an ezkutatutik, tentazioak dirauen denbora guzian. Batzuek

pensamentuz jatxitzen zira infernura, eta ekusten ditue ango suak eta garrak, ango neke ta oñaze izugarriak; besteak gogora ekartzen ditue Jesusen neke oñazeak, eta era badue, belauniko jartzen dira Jesusen oñetan: an daude berari deiez, eta ez dira altxatzen tentazioa itzali dedin artean. Batzuek gogoz edo pensamentuz joaten dira Jesusen saietsera, eta sarturik barrena, egon oi dira an, Jesusi bere lagunza eskatzen; beste batzuek, laster egiten due, leku guziak betetzen dituan, eta beti begira dagokigun Jau-nagana: deitzen dioe umilki, datorkiela laster laguntzera, gorde ditzala etsaiagandik. Ona nere anima, nola peleatu zaitezkean tentazioak garaitzeko; baña onetarako ikasi bear da peleatzeko modua.

Tentazioaren ondoren egin bear dana

Lenbizian: Tentazioaren ondoren etzaitezela jarri berriro hari begiratzen, jakin naiez *zer izan dan, eta nola peleatu zeran, batez ere garbitasunaren* kontrako gauzetan. Lekurik biotzean eman ezpadiozu kontuan erori ezkeru, ez gero begiratu ere. Beiñ baño geiagotan gertatzen da

tentazioko denboran ongi irten zana, ondoren garaitua geratzea, zeren jarri zan tentazioari begira, Lot-en emaztea Sodomari begira jarri zan bezala. Atera zuan hau Jaunak Sodomako su eta garren artetik, eta agindu zion Aingeruak, etzezala Sodomaronz begiratu. Laster aztu zan Lot-en emaztea Aingeruaren esanaz, jarri zan Sodomari begira, eta geratu zan gatzarri biurtua eta hilla. Hau bera, edo onen anzeko gauza bat gertatzen zate bada zenbaiti animaren aldetik, zeren tentaziotik ongi irten ondoan jartzen diran igaro dana ekusten eta miratzen.

Bigarrena: Jaunari eskerrak ematea, zeren tentazioan erortzetik gorde zaituan. *Indartsuen armak desegin dira, Jauna, esan dezakezu Eskritura Santarekin, eta argalak indartsu egin dituzu. Zuri eskerrak, Jauna.*

Hirugarrena: Begira, zein birtuteren kontra izan dan tentazioa, eta birtute hari dagozkan pensamentu eta obra onak egitzu: egin dezagun kontu, soberbiaren aldetik egin badizu etsaiak, ezagutu ezazu zein gauza txarra eta ezereza zeran, eta egitzu gauzarik umillenak gogoz. Hau bera egin dezakezu beste birtuteetan.

Laugarrena: Begira, zure tentazio horiek zure aldetik ote duen kendu dezakezun sustrairen bat: eta hau ken ezazu, bestela zurekin izango dira tentazioak tentazioen gain.

Bostgarrena: etsaiak zenbait unetan pakea eman arren, ez fiatu; zai dago, eta zelatan dabill, noiz zu zabarturik arkituko zaituan, erasotzeko bere indar guziarekin. Argatik ernai egon bear dezu beraren kontra peleatzeko. Oitu zaitte sarritan, begira dagokizun Jaunagana biotza jasotzera; oitu zaitte Birjiña txit Santari eta Aingeru gardakoari deitzera, eta Sakramentuak maiz artzera. Onela tentazioetatik beretatik aterako dituzu frutu andiak.

AMASEIGARREN ERAKUSALDIA

Moden zorakerien gañean.

Aditzera eman dizkitzut zu engañatzeko etsaiak prestaturik dauzkan asko sare. Igaro gaitzen oraiñ soñekoen modetan ezkutaturik dauzkan bekaturako perillak ekustera.

Orain larogei ta bost urteraño leku gutxi izan zuen Españan soñekoen modak. Agertzen ziran noizean beiñ zenbait janziera arro eta itsusi, baña bereala debekatzen eta aienatzen ziran lege indartsuakin. Asi zan gero eguzki aldeko gure auzoa janziera berriak Erreñu onetan zabal-tzen, eta ainbesteraño Ililluratu eta txoratu gaitu, non gizonak biurtuaz dijoazen gizantx eta emakumeak añ ere, inguma; edo tximirrika, leku batzuetan beinzat. Aitortzen da, ondatu bearrak dirala etxeak, gisa onetan dijoazela gauzak, eta aleere egunetik egunera geituaz eta ugarituaz dijoa zorakeria hau. Beste toki batzuetan hau gertatuko baliz ez lizake izanko añ gauz arrigarrria; baña emen Euskaldunen errietan, non etxe

edo aziendak laburrak diran; emen, non kanpo-
tik ekartzen dan jantzirako bear degun guzia;
emen, diot, hau gertatzea, da ekusten ezpaliz
nekez sinistu litekean gauza. Eta gaitzerdi lizake
lurreko ondasunetan geratuko balira datozen
kalteak; baña igarotzen dira animakoetara ere;
zeren moden bixkarekin oarkabeen bezala
etsaiak daramazkian asko bekatuaren perilleta-
ra, eta eragiten diezte, nortaki zenbat utsegite.

Nola onenbesteraño itsutzen eta txoratzen
ditu etsaiak ainbeste anima? Ara nola, badakus
etsaiak, nola Kristauak eman zuan Bataioko egu-
nean hitza aldegiteko munduaren arrotasun eta
zorakerietatik; baña ala ere gazte dan bitartean
agertu nai duala bere burua ederki apaindua.
Erakusten diozka bada bere kideakoak modara
apaindurik dabiltzanak, eta esaten dio: *Zu etze-
ra horiek baño gutxiago. Zergatik etzera horiek
bezala janziko?* Zaletzen da gaztea jantziera
berri ta modakuakin ibiltzeko. Ona munduko
arrotasun eta zorakerietan irristatzeko gazteari
etsaiak prestatu oi dion lenengo malla. Badabill
gaztea ekusten dituan modai jarraituaz: gerotik
gerora geiago itsutzen da modetara, eta azke-

nean ez du ortik agertzen diran janziera berriak egin ditzan artean. Ainbesterañokoa da batzuetan itsumen hau, non gazte moda-zalea prest arkitzen dan janziera berriak egiteko, naiz zorrak zorren gaiñ egin ditezela, naiz ez; naiz etxeko pakea galdu dedilla, naiz ez. Sasoi onetara etorzen danean anima etsaiaren sarean atxitua edo bekatuan amildua arkitzen da. Atozea, eta zenbat izango dira gaurko egunean, onela bizi diranak?

Zuk, nere Çristaua, ez ipiñi zure gogo eta biotza modetan. Aldegizu lagun hero ta munduaren arrotasunen ondoren dabilzanetatik; eta iñoiz zere burua apaindu bear badezu, izan bedi hau modestia eta onestidade andiarekin.

AMAZAZPIGARREN ERAKUSALDIA

Janziera arroa ta geiegien gañean.

Moden zorakeriak ukitu ditugu azkeneko Erakusaldian. Hitz bi orain esan nai dizkitzut janziera arro ta geiegien gañean. Enzun kontuz.

Ezagutzeko, noiz eta nola izan ditekean janziera bat arroa ta geiegia, ez da asko soñekoaren gaiari begiratzea; gerta diteke alabaña Urliarenzat geiegia ez izatea duan kargu ta mallagatik, eta Sandiarenzat geiegia izatea. Hau ongi ezagutzeko bada, biderik errazena ta egokiena da begiratzea, zer mallan eta nolako erakin arkitzen dan apaintzen dana: zer adiñ duan, eta zer usanzak diran hura bizi dan tokian. Azkenean, zer denboraz ipintzen dan janziera. Begira benik-bein, zer mallan arkitzen dan apaintzen dana: baldin serbitzaria jantzitzen bada nagusia edo etxeakoandrea bezala; bere izerdiarekin bizi dana Zaldun edo Markes baten eran, janziera hau izango da arroa, geiegia, mallaz kanporakoa.

Begira urrena, nolako erak dituan apaintzen danak; zeren askotan gerta diteke Urlia ta Sandia mallaz berdiñak izatea, eta ala ere bata zorren azpian, bestea eraz bizitzea. Baldin zorrez beterik dagoana Ililluraturik badabill apainduren ondoren eraz bizi dana bezala, esaten duala antustez puzturik: *hori adiña banaiz*: onelako janziera izango da arroa ta geiegia, zeren Jaunak eman diozkan modu eta eraz kanpora igarotzen dan, bearbada bere ta beste askoren kaltean. Begira zaiozu gañera apaintzen danaren adiñari; zeren batzuetan gazteagan ongi dirudian janziera, zarragan izan diteke arroa, geiegia, farragarria. Illea urdin, ortzak koloka, ta aurpegia zimurturaz betea dauzkan andre bat, ekusiko bazendu emezortzi urteko neskatxa baten eran apaindua, zer esango zenduke? Begiratu ezazu gero zer usanza diran apaintzen danaren errian; zeren toki batzuetan geiegia ez dan apaindura bestetan izan liteke. Azkenean begira, zer denboraz ipintzen dan janziera; zeren egun batean, ongi dirudian soñekoa, izan diteke bestean arroa, geiegia, eta txit gaizki dirudiana; egin dezagun kontu, ezta batean ongi dirudian janziera, izan-

go da arroa illeta batean, eta konfesatzera zozazenean. Ona nola ezagutu dezakezun, noiz ta nola izango dan janziera bat arroa ta geiegia.

Janziera arro ta geiegia beti da bekatu, zeren, Bataioan agindu genduan, modestiaren mugetatik igarotzen dan. Batzuetan izan oi da bekatu beniala, eta askotan mortala, dakartzian ondoren gaistoak gaitik, edo apaintzen danaren sasoi eta asmo txarra gatik. Noiz gertatzen ote da gisa onetan janziera bat bekatu larri edo mortalera iristea? Ara noiz.

Janziera bat izan diteke aiñ arroa, geiegia eta mallaz goitikoa, non erraz eman dezakean errian exenplo gaistoa beste kalte askorekin batean, eta, nork eztakus orduan izango dala bekatu larria? Badakizu, urliaren ondasun guziak dirala etxeren batean serbitzea, edo gurasoak bere neke ta izerdiarekin irabasten duana, ta ala ere ekusten dezu, goimallako andreak eta damak baño ere geiago apaintzen dala. Zer esango dezu, onenbeste arrotasun dakutsunean? Eta zer ez da erausiko errian eta inguruetan? Bigarrena, janziera arro eta geiegia izango da bekatu larria, emendik badator etxeko pakearen galtzea,

zorrai ez erantzutea, umeak gaizki azitzea, denbora egokian estaturik ez ematea. Hirugarrena, janziera arro ta kostu andikoak errietara dakartzianak egiten du bekatu larria, S. Bernardino Senakoarekin zenbait gizon adituk erakusten digunez, zeren bide andia ematen duan beste asko tentazio onetan erortzeko eta zorrak zorren gaiñ egiteko. Eta non dira etxeetako erriertak, aurpeki illun eta mukerrak? Laugarrena, janziera arro ta geiegia izango da bekatu mortala, ipintzen bada exenplo guziz gaistoa edo eskandaloa emango duan denboran edo tokian; egin dezagun kontu; badijoa bat ostiral Santu egunean Elizara edo beste egunen batean konfesatzera soñeko arroakin, eta goibeak ongi estali gabe, nork estakus eskandalo andia emango lukeala orduan onelako janzierak? Doña Sancha Carrillo janziera arroakin joan zitzaion beiñ konfesatzera Juan de Avila animen Maisu andiari: esan zion onek: *Infernu usaia dakar, berorrek*. Esan onek arpoi baten eran ukitu zuan dama bere biotzean biurtu zan etxera, eta gero izan zan modestiaren eta onestidadearen ispillua. Bostgarrena: janziera arro ta geiegia izango da bekatu mortala, one-

lako apainduretan ipintzen bada biotza, alako eran, non oek, ez uzteagatik prest arkitzen dan zorrai ez erantzuteko, etxeaz, umeaz, gurasoaz kezkarik eta konturik ez idukitzeko. Azkenean janziara arro ta geiegia izangu da bekatu mortala, ipintzen bada norbaiti bekatu bixka presatzeko asmoarekin.

Ekusten dezu, noiz ta nola bekatu larri edo mortalera iritsi ditezkean janziara arro ta geiegia? Eta ala ere zeñ ardura gutxirekin oen ondoren dabilta gaurko egunean Kristauak! Zuaz ezperen erri andietara; ainbesteraño zabaldu da oetan zorakeria hau, non igerriko ez dezun, nor diran bemallakoak, nor bitartekoak eta nor goiagokoak: badirudi, bazter guzietan aditzen dala ots bat, diona: *emen guziak gera berdiñak*. Zoaz erri txikietara, eta oetan ere arkituko dituzu janziara arro ta geiegien kutsu piskak, eta igerriko dezu, askok dioela, obraz bederik: *Guk ere nai genduke*. Arkituko dituzu ez gutxi gaur egindako soñekoak bigar salduko dituenak eta bigarkoak etzi, zeren Urliak edo Sandiak agertu duan janziara berriren bat. Arkituko dituzu beste batzuek janziara arrotz eta kostu andikoak errietara

dakaztenak: emendik etxeetan zabaltzea ezin irozo ditezkean apaindurak, eta ezin esan litezkean adiña kalte. Arkituko dituzu asko janziera berrietara añ itsutuak, non prest arkitzen diran edozeñ gauzatarako, oek egiteagatik.

Nere Euskalduna, aldegizu janziera arro ta geiegietatik. Zure modestia izan bedi ezagutua, esaten digu S. Paulok.

EMEZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

*Onestidadearen kontra etsaiak
asmatzen dituan janzieren gañean.*

Ez da etsaia kontentatzen janziera arro ta geiegiak zabaltzearekin munduan; baizik egun oro asmatzen ditu, onestidadeari gerra emateko egokiak diran, asko janziera lotsagarri. Jaunari eskerrak, ez da gure errietara oraindano zabaldu izurri hau, baña erraz zabaldu liteke jende gaztea kontuan mugonez ipintzen ezpada. Eta ona zergatik orain hitzegin nai dizudan onestidadearen kontrako janziera lotsagarrien gañean. Asi gaitzen bertatik.

Onestidadea, orain ukitzen degun gaiari dagokan eran hitzegiten degula, da birtute txit eder bat, aienatzen dituana kastidadearen kontrako modu itsusi guziak, dala hitzegitean, begiratzean, ibilleran, dala gorputza apaintzean: Birtute bat, gure hitz eta obrari ematen diena apaindura ta edertasun bat norinai agradatzen zaiona.

Birtute onek eskatzen du lenengo lekuan estal-tzea bakoitzak bere gorputza, gauza itsusietara-ko biderik ez emateko, ez bere buruari, ez besteri. Etzan onelako bearrik, Adanek Paradisuko arbolaren fruta debekatua jan zuan artean, zeren zuzentasun edo justizia orijinalaren doaiez apaindua zegoan. Autsi zuan Adanek Jaunaren agintea, eta bereala oartu zan, nola arkitzen zan soñekorik gabe, eta orobat gertatu zitzaion Ebari ere: lotsatu, eta lenbaitlen estali ziran. Geroztik Adanen umeai eskatzen die onestidadeak, estal-tzea gorputza ongi, eta egia hau ezagutu izan due jende guziak, ez errietan bizi diranak baka-rrik, baita basatiak ere. Ala ere etsaiak asmatu izan ditu modu guziz itsusiak gai onetan. Izan ziran noiz bait Baco Jainko gezurrezkoa adonatu zuenak. Onen onran egiñ oi zituen iñuterian festak; baña zer festak? guziz zikiñ eta lotsagarriak. Izan dira herejeen artean ere Bacoren festen anzeko ibillerak egiten zituenak. Eta zer? ez ote dira kristau Katolikoek artean ere ekusten, ones-tidadeak debekatzen dituan modu lasaiak? Ez dira ekusten zenbait lekutan mutillak igeri, nork-nai ekusi ditzakean tokietan? emakumeak goba-

da edo lixiba jotzen, gorputzak ongi estali gabe, eta bearbada lotsa gutxirekin iñoren aurrean erantzitzen dirala? Ez dira añ lotsagarriak; baña lasaiegiak bai, arako soroetan atorra edo alkan-dora utsean larrean aritzen diran emakume ta gizatzar aek. Egia da beterriko tokietan onelako oiturarik ez dala.

Onestidadeak eskatzen du bigarren lekuan, gizona gizonaren, eta emakumea emakumearen janzian ibiltzea. Ala agintzen zuan Jaunak Lege zarrean. Gerta diteke premia esturen batean, edo etsaietatik igesegiteagatik, gizonak emakumearen, eta emakumeak gizonaren soñekoak ipintzea, eta hau ez da bekatu, Santo Tomasek erakusten digun bezala. Ala egiñ izan due zenbait donzella birtutetsuk bekaturako perilletik igesegiteko: oen artean Teodora Antiokiarrak, eta beste Korintoko batek. Baña gaizki dirudian gauza da premiarik gabe hau egitea, ta aintzako-tzak iduki da fedegabeen artean ere. Ala ere sarritan ekusten omen dira gaurko egunean bideetan emakumeak gizonen eran janziak: eta edozeñek dakus, zeñ ondoren txarrak ekarri

litzakean ergelkeria onek, gure errietan zabalduko baliz.

Onestidadeak eskatzen du hirugarren lekuan, emakumezkoak erabiltzea beak era onean estaliak. Hau da gauza bat edozeñek ezagutzen duana; baña ala ere noizean bein etsaiak agertzen ditu janziera batzuek txit egokiak emakume ergelak, ibilli ditezen beetako apaindurak eta aztala erakutsiaz. Zenbait lekutan asi omen dira emakumeak galtza luzeak gonapean erabiltzen. Ez da hau gauza guziz arrigarria; baña bai tela ederrezko abarkak ipintzea, aztala agertzea, trabakin bezala zankoak lotutzea, Elizan ere ezin belauniko jarri dirala. Hau guzia ta geiago ekusi omen da denbora oetan zenbait erritan.

Onestidadeak eskatzen du laugarren lekuan, kolkoa ta bularrak ongi estaliak erabiltzea. Hau da euskaldunen artean beti ongi gorde dan oitura ederra. Ala ere ekusiaz, zenbait emakume arrotzek sorbaldaren erdia, ta besoak agirian darabiltzela, ta kolko gisa erakusten duela salgai, itsasten da zenbait lasaikeria, eta askok aditzera ematen due, era baliz gisa onetan ibiltzeko, ez lirakeala azkenekoetatik izango. Esangi-

dazu ezperen, ez dira gure errietan ere batzuek, goiak ongi estali gabe dabiltzanak? besteak zatarrezko bulto andiak ipintzen dituenak? besteak gorontza estu eta laburrakin bularrak alegiñean larritzen; anditzen, eta estaliak, baña zinzi-
lika erakusten dituenak? Zer aditzera ematen due onelakoak? Zer, era izatera, geiago ere egingo lukeela baizik? Zuk, nere euskalduna, etsaiak engañatu etzaitzan alde onetatik, gogoan arrezazu orain esatera noana. Lenbizia: kolkoa ta bularrak estali gabe ta inguruetan apaingarriakin erabiltzea, da gaitzerako gura erraz esnatu dezakean gauza bat, eta beragatik gizon jakintsu askoren iritzian bekatu larria. Bigarrena: onelako lasaikeria itsusiaren oitura edo usanza, ez dan errietan hau sartzea, guzien iritzian da bekatu larria edo mortala. Hirugarrena: oitura, nazkagarri hau debekatu zuan Inozenzio izen onetako Aita Santu amaikagarrenak, eta exkomiku nagusiaren azpian agindu zuan, emakumeak kolkoa ta bularrak leporaño estali zitzeela estalki tapitu batekin. Españako legeak ez daude biguñagoak gai onetan; bada emakume gaisto bekatuaren sariarekin bizi diranai bakarrik uzten dieza bula-

rra agirian duela ibilizeko janziera, bear bada nor diran ezagutuak izan ditezten. Gañera onelako janziera edo ebakitzen edo josten, edo jostea agintzen duanaren kontra ipintzen due berrogei milla marabidiren eta urte biko erbestearen pena: hau lenengo aldian; eta urrengoan lau urteko gaztelua.

Onestidadeak eskatzen du bostgarren lekuan emakumeak Elizara joatea, ez gorputz utsean indi-olloak bezala, baizik era onean estaliak, batez ere usanza on hau dan lekuetan, Españan dan bezala. S. Paulok nai du, emakumeak Elizan egotea estaliak, eta hau, gaitzerako biderik eman ez dedin, Klemente Alexandriakoak dienez; eta ala egiten due euskaldunak. Orregatik izango lizake exenplo txit itsusia, gure errietako emakumeak joango balira meza nagusi, bezperata dotrinak edo sermoiak enzutera ederki apainduak, eta gorputz utsean. Onela joan bide zan norbait erri batean orain denbora gutxi danean; baña mezemalleak kenerazo zuan Elizatik. Ez dezazula esan, zenbait lekutan emakumeak gorputz utsean egoten dirala Elizan; zeren ez dira emengo usanza onak trukatu bear beste Erre-

ñuetako usanza txarragatik. Emen, eta lekurik geienetan ez da gaizki dirudian gauza, emakumeak aurpegia agirian erabiltzea; baña Arabian izango litzake eskandalo andia; an alabaña estaltzen ditue burua ta aurpegia kapurutxarekin: onek begien parean du zurdazko sare bat, ta emendik ekusten du emakumeak nondik ibilli ditekean, eta norekin hitzegitea duan. Emen eta Europa guzian emakumeak irteten dira etxetik, eta badabiltza, batzuetan beintzat, dagozten egitekoetan, eta etzaio iñori gogoratzen, usanza gaistoa dala hau; baña Txinan izango lizake gauz itsusia zeren an emakumeen usanza dan beti etxean egotea, eta hau galdu ez dedin, jaiotzen diranetik alako eran lotzen eta estutzen diezteza oñak, non geratzen diran oñik ezpalue bezala, edo beintzat ezin erraz oñez ibilli ditezkean eran. Emendik atera ezazu, gure Elizetan emakumeak apaindurik gorputz utsean egotea izango litza-keala gauza txit itsusia, beste zenbait erreñutan ala egoten badira ere. Baña zer asmatu du etsai madarikatuak emengo oitura ederra galerazteko? asi da modaren izenarekin zabaltzen mantel-ña farragarri batzuek, egokiak gorpuz guzia agi-

rian erabiltzeko; batzuek alabaña doi doia iristen dira lepoa estalzerano, besteak dira añ lasai, eta sareak non gorputz guzia ekusten dan manteliñarik ezpaliz bezala. Onelakoak atera bear lirake Elizetatik.

Onestidadeak eskatzen du atzenean, janziera ez ipintzea, urliagan edo sandiagan gaitzerako gura erazekitzeko asmo lizunarekin. Ez det uste, Kristau aziera onekoetatik asko izango dirala asmo añ lotsagarriarekin apaintzen diranak, baña ez dira noski gutxi, zenbait bekatu egiteaz eta eragiteaz kezkarik ez duenak: eta onelakoak nekez izango due asmo garbia heren janzieretan. Eta nolakoanai izan dedilla oen asmoa, baldin janziera bada bekatuako bide andia ematen duana, ez da geiagoren bearrik apaindura onelakua bekatu izateko.

Ona, nere Kristaua, zer janzierak asmatu dituan etsaiak Onestidadearen kontra. Eta hau ezagaturik, ez dituzu utziko zorakeria oek betibetiko? Etzaitezela engañatu munduaren iduripen eta losentxakin, baizik jarrai giozu Onestidadearen Birtute ederrari.

EMERETZIGARREN ERAKUSALDIA

*Apaindura geiegi ta lotsagarriak
janzitzeko asmatzen diran aitzakiak.
Desegiten dira oek, eta agertzen da,
nola bekaturik gabe, eta munduak
erakusten dizun baño ederkiago
apaindu zaitezkean.*

Azkeneko bi Erakusaldietan hitzegin dizut janziera geiegi; ta lotsagarrien gañean. Aditu bear dituzu orain, janziera oek ez uzteko asmatzen diran aitzakiak. Ukituko ditut aurrena aitzakia oetatik politenak, eta agertuko det, itxura eta iduripen utsa baizik ez dirala. Erakutsiko dizut gero, nola bekaturik gabe eta munduak erakusten dizun baño ederkiago apaindu zaitezkean. Enzun kontuz.

Egin due ta egiten due asko alegiña Aita Santuak, Obispo Jaunak ta gañeraro animen Arzaiak aienatzeko Kristauen errietatik apaindura geiegi ta lotsagarriak. Ala ere oek beren oñean daude,

edo obeto esateko ugarituaz dijoaz egunetik egunera, Zertan ote dago hau? Etsaiak, gazteak engañatzeko, erakusten dituan aitzakietan. Aitzaki oek aditu bear dituzu modazaleen autik, eta adituaz goazen eran desegingo ditut. Onetarako goazen modazaleak alik ongiena apaindurik arkitzen diran etxe edo tokiren batera. Ozta eku-siko gaitue, asiko dira beren janziaren alde hitzegiten, zeren, aurreko Erakusaldiak aditurik, min-duak dauden. Batak esango du: *Jauna, eztakit zer gogoak eman dion, gure janziaren kontra añ samiñ, añ gogor eta garratz hitzegin duanean.* Gu apaintzen gera usatzen dan eran: *eta nai du berorrek, guk geren buruak ez apaintzea besteak bezala?* Urليا, zaude asaldatu gabe eta soseguz. Hitzegin det nik zerbait janziaren gañean, baña ez samiñ eta garratz, baizik Jesu-Kristoren Lege garbian bizi dan edozeñek ontzat eman bear duan eran. Hitzegin det janziara arro eta geiegien kontra, zeren zuk ongi ezagutu dezakezun bezala, oetatik dator ainbeste etxe galduak egotea, ainbeste gazte dagoten aziera ta estadua artu gabe geratzea, eta zorrak Zerutaraño deadar egitea. Hitzegin det gañera, ones-

tidadeari gerra egiteko etsaiak asmatzen dituan janzieren kontra, baña ez, gai onek eskatzen duan bezeiñ garratz. Onelako janzieren ondoren bazabiltza, ez dezu zere burua garbituko, *ala usatzen da* esanarekin. Atozea, ez da usatzen munduan lagun urkoari txarkeri ta bidegabeak egitea? Ez da usatzen munduan lagun urkoari bekaturako bixka ipintzea? Eta azkenean ez da usatzen munduan betiko su ta garren artera joatea? Beraz aitzakia txit argala, eta Kristauaren auan gaizki dirudiana, da esatea, *gu apaintzen gera usatzen dan eran*. Hau esan dezakezu bidez, eta ongi modestia ta onestidadearekin janzitzen diranai jarraitzen badiezu, baña ez bestela.

Bigarren aitzakia: *Jauna, dio beste batek: ni ezkondua naiz, eta apaintzen naiz senarrari atsegin egiteagatik*. Senarrari atsegin egiteagatik? Ongi egiten dezu, modestia ta onestidadearen mugetatik irten gabe apaintzen bazera. Ala dio Santo Tomasek. Senarrari agradatzeagatik apaintzen zera? Eta zure senarra añ ona ote da, non agradatzen zaion zu batetik bestera ibiltzea neskatz ergel baten eran, eta añ ere bat egiña?

Senarrari agradatzeagatik apaintzen zera? Eta nolakoa ibilli oi zera etxean? Bearbada guziz txaldana eta enasa, alako eran, non ezin gizonak gustoz begira degikezun. Bazoaz gero kanpora, ta orduan agertzen zera arrotasun andiarekin eta modestiaren kutsurik gabe apaindua? Zer uste dezu, esango duela ezesten zaituenak? Gutxienez S. Franzisko Salesek diona, hau da: *Noren begiai atsegin eman nai ote die urlia onek onenbeste apaindurarekin?*

Hirugarren aitzakia: *Jauna*, dio beste urliak: *apaintzen naiz ni alik ederkiena, baña ez lagun urkoari bekaturako bidea eman naiez*. Izan bedi ordu onean egia zuk diozuna; baña ez da hori asko zuk bekaturik ez egiteko. Atozea, baldin zure janziera geiegia bada, eta emendik badator, ezin irozo ditzakezun zorrak egitea, lenekoai ez eranzutea, etxeko pakea galtzea, eta askori exemplo gaistoa ematea, nork eztakus zure apaindurak izango dirala bekatu Jaunaren begietan, asmo gaistorik ez dezula zuk esan arren? Gañera, baldin zure janziera bada bekaturako bide andia askorentzat. Zer esan nai du zuk one-lako asmorik ez izateak? Zuk zugan danez gai-

tzerako lazoa prestatzen dezu, eta ez da hau Jesu-Kristoren Lege garbiak debekatzen dizun janziera? Kristaua, ez dezazula arren orrelako zorakeriakin zere anima betiko galdu. Enzun ezazu Atenasko erri andian gertatu zan gauza bat: Phrine Atenasko dama akusatu zuen Areopago zeritzan tribunalaren aurrean, gaistakeria itsusiren bat gertatu zitzaiolako. Tribunal hau zan anziñako denboretan izan ziran guzien artean zuzenena, eta gutxienean bazituan ogei ta amaika Juez. Sententzia eman bear zan egunean joan zan dama Tribunalaren aurrera: hitze-gin zan onen gaistakeriaren kontra; eta bere alde zuan Letradutzat gizon jakintsu bat. Egin zuan onek asko alegiña ateratzeko Phrine eriotzaren pena gabe; baña Juezak etziran erraz biguntzen edo beratzen ziranak, eta, eriotzaren pena damari bota nai zioela, zirudian. Orduan joan zan Letradua Frine zegoan tokira, kenerazio estalkia, eta ipiñi zuan orain zenbait lekutan damak dabilzan eran, edo bular guzia agiri zuala. Ekusi zuen Juezak, eta gauz arritzekoa! Len aiñ zuzena zan tribunal hura, biguindu zan, eta Juezaek etzuen biotzik izan eman bear zuen

Sententzia emateko. Begira orain, Kristaua, zer kalteak etorri ditezkean janziera lotsagarrietatik, nolakoanai izan dedilla ipintzen dituanaren asmoa. Zergaitik bait onelako apainduari deitzen die San Jeronimok: *gura gaizto eta loien berogarririk*: eta San Ambrosiok emakume apainduari deitzen dio: *Demonio guzien etxea*. Eta Espiritu Santuak berak zer esaten digu? Ken, dio: ken zure begiak emakume apainduagandik.

Laugarren aitzakia: *Jauna, ez det nik, erlijioko ordenetan bezala, paret artean bizitzeko gogorrik, edo hitz batean guzia esateko, ez det Monja izateko ametsik egin: nik nai nuke...* Asko da, aditzen det orrenbesterekin zeren billa zabiltzan. Atozea, ta uste dezu, janziera arro ta geiegiak, ta janziera onestidadeari gerra egiten dioenak, laguntzen duela zuk billatzen dezuna arkitzeko? Engañatzen zera, eta eztakizu zurekin hitzegin oi duen ezkutarien gogoko berri. Nik esango dizut oek gogoan darabiltena, baña ixilik, eta iñork aditzen ez gaituala: ezkutari oetako bat jartzen da hitzegiten, janziera geiegietan gogoa ipiñi duan batekin, eta dio beregan *Urlia hau*, dio, itxura onekoa ta egokia da denbora piska batean

umore onean egoteko; baña betiko? Nik dedana gutxi da onen janzia eta modak irozotzeko. Ezkutari bera jartzen da beste batekin hizketan; ekusten du burua mozturik, goi guziak agirian dauz-kala: zer uste dezu, diola beregan? Sandia onek, eztakit, zer burua daukan: Emakumearen apain-dura da ille ederra, eta hau burua mozturik jarri da, zeren ille gabeko atsoren batzuek moda hau agertu duen. Aita Santuak, Obispo jaunak, eta gañerako animen arzaiak deadar egiten due kol-koa agerturik dabiltzan emakumeen kontra. Españako Legeak uzten dieza gisa onetan ibil-tzen; baña nori? Emakume gaisto, bekatuaren sariarekin bizi diranai bakarrik: ta onek ez dio ezeri begiratzan, modari baizik. Ezin bere aurpe-gira esango zaio, baña mingaiñ gaistoak daraus-te ezti pixka batekin igortzi bear lizakeala. Ta hau nik artu betiko? Ez, ez. Orra zer kontuak ate-ratzen dituen zurekin askotan hitzegin duen ezkutariak. Orra nola, bear bada modestia ta onestidadearekin iritsiko lirakean erak galtzen diran janziera geiegi ta lotsagarriakin. Ala gerta-tu zate askori, eta ez dira zentzatu heren buruak zimurturik ekusi dituen rtean.

Bostgarren aitzakia: *Jauna*, dio berendiak: *gu apaintzen gera ongi idurin naiez; eta ala ere ez due guziak billatzen duena arkitzen*. Ongi irudin nai izatea ez da bekatu gazte ezkongaietan, ez eta onetarako beren buruak modestia ta onestidadearekin apaintzea ere. Ala dio S. Franzisko Salesek. Baña, ongi irudin uste dezu, agertzen diran janziera nazkagarriai jarraitzen diezula? Ongi irudin uste dezu ez dagokizun eran apaintzen zerala? Engañatzen zera, eta jakizu askoren farragarri izan oi zerala zure janzierak gatik. Nik esango dizut, nola bekatu gabe, eta munduak erakusten dizun baño ederkiago apaindu zaitezkean.

Jesu-Kristoren Luege ederrak ez dizu debekatzeko apaintzea zere burua Jaunaren beldur Santuazekin, modestia ta onestidadearekin. Jaunaren beldur Santuak aienatzen du bekatua; modestiak kentzen ditu janzieren arrotasunak; eta onestidadeak ematen dio janzieri grazia edo edertasun andia. Onela zuk zere burua apaintzean, jantzi zaite zure estatu ta mallari dagoen eran. Ala esaten dizu Santo Tomasekin San Franzisko Salesek. Ez asi besteak agertzen

dituen janziera guziak egin naiez; zeren bestela erraz igaroko zera geiegira, eta mallaz kanpora. Etzabiltzala beste errietan darabiltzkien kostu andiko soñekoak zu bizi zeran tokira erakartzen, ta ez esan, badezula zerekin, asko izango dira alabaña zure errian, janziera orrelakoetarako era gutxirekin arkitzen diranak, eta zure janziera modakoak nolerebait beartuko lituke beste orrenbeste egitera. Izan zaite janzian garbia, txukuna; ez artoa, San Franzisko Salesek esaten dizun bezala. Ezta ongi gizona emakumearen, eta emakumea gizonen eran apaintzea, ta are gutxiago gizonaren janzian ibiltzea; debekatu zuan hau Jaunak Lege zarrean, eta an esaten da *nazkagarria dala Jaunaren aurrean onela janzitzen dana*. Zoaz Elizara Jaunaren etxeari dagoan garbitasun eta modestiaregin. Gizon batzuek dira aiñ zakarrak, baldanak, enasak, non Meza enzutera joan oi diran belaunetan galtzak estu gabe, ta txuparen edo almillaren besoak zinzilika dituela. Emakumeak ez due joan bear Elizara gorputz utsean, bidez dijoazenean, eta ezin bestean baizik. Etzaitzela oitu mantelina- ren lekuan tela sareak ipintzera, batez ere Eliza-

ra, Konfesatzera edo Komunio Santura zoazenean. Aita Santu Inozentio, eta Klemente amai-kagarrenak agindu zuen, ez dakiela Konfesatzeko ta Komulgatzeko lekuri eman modestia gabe, bular eta sorbaldak estali gabe dijoazenai. Agintzen eredue, izan bear duala estalkiak, ez lasai edo sarea; baizik tapitua.

Orra, nere Kristaua, nola apaindu zaitezkean bekatu gabe, eta munduak erakusten dizun baño ederkiago. Zerez ederra bazera are ederrago emango dezu; eta ezpazera, modestia ta onestidadeak edertuko zaitue; oek dira janzierarik ederrena, eta denbora berean gaitzerako biderik ematen ez duana; janziera hau da bide zuzena emengo erak ez galzeko eta iristeko betiko bizitza doatsua. Hau opa det zurekin neretzat. Amen.

OGEIGARREN ERAKUSALDIA

Janzian edo soñekoetan modestia ta onestidadea gordetzeko hiru pensamentu egoki.

Janzieren gañean aditu dezunarekin, uste det, artu dezula asmo osoa modestia ta onestidadearekin baizik ez apaintzeko zere burua. Asmo onetan zu sendoago egiteko, hiru pensamentu begien aurrean ipiñi nai dizkitzut. Enzun kontuz.

Lenengo pensamentua izan bedi zure janziera nolakoa nai; izan bedi asma ditekean ederrena; zer adierazten ote dizu ipintzen dezun bakoitzean? Adirazen dizu lenengo lekuan, galdu zenduala Adanegan, edo bera bekatuan erori zanean Jaunaren grazia, eta Zerurako esku guzia: galdu zenduala *zuzentasun edo Justizia orijinalaren* doai miragarria; ta hau galdurik, zure gura ta griña guziak geratu zirala galtzeronz guziz makurtuak, eta zeran guzia era lotsagarrian: emendik zere burua alik ongiena estali

bearra. Adirazten dizu urrena, zu zerala bere Jaun, Jaungoiko ta Egillearen kontra altxa zan jatorri desleial ta eskergabea, eta eriotzako sententzia zere kontra daramazuna. Hau guzia eza-gutzeko, ekartzu gogora gure lenbiziko gurasoai gertatua. Egin zituan Jaunak Adan eta Eba Zerurako, eta apaindu zituan bere graziaz eta doaiez. Doai oen artean bat zan *Zuzentasun edo justizia orijinala* deritzana: doai bat Adanen eta Ebaren gura ta griña guziak zeuzkana ezaguera zuzenaren eta borondatearen azpian eta borondatea Jaunaren naiaren mendean. Adanen eta Ebaren gura edo griñak orduan etziran batere asaldatzen, lotsagabetzen eta altxatzen etxeko nagusiaren, edo borondatearen kontra, ta beti zeuden prest, morroi leial batzuek bezala, borondateak agintzen ziena egiteko. Adan eta Eba sasoi eta pakea gozo onetan bizi ziran Jaunaren agintea autsi zuen artean. Soñekorik gabe zeuden, eta ala ere etziran lotsatzen, ezeta oartzen ere, nola zeuden, zeren justizia orijinalarekin apainduak arkitzen ziran. Gañera, doai onek gordeko zituan Adan eta Eba, berak nor izatera, eriotzatik: eta emengo denbora betetzean, joango ziran

Zerura bizirik. Hau bera gertatuko zan ondorengoakin ere. Baña autsi zuen Adanek eta Ebak Jaunaren agintea, jaten zuela Paradisuko arbola baten fruta, eta galdu zuen Jaunaren grazia eta Zerurako eskubide guzia, ez berentzat bakarrik, baita guretzat ere: galdu zuen Zuzentasun edo justizia orijinalaren doaia; eta une artatik bertatik asi ziran Adanen eta Ebaren gura ta griñak asaldatzen, bakoitza bere bidez, presa bat urratzen danean urak beren bidean abiatzen diran bezala, eta geroztik ez due pakearik ematen. Oartu ziran Adan eta Eba, nola arkitzen ziran soñekorik gabe: lotsatu, ta lenbaitlen estali ziran al zuen eran. Gañera geratu ziran eriotzaren azpian, edo hill bearrak. Argatik dio S. Paulok: *bekatuaren saria dala eriotza*. Beraz, Kristaua, zuk zere burua apaintzeko, ipintzen dezun janzierak adirazten dizu, galdu zenduala Adanegan jaunaren grazia, eta Zerurako esku guzia, ta geratu ziñala era lotsagarrian, edo zere burua estali bearrean. Beraz zure soñeko bakoitzak begien aurrean ipintzen dizu, zu zerela jaunaren edo Errege guzien Erregeren kontra altxa zan jatorrikoa, eta eriotzako sententzia beti zerekin

daramazuna. Ongi, ta hau onela izanik, janziera arro ta lotsagarrien billa ibilliko zera? onestidadea gordetzeko bakarrik munduan agertu ziran soñekoak, eta zuk onestidadearen kontra biurtuko dituzu?

Bigarren pensamemua: nolako janzierarekin apaindu ziran Adan eta Eba, Mundu guziaren jabeak baziran ere? Adan zan mundu guziko Jaun eta jabea; Eba zan beraren emaztea, eta biak ziran mundu guzian izan diran eta izango diran Errege guzien sustraia. Ala ere, nolako janzierarekin apaindu ote ziran? Eskritura Santak, Adan eta Ebarekin gertatua aditzera ematen digun, bi janzieraren berriak ematen dizkigu: janziera bata izan zan berak egiña. Badakizu nolakoa? piko edo beste arbolaren baten ostoz eta adarrez moldatu zuena. Bigarren janziera izan zan Jainkoak berak eman ziena, eta hau larruzkoa. Atozea orain: zer aditzera ematen digu Jau-nak, Adani eta Ebari eman ziezten soñekoakin? zer janzian gorde bear degun modestia ta onestidadea baizik?

Hirugarren pensamentua: zer hitz eman zinduan bataioko egunean? Egun andi artan etzin-

duan Eliz Ama Santak artu nai izan bere umeen artean, Zeruaren, Aingeru ta gizonen aurrean, orain esango ditudan hitzak eman gabe. *Urlia*, esan zizun bataiatzalleak Elizaren izenean: *gaurdanik betiko uzten dituzu Satanas* eta beraren langilleak, zeñak diran mundu galdua, edo munduan bizi diran gaistoak, eta aragiaren gura txarrak? *Bai; uzten ditut betiko*, eranzun zenduan. *Abrenuntio*. Galdetu zizun berriz: *Gaurdanik betiko uzten dituzu Satanasen lan eta obra guziak, nola diran bekatua eta bekaturako bideak?* *Bai*, eranzun zenduan; *uzten ditut beti betiko*. *Abrenuntio*. Galdetu zizun hirugarren aldian: *Gaurdanik betiko uzten dituzu Satanasen arrotasun eta zorakeriak, dala janzian, janean, edanean, dala gastuetan eta jolasetan?* *Bai*, eranzun zenduan, *uzten ditut beti betiko*. *Abrenuntio*. Ona zuk bataioko egunean eman zenduan hitzak. Zer geiago bear da bada, zuk, osotoro ta sendoro erabaki dezun bezala, modestia ta onestidadea-ri jarraitzeko janzian? Ala esaten dizu S. Paulok, ala agindu zenduan Kristautu ziñanean, eta ala uste det egingo ere dezula.

OGEI TA BAT GARREN ERAKUSALDIA

Betiko bizitza doatsua iristeko ez da asko bekatutik aldegitea; gauza bearra da gañera bakoitzak bere estadu eta bizimoduan obra onak, edo Zerurako irabaziak egitea.

Betiko bizitza doatsua iristeko lenengo lekuan bear dan gauza da: bekatutik aldegitea. *Aldegizu gaitzetik*, esaten digu Dabidek, eta onen gañean izan dira aurreko Erakusaldiak. Baña ez da asko gaitzik ez egitea, ezpaditu obra onak egiten bakoitzak bere bizimodu eta estaduan. Argatik ez da kontentatzen Dabid esatearekin: *Aldegizu bekatutik edo gaitzetik*, baizik ondoren dio, *Egizu ongia* edo obra onak. Hau aditzera eman zigun Jesu-Kristok, piko alferra madarikatu, eta igarturik utzi zuanean. Hau bera adirazi zigun Eliz Ama Santak, argi erazekia eskuetan ipiñi zigunean bataioko egunean. Beraz zu, Kristaua, ni eta guziok beartuak gaude

obra onak egitera, bakoitza bere estadueta bizi-moduan, baldin betiko bizitza iritsi nai badegu.

Zer aditzea ote da obra onen izenez? Ez gauz andi ta miragarriak egitea, hillak piztutzea, eriak sendatzea, mendiak batetik bestera aldatzea, baizik edozein obra on, dala andia, dala txikia, ongi egiña bada. Zer doai edo kondizio bear ote ditu obra batek ona eta ongi egiña izateko? Lau doai. Lenengoa, *sobrenaturala* edo Zerutikakoa izatea. Zerutikakoa, zeren Espiritu Santuaren grazia ta lagunza gabe ezin Jesus bat ere bear bezala esan dezakegun, San Paulok dion bezala. Zerutikakoa gañera, zeren egin bear dan, ez lurreko fiñen bategatik, baizik fedeak erakusten duan motiboren bategatik. Bigarrena, egiten dan gauza berez ez ona, ez gaistoa; bada, nola dan: *jatea, edatea, lo egitea, paseatzea, hitzegitea*, Zerurako irabazia izateko, egin bear da Jaunari agradatuko zaion eran eta denboran. Hirugarren doaia da, obra ona egiten duana Jaunaren grazian egotea. Mats adarrak ezin eman dezake fruturik zepari ez dauskiola; eta era berean ezin zuk ere eman dezakezu obra onen, edo Zerurako irabazien fruturik, Jaunaren grazian ezpazaude,

zeren Jesu-Kristo Zeruko zeparekin bat egiña etzauden. Ala ere bekatariak ez ditu utzi bear obra onak, zeren bekatutik irteteko laguntzen duen.

Laugarren doai edo kondizioa da obra ona egitea Jaunaren onra eta gloriarako. Era onetan, eta doai oekin egindako obra guziak, andiak eta txikiak añ ederrak eta balio andikoak dira Jaunaren begietan, non bakoitzarekin irabazten dan Zeruko Erreñua, eta betiko bizitza doatsua. Nekazariak, arotzak, argiñak, ardatzleak, okiñak, hitz batean bakoitzak bere bizi moduan egiten dituan lanetan irabazi dezake Zeruko Erreñua. Zeiñ ona gure Jangoikoa! Bada betiko bizitza irabazteko bide añ erraza prestatu digu!

Nere anima, zer animako ondasunak eta obra onen gordairuak etzinduan gaur idukiku, aditu dezun eran zere neke eta lanak egia bazindu? Baña nola arkitzen ote zera? Lotsa zaite Jaunaren aurrean zure nagitasunaz, eta aurrera bizi zaite obra onak, ongi, eta arreta andiarekin egiten dituzula.

OGEI TA BIGARREN ERAKUSALDIA

*Obra on edo Zerurako irabaziak
eskatzen duan asmo edo intenzio
garbiaren gañean.*

Zu nor izatera, ugari egin ditzakezu, nere anima, zure estadu ta bizi moduan bertan obra on, eta Zerurako irabaziak, ekusi dezun bezala. Baña ez da asko onetarako obra onak egitea nolana, baizik egin bear dira asmo edo intenzio garbiarekin. *Zure begia*, hau da, zure *asmo* edo intenzioa *okerra bada*, zure *lanak*, zure *neke* eta *obrak okerrak*, *illunak* eta *Zerurako irabazirik ez dekartenak izango dira*, Jesu-Kristok berak aditzera eman zigunez. Asmo edo intenzio garbia da gure lan eta Obrak egitea Jaunaren onra eta gloriarako, azkeneko Erakusaldian esan dan bezala. Hau erakusten digu S. Paulok, dionean: *Egiten dezuen guzia, dala hitzez, dala obraz, egizue gure Jaun Jesu-Kristoren izenean: Naiz jan; naiz edan, naiz beste gauzaren bat egin deza-*

zuela, egizue guzia Jainkoaren onra ta gloriarako.

Asmo edo intenzio garbi onekin gure lan eta obrak egiteko, bear dira bi gauza. Lenengoa da, Jaunari eskeintzea bere onra eta gloriarako, eta eskeintzea guziak. Atotea ezperen, norena zera? *Etzerate zerenak*, esaten digu S. Paulok, baizik Jesu-Kristorenak. Jesu-Kristorenak, zeren ezerezetik egin duan. Jesu-Kristorenak, zeren bere odol preziotsuaren kostuz erosi ginduan. Norentzat bada izan bear due gure hitzak, gure pentsamentu eta obrak, Jesu-Kristorentzak baizik? Nori eskeñi bear diozkagu, Jabeari baizik? Norena dan arbola, arentzat izan bear due frutuak. Atozea gañera, etzaude beartua amatzera zure Jaun eta Jaungoikoa zure biotz guziaz, zure indar eta alegin guziaz? Eta nola era onetan amatuko dezu; ezpadiozkatzu eskeintzen bere onra ta gloriarako zure hitz, pentsamentu eta obra guziak? Argatik oitu zaite, nere antma, goizetik Jaunari eskeintzera zure biotza, zure lan eta neke guziak.

Gure lan eta obrak Zerurako irabaziak izateko, ez da asko goizetik Jaunaren onra eta gloria-rako eskeintzea, bear da gañera asmo eder, onek eragitea guri obra onak. Argatik goizean eskeñi arren Jaunari egun guziko hitz, pentsamentu eta lanak, baldin gero egiten baditugu beste asmo lurrezkoren bategatik; egin dezagun kontu, Munduaren alabanzak iristeko: galduko degu Zerurako irabazia, eta gure obra onak izango dira ustelak, edo azal-prinz ederra bai, baña mamirik ez duenak. Eta ona zergatik beiñ baño geiagotan gertatzen dan, zenbaitek obra on askorekin Zerurako irabazi gutxi egitea, zeren goizetik artu zan asmo edo intenzio garbia erraz aldatzen, eta lur biurtzen dan, ernai bizi ezpada bat. Esan diteke gure asmo edo intenzioa batzuetan dala goizean urrea, geroxeago zillarra, eta azkenean lur utsa. Hau gerta ez dedin, eguardean berritu, bear da noizean beiñ goizeko asmo ona. Ez da onetarako neke andiren bearrik; asko da Jainkoaganonz biotza jasotzea, eta esatea naiz hitzez, naiz gogoz: *Jauna goizeko asmoan bertan arkitzen naiz zure izenean eta onran*

izan bitez nere lan guziak, eta orain egitera noan hau ere bai.

Nere anima, zein gauza negargarria zuri gertatu zatzuna! Nekatu zera asteetan, illetan eta urteetan obra onak egiten, eta ala ere arkitzen zera Zerurako irabazi gutxirekin, zeren zure asmo edo intenzioa erraz aldatzen zan Munduaganon. Zentza zaite bada, eta emendik aurrera egitzu gauza guziak asmo garbiarekin, eta Jau-naren onra eta gloriarako.

OGEI TA IRUGARREN ERAKUSALDIA

*Zeiñ frutu ederrak, eta santutasun
zeiñ miragarria dakartzian bakoitzak
bere bizimoduko lanak asmo, eta
intenzio garbiarekin egiteak.
Kontatzen da Florenziako penitente
andi bati suertatua.*

Aditu dezu, nere anima, zer asmo edo intenzio eskatzen duan obra onak, eta Zerurako irabaziak, eta nola hau egin eta berri-
tu dezakezun erraz. Ezta hau egiaz neke andia, ezeta jakiunde andiren bat eskatzen duana ere. Edozeiñ nekazarik eta lankillek, arreta eta ardura pixka bat artzearekin, egin dezakean gauza da, irakurtzen jakin ez arren. Eta nork esan, zeñ frutu ederrak, eta santutasun zeñ miragarria iritsi dezakezun zere bizimodu ta estaduan? Hau nol-ere bait eza-gutu dezazun, enzun itzatzu, asmo edo intenzio garbiak dakartzian frutu ederretatik batzuek. Lenengoa da: etsai galgarriari goizetik biotzeko

ateak itxitzea. Ernai dabill hau, zure biotzaren jabe geratzeko esnatzen zeranean. Zaitzen zaitu lotan zaudenean, eta ozta igerritzen dizu esnatzera zoazela, egiten du alegiña zure biotzera sartzeko, eta onetarako bidalduko dizkitzu zure arazo edo egitekoen kezkek, eta zenbait aldiz gogorazio itsusiak. Eta zenbait bider lenagotik prestatzen ditu ames loiak? Baña oitutzen bazera goizetik edo esnatzen zeranetik Jaunari zure biotza, pensamentu eta lan guziak eskeintzera, itxitzen diozkatzu ateak etsaiari, eta aldegiten du. Bigarren frutua da biotza zabaltzea betiko bizitzaren ustearekin. Asmo garbiarekin bere obrak egiten dituan animak badakus serbitzen duala Errege guzien Erregea, jaun bat guziz altsua, eta eziñ geiagoraño bere hitzetan leiala; Badakus, jaun onek bere adiskide ta serbitzariak agintzen diela betiko bizitza, eta onen usteak zabaltzen dio biotza, arintzen diozka neke guziak, eta gozaten emengo gurutze ta samintasunak. Hirugarren frutua da animako pakea gozo bat. Jainkoa da pakea egiazkoaren iturburu; eta nola asmo edo intenzio garbiarekin bere lan guzietan diardunak Jaun pakeatsu oni begira-

tzen dion guzian, geratzen da soseguz, eta pakea ederrean, naiz emengo gauzak ongi eta gustora, naiz oker irten ditezela. Laugarren frutua da egiten diran lan andi eta txikiakin eta ezer ez dirudien gauzakin ere betiko bizitza eta Zeruko Erreñua irabaztea. Añ miragarria da asmo edo intenzio garbiaren indarra, non lanik eta obrarik txikiena ere altxatzen duan Zeruko Erreñuaren irabazi izateraño. Egizu kontu, zure etxean arkitu dezula aitzur bat indar aiñ arrigarria duana, non ukitzen dituan gauza guziak, eta lurreko sokorrak berak ere urre eta zillar biurtzen dituan. Atozea, aitzur hau utzirik zokoan, ariko ziñake besteren batekin? Ezetz esango didazu. Aitzur onen anzekoa dezu bada asmo edo intenzio garbia. Onek ukitzen duan guzia biurtzen du batzuetan zillar, besteetan urre, besteetan diamante edo biurtzen du Zeruko Erreñua balio duan irabazi. Bostgarren frutua da, egiten dan lan eta neke bakoitzarekin animako grazia eta santutasuna ugaritzea edo geitutzea. Nork esan, eta nork ezagutu ere norañoeko grazia eta santutasuna bildu dezakean bakoitzak bere estadu eta bizi moduan, baldin asmo edo intenzio garbiarekin

Jarraitzen badie bere lanai? Hau ederki adirazten digu Florenzian penitente andi bati gertatu zitzaionak. Bizi zan hau Florenziako eremu batean orazio, barau eta penitencia asko egiten zituala. Gogora zitzaion beiñ, Munduan zan animarik birtutetsuena edo santuena zala. Aditu zuan Jaunaren ots bat, esaten ziona, jatxi zedilla Florenziara; billa zezala Pedro zurradorea, eta onen birtute eta santutasuna andiagoak ziraa. Jatxi zan bada gure Eremitarra Florenziara; topatu zuan noiz bait Pedroren etxea, eta bien artean igaro zan, orain esango dedan hizketa.

G: Atozea, Pedro, zer barau ateratzen dituzu? Galdetu zion Eremitarrak.

E: Barau gutxi; edo batere ez, eranzun zion Pedrok.

G: Zer zilizio darabiltzu gorputzean? Galdetu zion Eremitarrak.

E: Batere ez, eranzun zion Pedrok.

G: Egunean zenbat ordu orazioan igarotzen dituzu? Galdetu zion berriz.

E: Batere ez, eranzun zion Pedrok.

G: Zer egiten dezu bada? Galdetu zion azkenean.

E: Orduan esan zion Pedrok: Nik egiten dedana da hau. Goizean jaikita bereala jartzen naiz belauniko: Ematen diozkat Jaunari biotz osoz eskerrak, zeren argitu dan eguna bera serbitzeko eman didan. Gero eskeintzen diozkat nere bizitza, eta egun guziko hitz, pensamentu eta obrak, guziakin eta bakoitzarekin berari agradatu naiez. Hau egiñ ondoan ekiten diot lanari. Hau da nik ekiten dedan guzia.

Eremutarrak, aditurik Pedrok ziona, ezagutu zuan bere pentsamentuaren zorakeria, eta Pedroren birtute eta santutasunaren anditasuna. Ikasi ezazu bada zuk ere, nere anima, zure lan eta obrak asmo garbiarekin ekiten, eta zuk aterako dituzu emendik frutu asko, oen artean birtute eta santutasun andi bat.

OGEI TA LAUGARREN ERAKUSALDIA

*Obra on eta Zerurako irabaziak egin
nai baditugu, prest egon bear degu
Jaunaren borondatea egiteko, eta
borondate onekin gurea bat egin
bear degu.*

Egin ginduan Jaunak emen beraren borondate Santua egiteko, eta gero betikotasun guzian berarekin batean Zeruan doatsu izareko. Jainkoaren Semea bera Zerutik jatxi zan, berak esaten digun bezala, Jaunaren borondatea egiten guri erakusteko. eta erakutsi zigun txit ederki, ala hitzez, nola obraz. *Aita*, esaten zion Jetsemaniko baratzan: *Aita, al baditeke igaro bedi nik edan gabe pasioko neke oñazeen Kaliz hau; baña egin bedi zuk nai dezuna, eta nai dezun eran.* Ona nola prest zegoan Jesus bere Aitaren naia egiteko. Etzan prest egotearekin kontentatu, baizik beraren borondatea egiteagatik igaro zituan pasioko neke-oñazeak, eta eman zuan guru-

tzean bizitza. Hau bera egin bear du bada obra on, edo Zerurako irabaziak egin nai dituanak: prest egon bear du beñik-beiñ Jaunaren borondatea egiteko, eta borondate hau agertzen dioe amar Aginte edo Mandamentuak, Eliz Ama Santaren bostak eta bakoitzak bere estadian dituan egin-bideak. Agertzen dioe gañera Jaunaren borondatea gurasoen, eta buru diranen aginduak eta, berez edo bestez gure onerako Jaunak prestatzen dituan neke, gurutze eta samintasunak. Emendik atera ezazu, nere anima, ez dezula obra on eta Zerurako irabazirik batere egingo, prest ezpazaude Jaunaren borondatea egiteko, gauza larri edo pisuetan bederik, zeren sasoi gaisto onetan zauden bitartean Jaunaren grazian etzauden. Atera ezazu bigarrena, obra onak edo Zerurako irabaziak ugari egin nai badituzu, Jaunaren borondatea egin bear dezula, gauz andietan ezezik txikietan ere, ez bekatu larria dalako gauza txikietan utsegitea, baizik zeren onela ezaguera ta borondate osoz sarritan utsegiteak galerazten dituan asko obra on, eta amilderazo oi duan gutxika bekatu larrian. Atera ezazu azkenean, prest bizi bear dezula Jaunaren boronda-

tea egiteko, emengo neke, gurutze eta samintasunak ekiten dizuenean ere.

Era onetan prest egoteaz gañera, obra on edo Zerurako irabaziak egiñ nai dituanak, ekin bear die lan onai Jaunaren naia egiteagatik, edo berbera dana, bere borondatea bat egin bear du Jaunaren naiarekin. Emendik dator askoren lan, neke eta obra onak iduri utsak izatea, eta esan oi dan bezala *itxura bai, ta kemenik ez*. Zergatik ote? Zeren egiten ez dituan Jaunaren borondateari begiraturik, baizik beren griña edo jenioa serbitzeagatik, edo Munduaren begietan argi emateagatik.

Nere anima, zaude prest gauza guzietan Jaunaren borondatea egiteko; eta borondate hau izan bedi zure giiari. Zure lan eta obretan zure borondatea uni ezazu, edo bat egin Jaunarenarekin, dala gurasoen aginduak egitean dala beste gauzetan. Hau erakutsi zigun Jesu-Kristok. Hau bera egizu Jaunagandik edo lagun urkoetatik datozkitzun neke eta naigabeetan esan giozu sarritan Jaunari: *Egin bedi, Jauna, zuk nai dezuna, eta zuk nai dezun eran. Indazu zure lagunza, neke hau zure izenean igarotzeko.*

OGEI TA BOSTGARREN ERAKUSALDIA

*Obra onen edo Zerurako irabazien
gordairu ugari-aberatsak daude
emengo neke, eta gurutzeak
pazienziak, eta Jaunaren izenean
eramatean. Ukitzen da birtute hau,
eta ipintzen dira bera iristeko
zenbait pensamentu.*

Azkeneko Erakusaldian ekusi dezun, nola prest egon bear dezun Jaunaren borondatea gauza guzietan egiteko. Ekusi dezun gañera, era berean prest egon bear dezula emengo neke eta gurutzeak Pazienziak eramateko. Oraiñ begiratu bear dezun, nola neke ta gurutzeak era onetan eramatean dauden obra onen, eta Zerurako irabazien gordairu ugari eta aberatsak.

Ozta agertzen da gizona lurraren gañean, inguratzen due alde guzietatik nekeak, penak eta gurutzeak, eta jarraitzen dioe beti, noranai dijoala. Neke eta gurutzeak arkitzen ditu etxean,

kanpoan, bakardadean eta lagun artean: neke eta gurutzeak etsaietatik, adiskideetatik, aideetatik eta arrotzetatik: eta azkenean erortzen da eriotzaren atzaparretan. *Gerra utsa da*, zion Job Santuak, *gizonaren lurrero bizitza*. Hau guziaz dator gure lenbiziko gurasoen bekatutik. Baña aïñ miragarria, eta ona da Jauna gauza guzietan, non neke eta pena oetan beretan prestatu dituan guretzat ondasun txit andiak edo obra on, eta Zerurako irabazien gordairu ugari-aberatsak. Nola ote? Eramaten dirala pazienziaz, eta Jaunaren izenean. Arma hau gabe galdua zera, nere anima, emengo nekeen, ekaitzen eta bagen artean; onekin, aingura batekin bezala, gorde dezakezu zure animaren onzia, eta gorde ez nolana, baizik ugaritzen dituzula animako grazia eta Satuntasuna, eta Zerurako irabaziak. Argatik esaten digu San Paulok: gauza bearra dala guretzat pazientzia, Jaunak agindurik dauzkan ondasunak iristeko. Pazientzia da birtute bat laguntzen diona animari neke, naigabe eta gurutzeak eramaten ongi, eta Jaunaren izenean, eta ditu hiru malla. Lenengoa da, alegiñean iges egin nai izatea neke ta gurutzeetatik; baña ala ere dato-

zenean, irozotzea gorrotoari edo beste bekaturi lekurik eman gabe, zeren ala agintzen duan Jaunak. Hau da pazienziaren beeneko malla. Bigarren malla da, neke eta gurutzeen igesi ibilli gabe, datozenean borondate prest batekin artzea; zeren hau dan Jaunaren borondatea. Hirugarren malla da, atsegiñ eta kontentuearekin artzea eta igarotzea guratze, neke eta bidegabeak, zeren hau dan Jaunaren gogoko gauza, edo Jaunari agradatzen zaiona. Ala poz andia artu zuen Apostoluak, S. Lukasek dionez, Juduen batzarreak azotatu zituanean Jesu-Kristogatik. S. Paulok bere neke andien artean zion: *gañez egi-ten dit pozak*. S. Andres, ekusirik beretzat presaturik zegoan gurutzea, asi zan oska esaten: *O gurutze santa! aspaldi deseatua, ansiaz amatua ta billatua: ar nazazu gizonen artetik, eta eraman nazazu nere Maisuagana*. Ekusten dezu zer dan pazienza? Ekusten dituzu birtute onen mallak? Nork esan, norañoko irabaziak egingo dituzun Zerurako bidean, arma onez baliatzen bazera, egun oro etorriko zaizkitzun neke eta gurutzeetan? Entzun itzatzu orain, birtute hau iristen lagunduko dizuen zenbait pensamentu.

Lenengo pensamentua: edo ongi edo gaizki neke, naigabe eta gurutzeak igaro bearra zera lurraren gañean bizi zeran artean. Gaizki igarotzen badituzu, ugaritzen dira nekeak, galtzen dezu bear bada bekaturen batekin zere burua eta betiko bizitza. Zergatik bada pazienziara etzera saiatuko?

Bigarren pensamentua: ongi badaramazkitzu emengo nekeak, begira dagokizun Aita Zerukoak emango dizkitzu bere lagunza eta grazia ugarriak, eta oekin arinduko eta gozatuko dira: eta egingo dituzu Zerurako irabazi andiak. Esan gidazu bada, nekea arindu badezakezu, ez nolainai, baizik irabazi andiakin, zergatik ugaritu nai dezu zere nekea eta barrengo samintasuna?

Hirugarrena: Nondiknai datozela zure neke eta gurutzeak, beti egia izango da, zure Jaun eta Aita onak zure onerako bidaltzen dizkizula. Gaizki egingo du bear bada zu naigabetzen zaituan lagun urkoak, baña Jaunak utzitzen dio gaitz hori egiten, zuk zure ezereza ezagutu dezazun, eta leialkiago Jaun bera serbi dezazun. Eta zure onagatik Jaunak bidaitzen dizun nekea, ez dezu ontzat artu bear?

Laugarren pensarnentua: Jaunaren adiskide guziak; Birjiña txit Santa eta Jesu-Kristo bera neke eta gurutzeen bidetik igaro dira. Eta zuk ez diezu jarraituko onelako giariai?

Nere anima, arrezazu asmo osoa gaurdanik ontzat artzeko datozkitzun neke, naigabe eta gurutzeak, Jaunaren naia eta borondatea egiteagatik. Etzaitzela oitu neke eta estutasunen bat etortzean, etsaiari otsegitera, birauak botatzera, eta lagun urkoaren kontra edozein gauza esatera, baizik eskeñi giozu Jaunari guzia beraren ize-nean: esan zaiozu: Egin bedi, egin bedi zure borondatea nola Zeruan ala lurrean.

OGEI TA SEIGARREN ERAKUSALDIA

*Birtute eta santutasun andira
igotzeko bidea da neke eta
gurutzeetan, eta gauza guzietan
Jaunaren borandateari begiratuta
Jaunak nai duana bera nai izatea.
Hau erarusten digu Erromako
Teologo andi bati gertatuak.*

Obra on eta Zerurako irabazien mamia beza-
la da Jaunaren borondatea egitea, eta Jaun berak
nai duana guk ere nai izatea, batez ere nekeak
eta gurutzeak datozkigunean. Emendik, zenbat
eta obeto gure borondatea bat egiña dagoan
Jaunaren naiarekin, anbat geiago azitzen, eta
ugaritzen da birtute eta santutasuna. Han ongi
erakusten dizu, Juan Taulero zeritzan Erromako
Teologo andiari gertatuak. Gizon andi eta birtu-
tetsu hau zortzi urtez egon zan Jaunari eskatzen,
ager zegiola berari agradatzeko bidea. Aditu
zuan beñ Jaunaren ots bat esaten ziona: Zoaz S.

Pedroren Elizara, eta an arkituko dezu, zuk nai dezuna erakutsiko dizun gizon bat. Joan zan Eliz artara: arkitu zuan ateetan eskale bat oñetatik elbarritua, eta soñeko zar batekin erdi estalia. Asi zan Teologoa eskale onekin hitzegiten, eta ara bien artean igaroa.

TEOLOGOAK: Jainkoak dizula egun on, adiskidea, esan zion Teologoak.

ESKALEAK: Ez det gogoan, egun gaistorik oraindano izan dedala: Erantzun zion Eskaleak.

TEOLOGOAK: Jainkoak egiñ zaitzala zori oneko.

ESKALEAK: Esker milla, Jauna, zure borondate onagatik, baña egundano ez det jakin, zer dan zori gaistoa eta doakabetasuna.

TEOLOGOAK: Adiskidea, Jainkoak dizula deseo dezun guzia.

ESKALEAK: Jauna, ez det esparik izateko ez gairik, ez biderik, zeren gauza guziak datozkidan nere gogoaren eta borondatearen neurrian.

TEOLOGOAK: Adiskidea, zu zauden bezala egon, eta nola izan zaitezke diozun bezeiñ doatsu? Hitzegin gidazu arren garbiago edo argiroago.

ESKALEAK: Atsegin andin egingo det, Jauna, zuk diozun hori. Zuk eman dizkidatzu *egun onak*. Nik erantzun dizut, *ez dedala gogoan egun gais-torik oraindño izan dedala*; zeren otz edo bero, euri edo ateri, argi edo illun egin dezala, alaba-tzen det nere Jaungoikoa, eta egun guziak dira neretzat berdiñak, beti da alabaña bat oen ema-ilea. Esan didazu urrena: *Jainkoak egiñ nazala zori oneko*. Nik eranzun dizut, *egundaño ez dedala jakin, zer dan zori gaistoa eta doakabeta-suna*; zeren naiz gose izan, naiz egarri, naiz oña-zeakin eta gaitzen azpian egon, naiz limosnarik ez degideela eman naiz bai, ezagutzen det, guzia datorkidala Jaunagandik: eta nola nik nai ez dedan, Jaunak nai duana baizik, dala hau gozoa, dala samiña, arkitzen naiz soseguz, eta nere biotza dago atsegin-kontentuz betea. Ona, zergatik egundaño jakin ez dedan zer dan zori gaistoa.

TEOLOGOAK: Nere adiskidea, onak dira esan dituzun gauz horiek, baña esan gidazu: zer egingo zenduke, botako bazindu Jaunak infernura?

ESKALEAK: Jakizu, baditudala bi beso txit sen-doak eta indartsuak: bata da nere ezerezaren

ezaguera eta umiltasuna, eta onekin adoratuko nuke Jaunaren borondatea, eta berari eutsiko nioke. Beste besoa da Jaunaren amorioa. Amaitzen det nere alegiñ guziaz, eta gauza guzien gañetik, eta amorio onekin eutsiko nioke beti, eta toki guzietan. Onela, edo biok geratuko giñake infernutik kanpora, edo biok jatxiko giñake ara: eta Jainkoarekin amorioz bat egiña egotea, infernuan bertan ere, izango litzake doatasun andiagoa, Jainkoaren amorio gabe Zeruan bizitzea baño.

Arriturik geratu zan Teologoa eskalearen eranzute miragarriarekin, eta sinistu zuan, huraxe zala billatzen zuan gizona. Ala ere Jaunari ongiena agradatzeko, bidea obeto ezagutu naiez, egin ziozkan beste galde batzuek era onetan.

TEOLOGOAK: Nondik etorri zera, adiskidea toki onetara?

ESKALEAK: Jainkoagandik.

TEOLOGOAK: Non arkitu dezue Jainkoa?

ESKALEAK: Munduko gauzak maitatzea utzi nuan tokian.

TEOLOGOAK: Eta nora zoaz?

ESKALEAK: Jaungoikoagana.

TEOLOGOAK: Non bizi da Jaungoikoa?

ESKALEAK: Borondate ona eta biotz garbia duen gizonetan: hau da Jainkoak nai duen bizilekua.

TEOLOGOAK: Eta nor zera zu, adiskidea?

ESKALEAK: Jauna, ni naiz Errege.

TEOLOGOAK: Zu Errege? Non da zure Erreñua?

ESKALEAK: Emengo nere Erreñua dago nere animan: nere gorputza, nere griña eta sentiduak daude ezaguera zuzenaren eta borondatearen mendean: eta ezaguera eta borondatea daukat Jaunak nai duenerako prest. Orra, nola naizan egiaz errege, eta non dan nere erreñua; ez da, ez, Munduko Erreñu guzien artean bat ere nere bezeiñ pakeatsurik.

TEOLOGOAK: Nork edo zerk altxa zaitu, adiskidea, birtutearen malla aiñ goi orretaraño?

ESKALEAK: Gizonakin gutxitan, eta Jainkoarekin sarritan hitzegiteak, beraren nai edo borondatearekin nere bat egiten dedala. Onela arkitu det Jaungoikoa, eta, lurrean gizonak iritsi dezakean doatatun eta zori on guzia.

Ekusten dezu, nola eskale bategandik ikasi zuan Teologo batek Jainkoari ongiena agradatze-ko bidea? Ekusten dezu, birtute eta santutasun andi batera igo zaitezkean, baldin zure neke eta gurutzeen artean zure nai eta borondatea Jauna-renarekin bat egiten badezu. Saia zaite bada emendik aurrera onetara.

OGEI TA ZAZPI GARREN ERAKUSALDIA

Jaunaren aurrean edo begietan jartze, eta ibiltzearen gañean. Adirazten da, zer dan ibillera hau, eta zein bide ederra dan, ala bekatutik aldegitoko, nola obra onak ongi egiteko.

Zabiltza nere aurrean, eta zu izango zera bir-tutetzua eta santua, esan zion Jaunak Abrahami. Hitz oetan Jaunak adirazten dizu, nere anima, Jaun beraren aurrean edo begietan jartzea, eta ibiltzea dala bide txit ederra, ala bekatutik aldegitoko, nola obra onak ongi egiteko. Jaunaren aurrean eta begietan jartzea eta ibiltzea, ez da nolana beraren aurrean egotea eta ibiltzea; Jauna alabaña toki guzietan dago, eta argiro ekusten gaitu gu, naiz gauaz, naiz egunaz, eta era berean ekusten ditu gure hitz, pensamentu eta obra guziak, ala andiak, nola txikiak, ala onak, nola gaistoak. Ala ere geienean ez gaude,

ez gabilitza gu Jaunaren aurrean, zeren erraz aztutzen geran Jaungoikoaz, eta bera utzirik igarotzen geran Munduko gauzetara. Zer ote da bada Jaunaren aurrean eta begietan jartzea eta ibiltzea? Bi gauzetara biurzen da hau. Bata da fedearen argiarekin gogora ekartzea eta sinistea, leku guzietan, eta gu gauden tokian bertan arkitzen dala Jaungoikoa, eta argiro ekusten dituala gauza guziak, igaroak, igarotzen, eta igaroko diranak: *Andia da Jaunaren izatea, eta ez du buraerarik*, dio Baruk Profetak. *Zeruaren erpiña baño goragoraa da: infernuaren ondoa baño ondoragokoa da: igartzen ditu lurraren bazter eta muga guziak, eta itsasoa baño zabalagoa da*, dio Job Santuak. *Izate guziz andi onen barrunbean bizi gera, mugitzen gera eta gaude*, esaten zien S. Paulok Atenaskoai. Bure jakiundearekin argiro ekusten ditu gauza guziak, eta ekusten ditu, ez nolana, baizik diran bezala. Berdin da Jaunarentzat gaua, nola eguna, illunbea, nola egunaren erdia, orregatik dio Eskritura Santak, *eguzkia bera baño ere argiangoak dirala Jaunaren begiak*. Egia oek gogora ekarri, eta sinisten badezu, nonerenai, eta zauden tokian Jaunaren

aurrean eta begietan zaudela, eta ekusten ditua-
la gauza guziak, hau izango da Jaunaren aurrean
jartzea, eta beraren aurrean ibiltzeko bear dan
lenbiziko gauza. Bigarrena da, siniste onezaz
baliatzea gauden, eta gabiltzan lekuetan Jauna-
ganonz biotza jasotzeko, bear degun lagunza ta
grazia eskatzeko, umilki bera adoratzeko, Fede,
Esperanza eta Karidadezko afektoak egiteko.
Ekusten dezu, zer dan Jaunaren aurrean eta
begietan jartzea, eta ibiltzea?

Bide hau txik ederra da, ala bekatutik aldegi-
teko, nola obra onak ongi egiteko. Bekatutik
aldegiteko, nola alabaña izango dezu bekatu-
ko ausardia, oartzen bazera Jaunaren aurrean
zaudela eta begira dagokizula? Pensamentu
onek gorde zituan bekatuan erortzetik perill
guzis andian Susana eta Jose anziñakoa, eta
beste eziñ konta al. Era berean da bide txit ede-
rra obra onak ongi egiteko. Langille edo serbitza-
ri bat, nagusia begira dagokionean, kontuz ari da
bere lanean ta are kontu ta arreta andiangoarekin
Erregeren begietan, eta Erregek nai duan lanean
ari bada. Nolako arretarekin bada ez dituzu egin-
go obra onak, baldin oartua bazaude, Errege

guzien Erregea eta zure Jaungoikoa begira dagokizula? Era onetan Lege naturaleko Patriarka Santuak igo ziran birtutearen erpiñera, artean libururik, sermoi, eta konfesioko eta komunioko Sakramenturik ezpazan ere. Argatik Jaunaren aurrean ibiltzeko jaiera hau guziz asko laudatzen, eta txit goien ipintzen due San Ambrosiok, San Agustinek, San Basiliok eta beste santu askok.

Nere anima, lotsa zaite, oraindano bide añ ederra ikasi gabe bizituaz. Oitu zaite sarritan Jaunaren aurrean eta begietan jartzera, eta ibiltzera. Begira dagokizun Jaunari egin giozkatzu noizean bein agur umillak; eska zaiozu bere grazia eta lagunza premia guzietan; sarritan altxa ezazu beragana biotza, eta zuk zeregan ekusiko dezun, zein bide ederra dan bide hau bekatutik aldegitiko, eta obra onak ongi egiteko. Ez da onetarako jakiunde andirik bear; naiz irakurtzen ez jakin, naiz bearrean, edo norbaitekin hizketan ari, egin dezakezun gauza da Jaunaren aurrean espirituz jartzea eta ibiltzea.

OGEI TA ZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

*Goizeko jaiera, Dotrinako
liburutxoan ipiñi zan eran.*

Ekusi dezu, nere arima, nola aldegin bear dezun bekatutik, eta egin bese dituzun zure estadu, eta bizi moduan obra onak, betiko bizi-tza doatsua ititsi nai badezu. Ekusi edo aditu dituzu leneko Erakusaldietan asko neurri edo bide eder zure egiteko andi eta bakar onetan lagunduko dizuenak. Orain aditzera eman nai dizkitzut, euskaldun onak egiñ oi dituen zenbait obra on. Batzuek dira egun orokoak, besteak aste oro, ill oro, urte oro, eta urteko denbora batzuetan egiten diranak. Asi gaitezen goizeko jaieratik.

Janzi zaite goizean modestia eta onestida-dearekin, Aita gurea, Abe Maria, Kredoan edo beste orarioen batzuek esanaz. Jarri zaite Jaunaren aurrean, oroitzen zerala, nola begira dagokizun. Adora ezazu umiltasun eta errespeto guzia-

rekin. Eman giozkatzu eskerrak, eta eskeñi giozkatzu zure pensamentu, hitz eta lan guziak era onetan.

Jauna adoratzea

Nere Jaun eta Jaungoikoa! Zu zera gauza guzien Asiera eta Iturburua, eta guzien Iraupena eta Muga edo Fiña; eta ni naiz nerez ezereza, eta dedan izate hau zure esku ongilleak emana da. Ala ezagutzen eta aitortzen det, eta adoratzen zaitut umiltasun eta errespeto guziarekin.

Jaunari Eskerrak ematea

Milla esker, Jauna, oraindano egin dizkida-tzun mesede guziak gatik. Milla esker, zeren eze-rezetik egin ninduzun, eta egin zu emen, ezagu-tzeko, amatzeko, serbitzeko, eta gero betikota-sun guzian zurekin batean Zeruan doatsu izate-ko. Milla esker, zeren zure Seme Jesusen odol preziotsuarekin Adanen bekatuaren mendetik atera, eta zure Elizaren ume Bataioan egin nin-duzun. Milla esker, atzenean, zeren igaro dan gau onetan bizitzea gorde didazun.

Jaunari pensamentu, hitz, eta obrak eskeintzea

Eskeintzen dizkitzut, Jauna, gaurko nere pensamentu, hitz eta obrak. Betor, Jauna, zure lagunta eta grazia, egin ditzadan nik gaurko nere lanak zuk nai dezun eran, eta zure onra ta gloriarako: Artzen det, gaurko obrakin irabazi ditzakedan, barkazio guziak irabazteko asmoa, eta izan bitez nere erregu eta obra onak Aita Santuak onetarako adirazirik daukan fiñerako.

Betarik ez danean, hau guzia laburtu diteke era onetan

Nere Jaun eta Jaungoikoa! Adoratzen zaitut umiltasun eta errespeto guziarekin. Milla esker, Jauna, oraindano egin dizkidatzun mesede guziak gatik, eta zeren igaro dan gau onetan bizitza gorde didazun. Eskeintzen dizkitzut nere pensamentu, hitz eta obrak. Betor, Jauna, zure lagunza eta grazia, egin ditzadan nik gaurko nere lanak zuk nai dezun eran, eta zure onra ta gloriarako. Artzen det, gaurko obrakin irabazi ditzakedan barkazio guziak irabazteko asmoa, eta izan bitez nere erregu eta obra onak Aita

Santuak onetarako adirazirik daukan fiñerako = *Purgatorioko animenzat irabazi nai badituzu barkazioak, arrezazu asmoa, norentzat nai dezun, harentzat izan ditezen induljenziak.*

Examina, eta egun guziraoko asmo onak

Oroi zaite emen denbora pixka batean; lenbizia, zer utsegite egin dezun bartdanik onera. Bigarrena, zer Mandamentu geiena autsi oi dezun. Seigarrena, zure griña txarren artean, zein dan nagusi edo indarsuena. Eska giozu Espiritu Santuari bere lagunza ta grazia, esaten dazula gis onetan.

Atoz, o Espiritu Santua, atoz beartsuen gurasoa: atoz doaien emallea: argi ezazu nere adimentua, nik nere utsegiteak ezagutzeko. Mugi ezazu nere biotza oen gañean damutzeko.

Zaude orain gutxi batean zure utsegiteak, eta oen sustraiak gogora ekartzen ixillik::: egizu asmo osoa aldegiteko bekatutik eta bekatuaren bideetatik, batez ere arako geiena egiñ oi dezun bekatu artatik. Arrezazu asmo sendo bat eskuratzeko eta ezitzeko orrako zure griña eta jenio txar ori. Arrezazu zure Bitartekotzat Birjiña guziz

Santa, Zure Aingeru guardakoa, S. Jose eta zure izeneko Santua::: Egitzu orain Fede, Esperanza, Karidade eta Kontriziozko afektoak Hirugarren Partean ipiñi dirai eran (Arratseko jaieran ere ipiñiko dira bereala).

OGEI TA BEDERATZIGARREN ERAKUSALDIA

*Nola, goizetik asmoa artu dezun
eran, egurtean egin ditzakezun
zure lan, eta nekeak Jaunaren onra
eta gloriarako.*

Nere anima, goizetik eskeñi diozkatzu Jaunari zure pensamentu, hitz eta obrak beraren onra eta gloriarako. Baña hau onela egiñ arren, ez dezu, gero egiten dituzun lan eta nekeakin Zerurako irabazirik egingo, goizeko eskeñi, eta asmo ederraz azturik, nekatzen bazera Munduaren losentxak eta alabanzak irabazteko, edo zure jenio eta seta serbitzeagatik, edo beste oen anzeko fiñen bategatik. Hau gerta ez dakizun, oitu zaite sarritan gogora ekartzera, nola leku guzietan zauden Jaunaren aurrean eta begietan, eta nola begira dagokizun. Gañera oitu zaite noizean beiñ beragana biotza jasotzera, goizeko asmo onak berritzera, eta bear dezun lagunza

eskatzera; baña aldi bakoitzean ez denbora luze-rik igaro. Ara nola egin ditekean hau.

Lanean asitzean

Nere Jaun eta Jaungoikoa! Goizekoan bertan arkitzen naiz: izan bedi nere lan hau zure onra eta gloriarako.

Lana bukatzean

Eskerrak Jauna, zeren lan hau egiten lagundu didazun. Ez nazazula utzi aurrera ere.

Orduak aditzean

Abe Maria, eta Gloria esan oi dira, eta gero esaten da: Birjiña txit Santa, alaba ezazu beti-beti Jaungoikoa, eta ez arren guri utzi beraren kontra bekatu egiten.

Utsegiteren bat gertatzen zatzunean

Orra, nere Jaun ona, zeñ txarra, eta ezereza naizan! Goizean eman dizkitzut ainbeste hitz bekatu-rik ez egiteko, eta eskeñi dizkitzut nere hitz, pensamentu eta obrak zure onra eta gloria-rako: eta zuk ekusten dezu zeñ laster zuzaz, eta

emandako hitzaz aztu naizan. Damu det, Jauna, nere eskergabekeria onetaz eta guziaz! O ontasun guziz maitagarria! Gorde nazazu bekatutik.

Noizean bein

Oroi zaite, begira-begira dagokizula Jauna, eta prest dagoala zuri betiko bizitza eta ondasunak, eta emen ere on izango zendukean guzia emateko. Esan zaiozu: O Ontasun neurrik, mugarik eta bazterrik ez dezuna! O edertasun beti anziñakoa, eta beti berria! Amutzen zaitut biotz guzitik.

Tentazioren bat datorrenean

O nere Aita ona! Gorde nazazu etsaiaren lazoetatik; gorde nazazu, galdua naiz bestela. Bizi bedi Jesus, hill bedi bekatua.

Neke edo Kalteren bat gertarzen danean

Jauna, Zuk dakizu, zer ongi dagokan nere animari: egin bedi, egiñ bedi, Jauna, zure borondatea. Adoratzen eta bedeikatzen det zure izen Santua.

Lagun urkoagandik neke, edo gurutzeren bat datorrenean

Jauna, zure izenean izan bedi neke eta gurutzer hau; barkatzen diot urliari eman didan naigabe, eta opa diot Zerua, eta arako bidean bear duan guzia.

Etsaiari berri gaisto edo kalteren bat datorkionean

Jauna, opa diot urliari on guzia, eta eman zaiozu arren oraingo bere nekea ongi igarotzeko, edo zure izenean ontzat artzeko lagunza.

Etsaiaren onak enbidiaren gura zimurra esnatzen duanean

Jauna, Zugatik, eta zure izenean amatzen det nere lagun urko hau, opa diot Zerua, eta arako bidean on izango duan guzia, baita oraingo on hau ere zure serbitzeko, eta Zerua irabazteko.

Jateraroan edo afaritarakoan

Jauna, gauza guziena, eta nere kontua daukazu bezala prestatu dezu neretzat bizitzeko bear dedan guzia, eta janari ta edari hau. Zure

izenean, eta zu serbitzeko artuko ditut. *Aita gurea, Abe Maria, ta Gloria.*

Gosaria, bazkaria, edo afaria bukatzean

Gure Jaun eta Aita maitagarria, on guziaren emallea eta iturburua! Milla esker oraindaño egin dizkidatzun mesede guziak gatik, eta zeren artu ditudan janari eta edari hau neretzat prestatu dezun. *Aita gurea, Abe Maria, Gloria, eta Salbea.* Atzenean Purgategian edo Purgatorioan dauden animen alde *Aita gure bat.*

Eguzian, egerdian eta illunzean, Abe Mariak esateko ezgilla aditzean

Latinez

Angelus Domini nuntiavit Mariae. *Eranzuera:* Et concepit de Spiritu Sancto. *Abe Maria, graziaz betea, &c.* Eranzuten da: *Santa Maria, &c.*

Ecce ancilla Domini

Eranz. Fiat mihi secundum Verbum sum. Abe Maria, &c. Eranzuten da: Santa Maria, &c.

Et Verbum Caro factum est

Eranzuera: Et habitavit in nobis. Abe Maria &c. Eranzuten da, Santa Maria, &c. Gloria Patri, &c.

Oremus

Gratiam tuam, quae esumus Domine mentibus nostris infunde ut qui Angelo nuntiante Christi Filij tui incarnationem cognovimus, per passionem ejus, & Crucem ad resurrectionis gloriam perducamur. Per eundem Christum Dominum nostrum. Amen.

Euskeras

Jaunaren Aingeruak ekarri zion Birjiña Mariari Zeruko mandatua.

Eta Espiritu Santuaren obraz eta graziaz geratu zan aurdun. *Abe Maria &c. Eranzuten da: Santa Maria, &c.*

Ona ni jaunaren Serbitzaria

Erantzuten da: Egin bedi nigan zuk diozuna, eta diozun eran. *Abe Maria, &c. Erantzuten da:* Santa Maria, &c.

Eta Jainkoaren Hitz Andia edo Trinitadeko bigarren Persona aragiz janzi zan. *Erantzuten da:* Eta bizitu zan gizonen artean. *Abe Maria &c. Erantzuten da:* *Santa Maria, &c. Gloria, &c.*

Oremus

Erregutzen dizugu, Jauna, ixuri dezazula gure animetan zure grazia, Aingeruak adirazirik sure Seme Jesusen gizon egitea ezagutu degunak beraren Pasio eta gurutzeko eriotzagatik betiko piztutze doatsuaren glorian sar gaitean: Jesu-Kristogatik beragatik. Ala biz.

Erregu oek egiten dira belauniko; baña larunbat arratsetik igande arratseraño, eta Pazkoalarunbat eguneko bezperetatik Trinitade eguneraño zutik. Bakoitzean irabazten dira eun egunetako barkazioak, eta illean bein barkazio edo induljenzia osoa konfesatzen eta komulgatzen danak, baña erregutu bear da Prinzipe Katoliko-

en arteko pakeagatik, herejia desegin, eta Eliz
Ama Santaren onra eta gloria ugaritu dedin.

Sagarako ezkillak aditzean

O nere Salbatzalle matagarria! Apaizak Kon-
sagrazioa hitzak esan dituan unean bertan jarri
zera zu Aldareko Sakramentuan gurekin, eta
gure artean bizitzeko. Ala sinisten det, eta ado-
ratzen zaitut nere Jaungoikoa, nere Erregea eta
Salbatzallea bezala. Bedeika zaitzeela Zeruko
Aingeru eta doatsu guziak. Bedeika zaitzeela
lurreko anima onak eta gauza guziak.

Jesusen agoniako ezkillak arratsaldeko hiruretan jotzen danean

O jesus ona! Ordu onetan zu egon ziran
gurutzean hiltzeko zorian, eta hill ziran nigatik.
Zer egin, eta zer igaro bear ez nuke nik zure ize-
nean? Izan bitez zure onran nere neke eta guru-
tze guziak. *Aita gure bat, eta Abe Maria.* Ostira-
letan esaten dira belauniko bost *Aita gure, eta*
bost Abe Maria, eta irabazten dira barkazio edo
induljenziak.

Arratsean animen ezkillak jotzen danean

Badakizu, esazu: *de Profundis* asitzen dan Salmoa; ezpadakizu hau; esazu *Aita gurea, Abe Maria*, eta azkenean: *Requiem aeternam dona eis, Domine. Et lux perpetua luceat eis. Requiescant in pace. Amen.* Erregu hau beti egiten da belauniko; bakoitzean irabazten dira eun egunetako barkazioak, eta urtean bein barkazio osoa; baña onetarako konfesatu eta komulgatu bear da: eta erregutu ere bai Prinzipe Katolikoen arte-ro pakeagatik, herejia bukatu, eta Eliz Ama Santaren onra eta gloria ugaritu dedin.

OGEI TA AMARGARREN ERAKUSALDIA

*Arrats oro egin ditzakezun obra
onak.*

Arratsetan esan oi da Birjiña txit Santaren Errosarioa, eta askok ondoren egiten due Dotrinako liburutxoan dagoan arratseko jaiera. Zuk ere gauz oek ongi egin ditzatzun, aditzera eman-go dizut, lenbizi nola esan dezakezun ongi Errosarioa. Bigarrena, latinez eta euskeras ipiñiko dizut Ama Birjiñaren Letania. Hirugarrena, ipiñiko det arratseko jaiera Dotrinako liburuan dagoan eran.

Nola esan dezakezun ongi Errosario Santua

Errosarioa esateko jaiera da Birjiña txit Santaren gogokoa, eta Aita Santo Domingori berak erakutsia. Onekin eun milla hereje baño geiago erakarri zituan Santuak Elizaren barrutietara. Eta nork esan zenbat bekatari jaiera onen bidez

atera zituan bekatuen osiñetik? Etzaitezela kontentatu Errosarioa nolaini esatearekin, baizik esazu ongi, eta Eliz Ama Santak nai duan eran, hau da, gogora ekarriaz Jesu-Kristoren bizitzari, eriotzari eta piztutzeari dagozkan Misterioak. Onela errezatzen duenezat barkazio asko eta andiak, elkarren leian bezala, eman ditue Aita Santuak; baña Misterio oek nola gogoan erabilli eztakianak esan beza Errosarioa alik ongiena, eta Jesus bere Ama maitagarriarekin onratzeko eta alabatzeko gogoarekin, eta irabaziko ditu besteak bezala induljenziak. Ala erabaki zuan aita Santu Benedikto XIII. Hastelen eta ostegunetan gogoan erabilli dira Jainkoaren gizon egitea, eta ondorengo bizitza eta Misterio oei derizte *Atsegiñezkoak*: hastearte eta ostiraletan Jeusen neke, oñaze eta eriotza; eta Misterio oei derizte: *Dolorezkoak*: Igandean, haste azkenean eta larunbatean Jesusen piztutzea, eta ondorengo Misterioak, eta izendatzen dira: *Gloriosoak*: Ara nola egiten dan hau guzia.

**Hastelen eta ostegunetan ziña zaitte,
eta esazu**

Lenengo Misterioa: Adanen bekatuarekin galdua geratu zan, gizonarenzat Zeruko grazia eta arako eskua irabazteko egin zan gizon, Trinidadeko bigarren Persona Birjiña txit Santaren Sabelean Espiritu Santuaren obraz eta graziaz. *Aita gurea; amar Abe Maria, eta azkenean Gloria Patri.*

Bigarren Misterioa: Birjiña Amaren bisitazioa, edo Santa Isabel ekustea. *Aita gurea; amar Abe Maria, eta azkenean Gloria Patri.*

Hirugarren Misterioa: Jesusen jaiotza. *Aita gurea; amar Abe Maria, eta azkenean Gloria Patri.*

Laugarren Misterioa: Ama Birjiñaren Purifikazioa, eta Jesusek Aita Eternoari egin zion presentata edo ofrenda. *Aita gurea, eta Abe Mariak len bezela.*

Bostgarren Misterioa: Jesusi, artean gaztetxoa zala, Jerusalengo Elizan gertatua, eta nola an bere Amak arkitu zuan. . *Aita gurea; amar Abe Maria, eta azkenean Gloria Patri.* Hoek esan ondoan Letania.

Hastearte eta ostiraletan ziña zaite, eta ezazu

Lenengo Misterioa: Jesusen Jetsemaniko illuntasun, tristura eta odolezko izerdiak. *Aita gurea; amar Abe Maria, eta azkenean Gloria Patri.*

Bigarren Misterioa: Jesusek gure amorez artu zituan azoteak. *Aita gurea; amar Abe Maria, eta azkenean Gloria Patri.*

Hirugarren Misterioa: Jesus Errege guzien Errege aranzaz korotua. *Aita gurea; amar Abe Maria, eta azkenean Gloria Patri.*

Laugarren Misterioa: Jesus Kalbarioko mendira gurutzea soñean daramala. *Aita gurea; amar Abe Maria, eta azkenean Gloria Patri.*

Bostgarren Misterioa: Jesus gure amorioz eta gure bekatuak gatik gurutzean iltzez josia eta hilla. *Aita gurea; amar Abe Maria, eta azkenean Gloria Patri.* Hoek esan ondoan Letania, gero ipiñiko dan bezala.

Igande, Haste azken eta Larunbatetan ziña zaite eta esazu

Lenengo Misterioa: Jesusen piztutzea, eta Birjiña txit Santaren orduko atsegiñ kontentua. *Aita*

gurea; amar Abe Maria, eta azkenean Gloria Patri.

Bigarren Misterioa: Jesusen Zerura igotzea, eta Jesusen Amaren orduro atsegiñ andia. *Aita gurea; amar Abe Maria, eta azkenean Gloria Patri.*

Hirugarren Misterioa: Espiritu Santuaren etorrera, eta Jesusen Amak orduan artu zuan atsegiñ andia. *Aita gurea; amar Abe Maria, eta azkenean Gloria Patri.*

Laugarren Misterioa. Ama Birjiñaren Zerurtzea. *Aita gurea; amar Abe Maria, eta azkenean Gloria Patri.*

Bostgarren Misterioa: Ama Birjiñaren Koroazioa. *Aita gurea; amar Abe Maria, eta azkenean Gloria Patri.* Hoek esan ondoan Letania, oraiñ ipiñiko dan bezala. *Misterio zek luzeago darartzie Aita Mendibururu eta Kardaberazek,*

AMA BIRJINAREN LETANIA

Latiñez

Kyrie eléison.

Kyrie eléison.

Christe eléison.

Christe eléison.

Kyrie eléison.

Kyrie eléison.

Christe audi nos.

Christe audi nos.

Christe exaudi nos.

Christe exaudi nos.

Pater de Coelis Deus.

Miserere nobis.

Fili Redentor Mundi Deus.

Miserere nobis.

Spirita Sancte Deus.

Miserere nobis.

Sancta Trinitas unus Deus.

Miserere nobis.

Sancta Maria.

Ora pro nobis.

Sancta Dei genitrix.

Ora pro nobis.

Sancta Virgo Virginum.

Ora pro nobis.

Mater Christi.

Ora pro nobis.

Mater divinae gratia.

Ora pro nobis.

Mater purissima.

Ora pro nobis.

Mater castissima.

Ora pro nobis.

Mater inviolata.

Ora pro nobis.

Mater intemerata.

Ora pro nobis.

Mater immaculata.

Ora pro nobis.

Mater amabilis.

Ora pro nobis.

Mater admirabilis.

Ora pro nobis.

Mater Creatoris.

Ora pro nobis.

Mater Salvatoris.

Ora pro nobis.

Virgo prudentissima.

Ora pro nobis.

Virgo veneranda.

Ora pro nobis.

Virgo predicanda.

Ora pro nobis.

Virgo potens.

Ora pro nobis.

Vigo clemens.

Ora pro nobis.

Virgo fidelis.

Ora pro nobis.

Speculum justitiae.

Ora pro nobis.

Sedes Sapienciae.

Ora pro nobis.

Causa nostrae laetitiae.

Ora pro nobis.

Vas spirituale.

Ora pro nobis.

Vas honorabile.

Ora pro nobis.

Vas insigne devotionis.

Ora pro nobis.

Rosa mystica.

Ora pro nobis.

Turris Davidica.

Ora pro nobis.

Turris eburnea.

Ora pro nobis.

Domus aurea.

Ora pro nobis.

Faederis arca.

Ora pro nobis.

Janua Coeli.

Ora pro nobis.

Stella matutina.

Ora pro nobis.

Salus infirmorum.

Ora pro nobis.

Refugium peccatorum.

Ora pro nobis.

Consolatrix afflictorum.

Ora pro nobis.

Auxilium Cristianorum.

Ora pro nobis.

Regina Angelorum.

Ora pro nobis.

Regina Pratriarcarum.

Ora pro nobis.

Regina Prophetarum.

Ora pro nobis.

Regina Apostolorum.

Ora pro nobis.

Regina Martirum.

Ora pro nobis.

Regina Confesorum.

Ora pro nobis.

Regina Virginum.

Ora pro nobis.

Regina Santorum omnium.

Ora pro nobis.

Agnus Dei, qui tolus peccara mundi.

Parce nobis Domine.

Agnus Dei, qui tolus peccata mundi.

Exaudi nos Domine.

Agnus Dei, qui tolus peccata mundi.

Miserere nobis.

OREMUS

Gratiam tuam, quaesumus Domine, meatibus nostris infunde, ut qui Angelo nuntiante Christi Filij tui incarnatiônem cognovimus, per passionem ejus, & Crucem ad resurrectionis gloriam

perduramur. Per eumdem Christum Dominum nostrum. Amen.

Euskeras

Jauna, urrikitu zaite guzaz.

Jauna, urrikitu zaite guzaz.

Jesu-Kristo, urrikaldu zaite guzaz.

Jesu-Kristo, urrikaldu zaite guzaz.

Jauna, urrikitu zaite guzaz.

Jauna, urrikitu zaite guzaz.

Jesu-Kristo, adi gaitzatzu.

Jesu-Kristo, adi gaitzatzu.

Jesu-Kristo, enzun gaitzatzu.

Jesu-Kristo, enzun gaitzatzu.

Zeruetuko Aita Jainkoa.

Urrikitu zaite guzaz.

Seme Jainko Munduaren Erosle edo Redentorea.

Urrikitu zaite guzaz.

Espiritu Santu Jainkoa.

Urrikitu zaite guzaz.

Trinidad guziz Santa, Jainko bat bakarra.

Urrikitu zaite guzaz.

Santa Maria.

Erregu ezazu gugatik.
Jainkoaren Ama Santa.

Erregu ezazu gugatik.
Birjiñen Birjiña Santa.

Erregu ezazu gugatik.
Jesu-Kristoren Ama.

Erregu ezazu gugatik.
Zeruraro graziaren Ama.

Erregu ezazu gugatik.
Ama guziz garbia.

Erregu ezazu gugatik.
Ama guziz Kasta.

Erregu ezazu gugatik.
Bekaturik beñere izan etzenduan Ama.

Erregu ezazu gugatik.
Ama Tatxarik gabea.

Erregu ezazu gugatik.
Ama mantxarik gabea.

Erregu ezazu gugatik.
Ama maitagarria.

Erregu ezazu gugatik.
Ama miragarria.

Erregu ezazu gugatik.
Ezerezetik guzia egin zuanaren Ama.

Erregu ezazu gugatik.

Salbatzallearen Ama.

Erregu ezazu gugatik.

Birjiña guziz zogi eta zintzoa.

Erregu ezazu gugatik.

Birjiña onragarria.

Erregu ezazu gugatik.

Birjiña laudagarria.

Erregu ezazu gugatik.

Birjiña al edo esku andia dezuna.

Erregu ezazu gugatik.

Birjiña biotz-beraa.

Erregu ezazu gugatik.

Birjiña leiala.

Erregu ezazu gugatik.

Birtute guzien ispillua.

Erregu ezazu gugatik.

Jakiundearen jarlekua.

Erregu ezazu gugatik.

Gure arsegiñ eta pozaren bidea.

Erregu ezazu gugatik.

Onzi Espirituala.

Erregu ezazu gugatik.

Onzi Onragarria.

Erregu ezazu gugatik.

Jaiera edo deboziozko onzi bikañ-miragarria.

Erregu ezazu gugatik.

Arrosa misteriozkoa.

Erregu ezazu gugatik.

Dabiden Torrea. [1]

Erregu ezazu gugatik.

Torre guziz eder-Zeruko doaiez apaindua. [2]

Erregu ezazu gugatik.

Urrezko Jauregi ederra.

Erregu ezazu gugatik.

Pakearen Arka.

Erregu ezazu gugatik.

Zeruko atea.

Erregu ezazu gugatik.

Goizeko izarra.

Erregu ezazu gugatik.

Erien osasuna.

Erregu ezazu gugatik.

Bekatarien gorde-lekua.

Erregu ezazu gugatik.

Neketan daudenen Konsolatzillea.

Erregu ezazu gugatik.

Kristauen lagunza.

Erregu ezazu gugatik.

Aingeruen Erregiña.

Erregu ezazu gugatik.

Patriarken Erregiña.

Erregu ezazu gugatik.

Profeten Erregiña.

Erregu ezazu gugatik.

Apostoluen Erregiña.

Erregu ezazu gugatik.

Martirien Erregiña.

Erregu ezazu gugatik.

Konfesoreen Erregiña. [3]

Erregu ezazu gugatik.

Birjiñen Erregiña.

Erregu ezazu gugatik.

Santu guzien Erregiña.

Erregu ezazu gugatik.

Jainkoaren bildots Munduko bekatuak kentzen dituzuna.

Barka gizkutzu, Jauna, gure bekatuak.

Jainkoaren bildots Munduko bekatuak kentzen dituzuna.

Enzun gaitzatzu, Jauna.

Jainkoaren bildots Munduko bekatuak kentzen dituzuna.

Urrikitu zaite guzaz.

Oremus

Erregutzen dizugu, Jauna, ixuri dezazula gure animetan zure grazia, Aingeruak adirazirik zure Seme Jesu-Kristoren gizon egitea ezagutu degunak, beraren Pasio eta gurutzeko eriotzagatik betiro piztutze doatzuaren glorian sar gaitean: Jesu-Kristo beraren bidez. Ala biz.

[1] *Dabiden Torrea*. Zer esan nai ote da hitz oetan? Ara zer, Jerusalemgo Erria etsaietatik gordezko, egin zuan Dabid Erregeak Torre sendo bat, eta an, premia zaneko, zinzilika zeuden arma-mota guziak. Argatik Letania onetan Birjiña txit Santa Dabiden torrearen pare ipintzen da, eta deitzen ere zaio *Dabiden Torrea*, zeren dan Eliz Ama Santa gordezten duan Torre *sendo* eta etsaiak garaizeko Zeruko armaz guziz ornitua.

[2] Torre sendoa ezezik da Birjiña txit Santa Torre guziz ederra, Zeruko doaiez, birtutez eta Santutasunez txit apaindua. Argatik deitzen zaio Leta-

nian: *Marfillezko Torrea*; baña hitz oen lekuan ipiñi da hitzak adirazten duena, jende jakin ezak uste izan ez dezeen Birjiña txit Santa dala *Marfillezko* gauzaren bat. Anziñako denboran Errege eta gizon andiak, batez ere Orientean, edo Eguzkia irteten dan aldeko bazterretan, oazurak, gelak eta etxeak apaintzen zituen marfillezko txapak an-emen ederki eransiaz. Emendik deitzen dio Letaniak Birjiña txit Santari *Marfillezko Torrea*, zeren era miragarrian apaindua dagoan, ez lurreko apaindurakin, baizik Zerukoakin: eta ona zergatik Letanian Euskeraz ipiñi diran hitz oek: *Torre guziz eder-Zeruko doaiez apaindua*.

[3] Konfesooren Erregiña. Hitz oekin ez dira adirazten Konfesioak entzuten dituen Apaizak, baizik Martirioa igaro gabe birtute eta Santutasun andian beren egunak bukatzen dituen gizon anziak. Hoek beren bizitza ederrarekin aitortzen eta konfesatzen due Jesu-Kristo, eta adiratzen due, prest arkitzen dirala, bera ez uzteagatik igarotzeko edozeiñ neke eta gurutze, eta orregatik ematen zate *Konfesooren* izena. Vide Benedictum XIV. de Canonizatione Sanctorum.

Letanien ondorengo jaiera

Jarri gaitezen Jaunaren aurrean, oroitzen gerala, nola begira dagokigun. Adora dezagun umiltasun eta errespeto guziarekin. Eman degiozkagun eskerrak, eta eskeñi degiozkagun gure pentsamentu, itz, obrak eta loa. *(Hau esango da Errosarioa bere etxekoakin edo lagunakin esaten duanak).*

Jauna adoratzean

Nere Jaun Jainkoa! Zu zera gauza guzien Asiera eta Iturburua, guzien Iraupena eta Muga edo Fiña; eta ni naiz nerez ezereza, eta dedan izate hau zure esku ongilleak emana da. Ala ezagutzen eta aitortzen det eta adoratzan zaitut umiltasun eta errespeto guziarekin.

Jaunari eskerrak ematea

Milla esker, jauna, kraindaro egiñ dizkidatzun mesede guziak gatik. Milla esker, zeren ezerezetik egin ninduzun, eta egin Zu emen ezagutzeko, amatzeko, serbitzeko: eta gero betikotasun guzian zurekin batean doatsu izateko. Milla esker, zeren zure Seme Jesusen odol preziotsua-

rekin Adanen bekatuaren mendetik atera, eta zure Elizaren ume bataioan egin nazun. Milla esker atzenean, zeren igaro dan egun onetan bizitza gorde didazun.

Jaunari pensamentu, hitz, obrak eta loa eskeintzea

Ezkeintzen dizkitzut, Jauna, gau onetako nere pensamentu, hitz, obrak eta loa. Atoz, Jesus ona, bizi zaite nere biotzean, eta gorde nazazu etsaia-
ren sare eta amets gaistoetatik.

Examina

Oroi gaitezen emen pixka batean lenbizia: Zer utsegite egin degun goizetik oraindano. Bigarrena, geiegi autsi oi dugun Mandamentu hura gorde ote degun, goizetik asmoa artu genduan bezala. Hirugarrena, leialki, eta arretarekin saiatu ote geran arako gure griña txar nagusi eta jenio gaisto hura eskuratzera, ezitzera, hilduratzera. Eska degiogun Espiritu Santuari bere lagunza eta grazia.

Atoz, o Espiritu Santua, atoz beartsuen gurasoa, atoz doaien emallea! Argi ezazu nere adi-

mentua, nik nere utsegiteak ezagutzeko: mugi ezazu nere biotza oen gañean damutzeko.

Gauden oraiñ gutxi batean gure gaurko utsegiteak, eta oen Sustraia gogora ekartzen ixillik:: Egin dezagun asmo osoa aldegiteko bekatutik eta bekatuaren bideetatik, batez ere arako geiena egiñ oi degun bekatu artarik. Ar dezagun asmo sendo bat eskuratzeko ta ezitzeko arako gure griña eta jenio txar hura. Ar ditzakun gure Bitartekotzat Birjiña guziz Santa, gure Aingeru Guardakoa, S. Jose eta gure izeneko Santua:: Egiñ ditzakun orain Fede, Esperanza, Karidade eta Kontriziozko afektuak.

Akto Fedezkoak

Jaungoikoa, Jakiunde ta egia betikoa zerana! Sinisten ditut benaz eta biotz guzitik, Eliz Ama Santak sinisten eta erakusten dituan gauza guziak, zeren Zuk Eliz Ama Santari agertu diozkatzun, eta onek ala erakusten dizkidan.

Sinisten det Jainko Aita guziz poderoso Zeruaren eta lurraren Kriadoreagan. Eta haren Seme bakar Jesu-Kristo gure Jaunagan. Zeña sortu zan Espiritu Santuaren Obraz eta graziaz:

jaio zan Maria Birjiñagandik. Padezitu zuan Pon-
zio Pilatosen mendean, gurutzefikatua, hilla eta
obiratua izan zan. Infernuetara jatxi zan, hiruga-
rren egunean hillen artetik piztu zan. Zeruetara
igo zan, an dago jarririk Aita Jainko guziz podero-
soaren eskuetik. Andik etorriko da biziak eta
hillak juzgatzera. Sinisten det Espiritu Santua-
gan. Eliza Santa, Katolika, Santuen Komunioa.
Bekatuena barkazioa. Aragiaren resurrekzioa.
Bizitza betikoa. Amen.

Sinisten det, Jesu-Kristo gure Jaunak utzi zioz-
kala Eliz Ama Santari zazpi Sakramentu ta oen
artean Konfesioko Sakramentua bataioa ezker
egindako bekatuak barkatzeko. Sinisten det,
Jesu-Kristo gure Jaunak ipini zuela Aldareko
Sakramentu guziz miragarria ta Sakramentu
onetan dagoala gure animen janari eta edari iza-
teko, grazia ugaritzeko, eta bere gozotasun
miragarriak gure biotzetan ixurtzeko. Siniste
onetan bizi eta hill nai det.

Akto Esperanzazkoa

Nere jaun Jaungoikoa! Zure Seme Jesusen
eriotza eta merezimentuak bitarteko dirala, eta

beraren graziarekin alegiña egiten dedala, esperatzen det zure Ontasun eta Miserikordian nere bekatuen barkazioa ta betiko bizitza doatsua, zeren Zuk ala agindu didazun, eta zere hitzetan añ leiala zeran. Zu zera On guziaren Iturburua eta Emallea, eta Zugandik uste det, Jauna, Zerurako bidean bear dedan grazia.

Akto Karidadezko ta Kontriziozkoa

Nere Salbatzalle Jesus maitagarria! Zu zera Ontasun bazter gabea eta neurrik ez dezuna, eta beragaitik guziz maitagarria. Amatzen zaitut biotz guzitik zure Ontasun horri begiraturik. Ta Zugatik, eta zure izenean Amatzen ditut nere lagun urko guziak, eta oen artean nere etsaiak. Opa diet Zerua, eta arako bidean konbeni zaten guzia. O Ontasun miragarria! Damu det Zu ofendituaz, eta damu det gauza guzien gañetik. Artzen det asmo osoa ez geiago bekatu rik egiteko, bekatuaren bideetatik aldegitoko eta konfesatzeko.

OGEITA AMAIKA GARREN ERAKUSALDIA

*Igande eta beste jai egunak
Santifikatzearen gañean.*

Ekusi dezu, nere anima, nola egun oro, goizean, eguardean eta arratsean ugari egin ditzaitezun obra on eta Zerurako irabaziak. Orain begiratu bear dezu lenengo lekuan, zertako ipiñi dituan Eliz Ama Santak igande eta beste jaiak. Bigarrena, zein lotsagarria dan Kristau askoren egun oetako bizitza, Hirugarrena, nola zuk igaro bear dituzun egun oek obra onetan, eta Zerurako irabazien gordairua geitutzen eta azitzen dezula.

Gizona, bere Jaunak ezerezetik atera, eta lurraren gañean ipiñi zuanetik, beartua dago bere Egille ona ezagutzera, amatzera eta onratzera, ez biotzez bakarrik, baita gorputzez, edo agiri diran obra onakin ere. Edozeñek dakus, lan hau ongi egiteko, alde bat utzi bear dirala Munduko egiteko eta arazoak. Argatik Jaunak bere-

tzat berezi, eta autu zituan zenbait egun Israel-tarrai eman zien legean, oen artean *Larunbata*. Eta egun hau, Legea eman zienean ezezik, lenagoere beretzat markatu zuan Jaunak, Israeldarrak Ejiptotik irten ziranean. Larunbateko jaia ipiñi zanetik laster arkitu zuen Israeldarrak gizon bat basoan egurretan, eta Jaunaren agintez kendu zioen bizia arrika.

Etorri zan Jesu-Kristo, eta aitu ziran Lege zarreko Aginteak eta Zeremoniak; baña etzan aitu, eta ezin aitu zitekean Jauna amatzeko eta onratzeko degun egin-bide eta zor andia. Argatik Apostolu Santuak larunbataren lekuan autu zuen *Igandea*, edo, Jesus hillen artetik piztu zan eguna, eta esan nai du *igandeak* linbotik eta eriotzaren atzaparretatik Jesusek egin zuan igonera, piztutzen zala beiñ ere ez hiltzeko. Igandiaz gañera badira Jesu-Kristoren Elizan beste jai eta festa asko; batzuek ipiñi zituen apostoluak berak, besteak Eliz Ama Santak, besteak Obispo Jaunak Jesu-Kristok emandako eskuarekin. Emendik atera ezazu, Eliz Ama Santak ipiñi dituala igande ta beste jaiak Jauna amaten, adoraten eta onratzen igaro ditezen, eta denbo-

ra berean guk obra on, eta Zerurako irabaziak errazago eta ugariago egiteko. Onetararo agintzen du, enzun dezagula kontuz eta errespeto andiarekin Meza Santua, eta ez dezagula egin lanik premia gabe. Onetarako ipiñiak dauzka usanza on asko, nola diran Errosario, Bezpera eta beste onelako gauzak. Onetarako atzenean dira Platikak, Dotrinak eta Sakramentuak.

Ala ere, nork eztaki, zein lotsagarria dan askoren jai egunetako bizitza? Zenbat izango dira Meza nagusirik enzuten ez duenak, Jainkoaren Hitzak ukitu ditzan beldurrez? Zenbat, mezaurrean eransian daudenak Eliz ingurutan? Zenbat Elizan bertan, edo lo eta errespetorik gabe? Zenbat urte guzian Dotrinatik igesi dabiltzanak? Zenbat jai egunetan lan debekatuak egiten dituenak? Jai egunetan abarkak jostea, esiak eta soñeko zarrak adabatzea: jai egunetan guriak prestatzea, trallu-zigorrak eta zildai-gaiak billatzea eta ekartzea: Zer esango det, obra onen lekuan bekatua bekatuaren gañean egiteaz? Noiz jaietan baño geiago gertatzen dira ordikeriak, borrokak eta iskanbillak? Noiz gertatzen dira berandu etxeratzeak, gurasoen eta

etxeetako naigabeak? Noiz neskaten eta mutilen bildurak, hizketa loiak, jolas eta ibillera lotsagarriak? Zer esango da Jaunak onelako jai egunaz? Zer, Isaiasen autik len esana daukana baizik? *Gorrotoz begiratzen diet zuen jai egunai.* Nere Jaungoikoa! Hau da Kristau askoren jai egunetako bizitza eta onen anzekoa izan da nere ere.

Zuk, nere anima, begira ondo zertako ipiñiak dauden igande eta jaiak. Ez dezazula esan; askok darausten bezala, festak santifikatzen dituala Mez osoa enzun, eta lanik premia gabe egiten ez duanak. Ez du Elizak bekatu larriaren azpian agintzen bi gauz oek baizik, beintzat Obispadu onetan, eta geienetan ere; baita ez ditu onetarako bakarrik ipiñi festak, len aditu dezun bezala, eta bi gauz oekin bakarrik kontentatzen bazera, erraz bekatutik bekatuta amilduko zera. Argatik egizu zuk alegiña bekatutik eta lagun gaistoetatik aldegitoko; Meza nagusiak, Bezperak eta Dotrinak entzuteko; eta etorri ezin bazaitezke, igaro ezazu etxean Dotrinaren parte edo puska bat bakarrik edo lagunakin. Oitu zaite ordu onean etxeratzer, eta lagun onakin baizik

ez jolastera; eta atzenean oitu zaite maiz eta ongi prestatuak Sakramentuak artzera, eta, aurreko Erakusaldian esan dan eran, Errosario Santua esatera.

OGEI TA AMABIGARREN ERAKUSALDIA

*Illaren lendabiziko igande ta Birjiña
txit Santaren festetan Jesus
maitagarriari Aldareko
Sakramentuan, eta beraren Ama
guziz Santari Errosarioko Aldarean
agur umillak, eta onginaiezko bisitak
egiteko bide erraza.*

Aditu dezu, nola igande eta jaiak igaro bear dituzun: orain aditu bear dezu illaren lenbiziko igandeetan zer egin bear dezun. Gure errietan Ama Birjiñari jaiera dioenak sartzen dira, Errosarioro Kofradian, eta konfesatzen dira illaren lenbiziko igandeetan. Egun oetan, eta Birjiña txit Santaren festetan bisitatzen due Sakramentua, eta gero Errasorioko Aldarea, eta onela irabazi ditzakee asko barkazio edo induljenzia. Uste det, naiko dezula, zuk ere egin hau bera, eta onetarako emen ipiñiko zatzu modu erraza. (*Elizara*

ezin bazatozke, gauz ona izango da etxean debozio hau egitea, Elizaronz jartzen zerala).

Jarri zaite Jesus Sakramentatuaren aurrean, eta eskeñi giozkatzu egitera zoazen bisitak

Adoratzen zaitut, Jesus maitagarria; eskeintzen dizkizut orain egin uste ditudan bisitak eta erreguak zure onran. Izan bitez oek zure Fede eta Eliza Santa zabaldu eta ugaritu dedin. Printzipe Katolikoak pakean bizi, eta herejia guziak desegin ditezen. Eta irabazi nai nituke, Jauna, gaurko bisita oekin irabazi ditzakedan barkazio guziak, Aita Santuak nai duan eran, eta fiñerako egiten ditudala. Ala biz, edo ala gerta dedilla.

Asi ezazu Jesusen bisita

Nere anima, nor ote da ogiaren idurien azpian Aldareko Sakramentuan ezkutaturik dagoana? Hori da Trinitadeko bigarren Persona, Ait Eternoaren Semea eta Aitarekin Jainkotasunean eta Perfekzio guzietan berdiña. Hori da, Adanek beretzat eta guretzat galdu zuan, Zerurako grazia eta esku edo deretxa guri biurtzeko

gizon egin zana, eta gurutzean bizitza eman zuana. Hori da guganako ongina eta amorioak gañez egiñik, gurekin, eta gure artean geratu nai izan zuana, eta geratzen dana Sakramentu guziz miragarri orreran. *Etzaituet utziko ume zurtzak bezala* esan zien Apostuluai; *orra, zuekin nago, eta egongo ere naiz Mundua Mundu dan artean. Emen gutxi batean gogora ekartzu Jesusen guganako ontasun baztergabea eta gure esker-gabekeria:::*

Hau guzia egin nihatik gure Salbatzalleak! Eta ni ala ere beragandik igesi! Ainbeste bider beraren kontra bekatu egin! Noiz artean, nere anima; noiz artean izan nai dezu aiñ eskergabea? O nere Jesus ona! Sinisten det, Sakramentu orretan arkitzen zerela gau ta egun gure zai bezala, eta guri zure ondasunak eman naiez. Adoratzen zaitut, eta damu det oraindañoko nere eskergabekeria guziaz. Gaurdanik artzen det asmo osoa zu sarritan bisitatzeko, adoratzeko, eta nere agur umillak egiteko. *Emen hiru Aita gure, Abe maria, ta Gloria.*

Egizu oraiñ Errosarioko Aldarearen bisita

Birjiña guziz Santa! Bekatarien Bitarteko eta Ama gozoa. Lotsaz (edo alkez) beterik agertzen naiz gaur zure aurrean, eta zu bisitatzera; ainbeste dira alabaña, zure kontra egin ditudan txarkeri ta bidegabeak. Baña denbora berean zure Urrikimentuak, eta ondu nai duen bekatarientzat agertzen dezun biotz biguin orrek nakar so onratzera. Nork eman legikedan niri zu alabatzeko diña lizakean mihi garbi eder bat! Ez naiz, Ama maitagarria; ez naiz ni onetarako ezezik, gutxiagorako ere gai eta nik egin dezakedana da baliatzea Aingeruaren eta Eliz Ama Santaren hitzaz, zu onratzeko eta nere erregu umillak egiteko.

Agur Maria, esan zizun San Gabriel Aingeruak Zeruko mandatuarekin etorri zitzatzunean, eta hau bera diot nik ere berarekin. Zure izenak izutzen ditu etsai guziak, aienatzen ditu tentazioen bagak, arintzen eta gozatzen ditu gure nekeak, eta alaitzen ditu justuak eta bekatariak.

Gratiaz betea. Hau da San Gabrielek eman zizun alabanza. *Graziaz betea* zure sortzean:

graziaz betea, Aingeruak agur egin zizunean: eta graziaz betea bizitzan eta eriotzan. Zure animako graziak, kure birtute eta edertasunak garaitzen ditu Zeruko doatsu guziak. *Jauna da zurekin!* O Trinitade guziz Santaren jarleku ederra! Zure biotzean, egon da, eta dago Aita Eternoa bere alabagan bezala, Semea bere Amagan, eta Espiritu Santua bere Esposagan bezala.

Bedeikatua zera andre guzien artean. Bedeikatua, esleitua eta autua Birjiña guzien artean. Bedeikatua Ama guzien artean. Bedeikatua, zeren bekatuaren mantxarik eta kutsurik ekusi etzenduan. Bedeikatua, zeren garbitasunaren kalte gabe sortu zenduan Jesus Espiritu Santuaren obraz eta graziaz. Bedeikatua, zeren zure bularretan azi zenduan gauza guzien Egille eta jabea bera.

Eta bedeikatua da Zure Sabeleko frutua Jesus. Hau da, bedeikatua ezezik, bedeikazio guzien iturburua: hau bizitza egiazkoaren arbola, eta denbora berean betiko bizitza doatzua guretzat prestatu zuan zure fruta miragarria. Eta zu zera beraren Ama Santa, gure Bitarteko eta

Laguntzalle andia. Norgana bide egingo degu, zugana baizik?

Santa Maria, Jainkoaren Ama. Bai, Birjiña txit Santa: Jainkoaren Ama zera. Eta hau onela izanik, zer iritsi ez dezaket, zu Bitarteko zaitudala?

Erregu ezazu gu beratariok gatik. Zuk zero-
rrek ongiena dakutsu, nolako perillen artean arkitzen geran. Zer izango lizake guzaz, zuk ez lagunzera? Erregu ezazu bada arren gugatik orain, baña batez ere eriotzako orduan; bai arren Maria Birjiña gozoa. = *Emen hiru Abe Maria.*

OGEI TA AMAIRUGARREN ERAKUSALDIA

*Illaren hirugarren igandeetan
Aldareko Sakramentua bizitzeko
modu erraza.*

Birjiña txit Santaren jaieran bizi diran, Euskaldunak egiñ oi ditue illaren lenbiziko igandeetan, aditu dituzun obra onak. Era berean Jesus Sakramentatuari, edo gure amorioz Sakramentuan dagoanari zerbait debozio dioenak, egiten ditue illaren hirugarren igandeetan Jesus onratzeko zenbait gauz on. Hirugarren igandeetan egiten da gure errietan Jesusen Biotzaren debozioa, edo Minerba. Konfesatzen dira asko; agerturik ipintzen da Sakramentua; erregutzen zaio denbora onetan, eta eskatzen zaio gure premiak estaltzeko bear dana; egiten da Sakramentuarekin prozesioa, eta atzenean beste egunetan baño bisita geiago egiñ oi zaizka Sakramentuari; eta gauz oekin irabazi ditezke asko barkazio edo induljenzia. Bisit oek ongi egitea da jaiera txik

andi ta ederra, ta zuk ikasi bear zendukeana. Ara onetarako modu erraza.

Jarri zaite Aldareko Sakramentuaren aurreran; adora ezazu, eta eskiñi zaiozu, egitera zoazen bisita

Sakramentu orretan gure amorioz zauden Jesus maitagarria: adoratzen zaitut nere Jaungoikoa bezala, ta nere animaren Errege ta Salbatzailea bezala. Eskeintzen dizut Bisit hau zure onran eta zure guganako amorioari nolerebait eranzuteko; eta denbora berean Prinzipe Katolikoaren arteko pakeagatik, herejia guziak desegin, eta zure Elizaren onra eta gloria ugaritu ditezen. Irabazi nai nituke, bisita onekin irabazi ditzakedan barkazio guziak, eta onetarako egin nai det hau, Aita Santuak siñalaturik daukan fiñerako.

Ekartzu gogora norañoko onginei, eta amorioa agertu digun Jesusek Aldareko Sakramentua ipintzean, eta Sakramentuan bertan

Nere anima, nai dezu ezagutu norañoko onginei eta amorioa agertu digun Jesusek Aldarero

Sakramentuan ipintzean, eta Sakramentuan bertan? Begira bada lenengo lekuan, zer egin zuan ostegun Santu arratsean. Arkitzen zan Jesus gugatik bere bizitza emateko bezperan, eta Mundu onetatik bere Aitagana laster joan bearrean. Ekusten zuan etsai askoren artean geratu bear genduala. Gañez egin zion guganako ongina eta amorikak, eta asmatu zuan gure artean beti bizitzeko bide guziz miragarri bat, edo Aldareko Sakramentuan jarzea eta egotea eta denbora berean Zeruan. Begira gañera zein gauza miragarriak egiten dituan Sakramentu orretan. Ozta Apaizak esaten ditu Konsagrazioko hitzak, une eta puntu artan bertan jartzen da Jesus Sakramentuan, izan dedilla Apaiza naiz ona, naiz gaistoa; eta jartzen da Apaizak nai duan lekuan eta nai duan denboran. Zertako ote? Gurekin bizitzeko, gure biotzetara etortzeko, eta guri emateko bere gorputza, bere odola, eta bera dan guzia: eta bere atsegin-kontentuenak ditu gurekin egotean. Esadazu orain nere anima; hau guzia egin badu gure amorioz Jesusek, noraño-koa izango da beraren guganako ongina eta

amorioa? *Emen gutxi batean gogoan erabiltzu onginei eta amorio hau.*

Jesus maitagarria! Hau onela, eta ni ala ere zuretzat izan naiz aiñ eskergabea? Zer egin al dezaket nik zure onginei eta amorio baztergabe horri eranzuteko? Zer, ezpada oraindañoko utsegiteaz negar egitea, eta aurrera zu amatze eta serbitzea? Zer, ezpada zugana sarritan etortzea eta adoratzeari? O Ontasun paregabea! Zugan sinisten eta esperatzen det, eta amatzen zaitut biotz guzitik. Lagun zaikizkit, Jauna, Zu amatzen eta serbitzen. Oroi zaite, Jauna, Eliz Ama Santaz, gure Aita Santuaz eta Obispoaz: Oroi zaite gure Jaun Erregeaz, nere aide, ongille eta lagun urko guziaz.

Jesusen anima, birtutez, bete nazazu. Jesusen biotza, zure amorioz erre nazazu. Jesusen gorputza, salba nazazu. Jesusen odola, Zeruko amorioz zora nazazu. Jesusen biotzeko ura, garbi nazazu. Jesusen izerdia, graziaren bizitzaz bete nazazu. Jesusen Pasioa indartsu egin nazazu. O Jesus ona, adi nazazu. Zure llogen eta biotza-
ren erdian gorde nazazu. Zugandik aldegiten ez arren utzi. Etsai galgarriagandik gorde nazazu.

Nere eriotzako orduan dei nazazu. Zeregana eraman nazazu. Zere aldean ipiñi nazazu: Zure Santu ta Aingeruakin alaba zaitzadan sekula guzietan. Amen.— *Emen hiru Aita gure, hiru Abe Maria, eta Gloria.*

OGEI TA AMALUGARREN ERAKUSALDIA

*Noiznai, baña batez ere iñuteriko
azkeneko hiru egunetan eta
ostiraletan Jesus Sakramentatua
bisitatzeko modu erraza.*

Jarri zaite Jesusen aurrean (Elizara ezin datorkeana jarri diteke bere etxean Eliza dagoan alde-
ra): adora ezazu, eta eskeñi giozkatzu zure egun
oetako bisitak, denbora onetan Munduak egiten
dizkan eskergabekeria eta bidegabe itsusiak
nol-erebait ordaintzeko. Gero begira, nolako
eskergabekeriak ekusten dituan Aldareko Sakra-
mentuan. Azkenean egizu Kontriziozko afektoak,
bera sarritan ekusteko edo bisitatzeko asmoare-
kin.

Jesus adoratzea

Sakramento orretan gure amorioz ezkutatu-
rik zauden Jesus maitagarria! Adoratzen zaitut,
Jaungoiko ta gizon egiazkoa, Errege guzien Erre-

gea eta Munduaren Salbatzallea. Ezkeintzen dizut oraingo bisit hau egun oetan Munduak egi-ten dizkitzun txarkeri eta bidegabeen ordaña bezala, eta gisa berean eskeintzen dizkitzut egun oetako nere obra on guziak: eta oekin irabazi ditezkean barkazio edo induljenziak irabazi nai ditut, Aita Santuak adirazten duan fiñerako nere erregu ta lanak egiñaz.

Nolako eskergabekeria, ta bidegabeak ekusten dituan egun oetan Jesus onak Aldareko Sakramentuan

Jesus ona! Etziñan kontentatu gugatik gurutzean bizitza ematearekin; baizik gurekin, edo gure artean bizitzeko geratu nai izan zenduan Aldareko Sakramenduan; ta or zaude gau ta egun, guraso guzien artean onena bezala. *Zuekin nago, diozu, ta egongo ere naiz Mundua Mundu dan artean: hau da nere atsegin-kontentua.* Baña nola eranzun diogu zure ongiñai ta amorio baztergabe oni? Nola erantzuten dioe Kristau askok egun oetan? Eskergabekeria eta bidegabe itsuakin. Atozea ezperen, nere anima. Zenbat, eta zenbat dira, Jaun hau artzera dijko-

zenak Judasen eran, edo biotz loiarekin? Zenbat berandutik berandura baizik Jaun hau artu nai ez duenak, eta orduan ere eziñ geiagoan? Zenbat, Jaun hau arte ondoan Elizatik igesi dijoazenak? Zenbat, Elizan bertan eta Jaunaren begietan federik, begiramentu edo errespetorik gabe daudenak? Eta hau guzia gutxi baliz bezala, egun oetan utzitzen due Jesus beraren ume edo adiskideen eran bizitu diranak ere, askok beintzat. Elkarren leian eta eiera dijoaz Munduko zorakerietara eta bekatuaren bide eta perilletara. Hitz batean, egun oetan ura bezala edaten da bekatua eta kezkarik gabe berriro gurutzefikatzen da Jesus. Zer geiago? Lotsatzen dirala, dirudi Kristauak Jesus egun oetan bisitatzeaz eta adoratzeaz. *Emen zaude denbora pixka batean gauz oek gogoan erabilliaz.*

Nere anima, ekusten dezu, nolako eskerga-bekeria ta bide-gabeak ekusten dituan Jesusek Aldareko Sakrementuan, batez ere egun oetan? Eta hau ezagaturik ere, utziko dezu Jesus bakar-bakarrik, eta joango zera Munduaren zorakerietara? Hau jakin, eta ez diozkatzu zure agur umillak egingo? Ez diozkatzu egungo zere agertu-

txoak edo bisitak? Eta hau ezin badezu, etxetik bederik ez dezu adoratuko? Asko dira oraindaño-ko eskergabekeriak. *Atozte*, dio Jesusek; *atozte nigana neketan zautenak*. O Jesus onginai ta amorio neurririk eta mugarik gabea! Damu det, Jesus, zure kontra egin ditudan eskergabekeria guziaz. Artzen det asmo osoa Zu emendik aurrera sarritan adozteko eta bisitatzeko, etxetik bederik batez ere iñuteriko zorakerien denboran. *Hiru Aita gure, hiru Abe Maria, eta hiru Gloria.*

OGEI TA BOSTGARREN ERAKUSALDIA

*Urteko denbora jakiñetan eta premia
danean egiñ oi diran erregu eta
Letanien gañean.*

Gure Jaungoikoa guziz on eta ongillea da; baña nai du guk ezagutzea, bera dala on guzieren iturburua eta emallea, eta berari eskatzea, Zerurako bidean bear degun guzia: animakoak oso, ta oro, ta gorputzari dagozkanak, Zerurako bidean on izango diran neurrian. Hau ederki erakutsi zigun Jesu Kristok *Aita gurearen* orazio miragarrian, baita beste aldi askotan ere. Bidez dijuan adiskide bat sartzen bazaio zuetako beti, eta ezpadu zer eman; zer egingo du? Joango da auzora, edo beste adiskideren baten etxera, eta ateak joko ditu. Gerta diteke auzoak edo adiskideak oitik jaikitzeke gogo txarra idukitzea, baña beiñ ta berriz eta askotan jotzen badezu atea, onez eta adiskidetasunez ezpada ere, aserrez, eta zu at-ondotik bidaltzeagatik bederik, jaikiko

da, eta emango dizu zere adiskideari ipintzeko bear dezuna. Gañera, zuk zere Aitari eskatzen badiozu ogia, Aitak ogiaren lekuan emango dizu arri koskorra? Eskatzen badiozu arraia, emango ote dizu sugea; eta eskatzen badiozu arraultza, emango ute dizu arrabioa? Ez egiaz. Eta izanik zuek, zeraten bezala, txarrak eta gaistoak, gauz onak umeai ematen badakizue, zenbatez obeto emango dizkitzue zuen Aita Zerukoak bear dituzuen ondasunak, batez ere animakoak? Hau guzia eta geiago gai onetan erakusten digu Jesu-Kristok, eta esaten digu, *Eska ezazue, eta emango zatzue: Oles egizue Aita Zerukoaren ateetan, eta idikiko zaizkitzue.*

Hau ongi ziakianak bezala, S. Markos egunean eta Asenzioren aurreko egunetan egiten diozka Eliz Ama Santak Jaunari bere erreguak era eta modu anziñatik ipiñi zan batean, eta erregu oei esaten diegu: *Letaniak*. San Markos egunekoak ipiñi, edo beintzat zabaldu bide zituan S. Gregoriok eta Asenzioren aurrekoak S. Mamertok. Erregu oek ipiñiak daude Jaunaren aserrea biguintzeko, eta artzen ditugu bitartekotzat Birjiña txit Santa, Zeruko Aingeru ta doatzu

guziak. Eskatzen degu gure bekatuen barkazioa, eta gañera eskatzen ditugu, animarako eta gorputzerako bear ditugun gauza guziak. Erregutzen da Eliza guziagatik, Aita Santuagatik, baita gure lagun urko bizi ta hillak gatik ere. Letaniak, esan dan egunetan ezezik, beste askotan ere egiñ oi dira, batzuetan pakea, besteetan etsaiak garaitzea; batzuetan euria, besteetan ateria; batzuetan gaitz andiren baten aienatzea eskatzen dala. Ainziñako denboretan kristauak modestia andiarekin bildu oi ziran Elizan Letaniak egiteko; prestatzen ziran Jaunaren aserrea gozatzeko ta biguñzeko, eta austerrez bezala autsa artzen zuen buruan. Eta zer egiten due Letanien egunetan oraingo kristauak? Ez ditue ezertan artzen Elizaren usanza eder oek, eta banakaren batzuek ez, beste guziak ez dira agerzen Elizara. Eta datozenetatik batzuek zer egun oi due egun horietan? Batzuek deboziorik batere gabe ibilliko dira Letaniako denboran; besteak sartuko dira an edo emen, eta bear bada eguna igaroko due edanean eta iskanbilla. Hau da Jaunaren aserrea itzalzeko modua? Eta miretsiko gera, baldin uzta-abostu txarrak

ekusten baditugu? Miretsiko gera gure gañera etortzeaz gerra, gaitz edo eritasun izugarriak, gosea eta beste neke-mota guziak? Miretsi gaitezen Jaunaren ontasun eta pazienziak: miretsi gaitezen gure kontra ez etortzeaz errietara artzak, otsoak, katamotz edo tigreak, leoiak eta beste pistia guziak.

Nere anima, zu izan zaite kontuzkoa Letanietara etortzeko, eta gertatzen bazatzu, etortzea eragozten dizun gauzaren bat, etxetik erregu gionu Jaunari, enzun ditzala Eliz Ama Santaren eskariak. Onetarako gauza ona izango da lenengo lekuan goizeko jaiera egitea, laugarren Parte onetan ogei ta bigarren Erakusaldian ipiñi dan bezala. Gero esan dezakezu, oraiñ ipiñiko dan ofrezimentu edo eskeñia.

Nere Jaun eta Aita maitagarria, eskeintzen dizkitzut Eliz Ama Santarekin batean gaurko Letaniak. Aitortzen det, ez naizala oek zuk aditzeko diña, baña ala ere uste det, enzungo dezula zure Elizaren erregua, eta emango diguzula oraingo premia onetan bear degun laguntza, Zu obeto onratzeko ta serbitzeko. Jauna ixuri ezazu zure bendizioa erri onetan, eta Elizaren ume

guzietan; gorde gaitzatzu bekatutik eta eriotza
gaistotik. Amen.

OGEI TA AMASEIGARREN ERAKUSALDIA

*Euskaldun onak bere bataioko
egunaren urte-betean egin bear
lukeana.*

Anima on askok urte oro egiñ oi due beren bataioko egunaren oroipena, eta oni deitzen diogu *urtebetea*, edo *urte urrena*. Egun onetan konfesatzen dira. Gero begiratzen due kontuz, Nork ta nola altxa dituan kristauaren izate eta onra andira. Zein miragarriak diran onra onekin batean artu zituen ondasunak. Azkenean ematen diozkee Jaunari eskerrak, eta berritzen ditue bataioko egunean emandako hitzak. Hau bera egin dezakezu zuk ere, nere anima, urte oro zure bataioko egunean, edo aurreko igandean. Onetarako emen ipiñiko zatzu modu erraz bat, konfesatu ondoan bataioko egunaren oroipena ongi egiteko.

Lenengo pensamentua

Nork altxa zaituan kristauaren izate eta onra andira? Kristaua zera, nere anima. Nondik dezu izate eta onra hau? Nork altxa zaitu onra ain andira? Altxa ote zaitue zure obra onak? Baña zer onra on izan zintzakean, Adanen bekatuarekin loitua bazeuden zere sortzetik? Zer obra on egingo zenduan onaren eta gaitzaren ezaguera-rik ezpazenduan artean? Altxa ote zaitue zure gurasoak, edo aurreroak? Ez; horietatik alabaña ez dezu bekatuan sortua izatea besterik. *Orra, zion Dabidek, gaistakerian sortua naiz; bekatuan sortu ninduan nere amak.* Ote datorkizu kristauaren izate eta onra, zeren kristau-errian sortu ziñan? Ez; ezin konta al hiltzen dira alabaña kristau errietan bataiorik gabe. Etzaitezela alferrik nekatu; Jaunaren ontasun eta urrikimentuak bakarrik altxa zaitu kristauaren izate eta onra andira. Argatik Dotrinak esaten dizu, *kristaua zerala Jainkoaren graziaz* edo mesedez. Nere Jaungoikoa! Ezin konta al anima utzi dituzu bataio gabe, eta niri egin didazu mesede eta onra hau? O ontasun eta urrikimentu miragarria!

Bigarren pensamentua

Nola altxa zaituan Jaunak onra onetara.

Begira, nere arima, bigarren lekuan, nola altxa zaituan Jaunak kristauaren izate eta onra orretara. Gauz arrigarria! Ekusi zuan Jaunak, Adanen bekatuarekin galdu zenduala Zeruko grazia eta arako esku guzia: eta zuri hau biurtzerro, jatxi zan Zerutik, edo gizon egin zan Trinidadeko bigarren Persona. Eman zuan zugatik gurutzean bere bizitza, ipiñi zituan zazpi Sakramentu ta oen artean bat Adanen bekatua, edo jatorrizkoa zuri barkatzeko. Ekusten dezu, nola, eta zenbat nekeren kostuz altxa zaituan Jaunak kristauaren izate eta onrara?

Hirugarren pensamentua

*Zeiñ miragarriak diran onra onekin
batean artu dituzun ondasunak.*

Begira hirugarren lekuan, zeñ andiak eta miragarriak diran kristauaren izate eta onrarekin batean artu zinduan ondasunak. Ozta bataiatzailak esan zituan Sakramentu oni dagozkan hitzak, ixurtzen zuala zure gañera bear zan ura, une edo puntu artan bertan Espiritu Santuak janzi zinduan graziaren soñeko ederrarekin, eta aienatu zuan bekatu jatorrizkoa, edo orijinala; apaindu zinduan Fede, Esperanza eta Karidadearen birtuteakin ta oekin batean ixuri zituan zugan bere doaiak; egin zinduan Jainkoaren beraren ume ta adiskide, Jesu-Kristoren senide, eta Espiritu Santuaren Jauregi, edo Eliza bera. Eman zizun azkenik Zerurako esku edo deretxa, egiten zinduala ango jabegai. Aditzen dezu, zer ondasunak artu zinduan kristauaren izate ta onrarekin batean?

Zer ordaiñ, arriturik esan dezakezu, nere anima; Zer ordaiñ emango diot Jaunari eman diz-

kidan ondasun oek gatik? Garbi gorde bear nuan nik bataioko egunean eman zidan graziaren soñeko ederra, eta hau adirazten zuan eskuetan ipiñi zideen zapi zuriak. Baña, ai! ainbeste bider loitu det, eta galdu soñeko eder hura!

Zer ordaiñ emango diot Jaunari egin dizkidan mesede oek gatik guziak gatik? Adi ezazu zer esaten dizun berak: *oroi zaite zeñ onra anditik amildu zeran, bekatu egin dezunean*, eta biur zaite zure Jaunagana: ez eransi, edo ez egotzi bekatua bekatuari.

Zer ordaiñ emango diot gañera nere Jaun eta ongille ezin andiagoari? Egizu bataioko egunean agindu zenduana, esaten dizu.

O ontasun baztergabea! Milla esker, Jauna, gaurdaño egin dizkidatzun ontarte eta mesede guziak gatik, baña batez ere zeren bataioko egunean eman zeñidan kristauaren izatea eta onra. Hau da onra guzien artean andiena eta guzien zimendua. Bedeika zaitzeela Zeruak, lurrak eta gauza guziak. Aitortzen det zeñ gaizki eranzun diedan zure mesede oei, eta zer egin dezaket Jauna ezpada damuz eta negarrez nere eskerga-bekeria itsusia alegiñean desegitea? Zer egin al

dezaket, ezpada urte oro eta sarritan bataioko nere hitzak berritzea? Egun artan eman nizun Satanas eta Satanasen lagunak betiko utzitzeko, hitza. Hitz hau bera ematen dizut berriro. *Abrenuntio*. Egun artan eman nizun Satanasen lan guzietatik, edo bekatutik eta bekatuaren bideetatik aldegiteko, hitza. Hitz hau bera ematen dizut gaur betiko. *Abrenuntio*. Egun artan eman nizun Satanasen arrotasun, ponpa eta zorakerietatik aldegiteko hitza; eta gaur hau bera ematen dizut. *Abrenuntio*. Erabaki det, Jauna, Zu amateza ta serbitzea benaz eta biotz guziarekin. Lagun zaizkizkit arren, asi dedan egiteko andi oni jarraitzen eta onetan irauten. Amen.

OGEI TA AMAZAZPIKARREN ERAKUSALDIA

*Euskaldun onak urtearen bukaeran
egiñ bear duana.*

Asko lekutan urtearen bukaeran egiñ oi omen da fest andi bat, konfesatzen dira Kristau onak; egiten da Sermoia, eta gero Jaunari eskerrak emateko kantatzen da *Te Deum*. Ezta gure errietan onenbesteraño azi, ez zabaldu jaiera eder hau. Baña zuk, nere anima, urtearen bukaeran egizu Konfesio on bat: gero begira ezazu, lenengo lekuan, zertako eman dizun Jaunak igaro dan urtea beste gauz askorekin. Bigarren lekuan, zeñ gauza bearra dan, Jaunak ematen digun denbora ez galtzea. Hirugarrera, nola igaro dezun joan dan urtea beste oraindaño guziazkin batean. Eman giozkatzu Jaunari eskerrak, zeren bizitza gorde dizun oraindaño, eta ainbeste mesede egin dizkitzun. Eska zaiozu zure eskergabekeria guzien barkazioa; berritu itzatzu, bataioko egunean eman zinduan hitzak, aurreko

Erakusaldian bezala. Ara nola egiñ dezakezun hau.

Lenengo pensamentua

Zertako eman dizkitzan Jaunak igaro dan urtea, eta beste ondasunak.

Nere anima! Zure jaun onak eman dizu igaro dan urtea, baita zure bizitzako guziak ere. Egin dizkitzu bitarte orretan nortaki zenbat ontarte eta mesede. Asko eta asko hil dira denbora orretan, eta batzuek zu baño gazteagoak, sendoagoak, eta gure ustean zu baño bearragoak: eta zuri gorde dizu bizitza, eman dizkitzu bizitzeko bear zinduan gauzak. Gañera, nolako erak, eta zeñ ederrak ez dizkitzu prestatu animarako? Zertako eman ote dizkitzu bada Jaunak igaro dan urte hau eta gañerako gauzak? Zertako, zure fiñ goimiragarria billatzeko baizik? Hau da zure Jauna ezagutzea, amatzea eta betikotasun guzian berarekin batean Zeruan doatsu izatea. Hau da, ez besterik, zure fiña, ta hau billatzeko eman

dizu igaro dan urtea, eta beste askori ukatu die. Nondik, nere anima; nundik onenbeste mesede?

Bigarren pensamentua

Zeiñ gauza bearra dan, Jaunak ematen digun denbora ez galtzea.

Gauza guziak egin ditu, eta egingo ditu Jaunak, bakoitza bere neurri ta pisuarekin. Neurtuak, kontatuak eta pisatuak daude beraz bakoitzaren urteak, illak, asteak eta egunak, eta ez da iñor ere neurri onetatik igaroko. *Laburrak dira, Jauna, zion Job Santuak, gizonaren egunak, eta zugar gordea dago zenbat diran beraren bizitzako illak. Ipiñi diozkatzu gizonaren bizitzari zerorrek dakizkitzun mugak, eta ezin oetatik igaro diteke.* Emendik atera ezazu, lenengo lekuan, zeñ zentzugabekeria andia dan esatea: *Jaunak emango dit bizitza ontzeko denbora: gero onduko naiz.* Ez da gure Jaungoikoa gizona bezala aldakorra; eta beragatik zuretzat neurtu eta markatu duan denboraren mugak ez ditu aldatu-

ko. Oek gaizki igarotzen badituzu, galduko zera betiko. Atera ezazu, bigarren lekuan, guziz bearra dala, Jaunak ematen digun denbora ez galzea. Argatik dio S. Paulok: *Denbora degun bitartean dagigun ongia.*

Hirugarren pensamentua

Nola igaro dezun, joan dan urtea, beste oraindako guziakin batean.

Hau guzia, zure siniste edo fedea erakusten dizun egia da, nere anima. Eta ala ere nola igaro ote dezu juan dan urte hau. Nola gañerakoak ere? Igaro ote dituzu Jauna amatzen eta serbitzen? Igaro ote dituzu Jaunaren Hitza eta Dotriak enzuten? Sakramentuak ongi eta sarritan artzen? Zure griña txarrak ezitzen, hilduratzen eta eskuratzen? Igaro ote dituzu zure estatu eta karguaren egin-bideai erantzuten; eta bizitz onarekin etxekoai eta beste lagun urkoai Zerurako bidea erakusten? Ai, nere anima! Hau egin lekuan igaro dituzu joan dan urtea, ta beste

guziak bekatua bekatuaren gañean egiten. Ezta zure urte guzien artean arkitzen bat bakarra ere, obra onetan, eta Jainkoa serbitzen igaro dezunik. Baña zer diot nik urte bat, ezpada arkitzen ill bat; aste bat, ez eta egun bat ere, Jaunaren serbitzen osotoro igaro dezunik? Igesi ibilli zera Jainkoaren Hitzagandik eta Dotrinatik, edo entzun dituzu, frutuaren gose ta egarri gabe eta besterentzat bakarrik balira bezala. Igesi ibilli zera Sakramentuetatik, eta zure bizitza izan da askorentzat bekaturaro bide ta sarea. O itsumen izugarria! Ta ala ere zure Jaun onak itxedon dizu!

Nere Jaun eta Jaungoikoa! Milla esker, zeren igaro dan urte hau, eta oraindañoko guziak eman dizkidatzun. Milla esker, horietan egin dizkidatzun ontarte eta mesede guziak gatik. Lotsatzen naiz, Jauna, Zu serbitzen eta amatzen igaro bear nituan egunak aiñ gaizki igaroaz. Damuturik arkitzen naiz zure kontra egin ditudan bekatuaz, eta asmo osoarekin aurrera ematen dizkidatzun egunak Zu serbitzen igarotzeko. Zoaz nigandik etsai galgarria: utzitzen zaitut gaurdanik betiko. *Abrenuntio*. Zoazte nigandik Mundu gaistoa eta bekaturako sare eta lazoak zabaltzen

dituzuen guziak. Zoazte nigandik bekatua ta bekatuaren bideak; gaurdanik betiko utzitzen zaituet. *Abrenuntio*. Zoazte nigandik Munduaren zorakeriak eta arrotasunak, ala janzian, nola beste gauza guzietan. *Abrenuntio*. Ala agindu nizun, Jauna, bataioko egunean, eta ala orain ere agintzen dizut: Zu zera nere Jaun eta Jaungoikoa, nere Aita ta lagunzallea; indazu bada zure grazia ta lagunza ugaria, eta egingo det leialki gaur agindu dizudan guzia Amen.

Irakurleari

Mezaren enzun-bidea da urrengo Erakusaldian ipiñi uste dedan gauza. Batzuei agradatzen zate modu bat, besteai beste bat; baña guzien artean errazena eta fruturik geiena ekarri oi duena da noaski Jesusen neke-oñaze eta gurutzeko eriotza gogoan erabiltzea, ta emendik biotza mugitzea bekatuen damura, Jaunaren ongina ta amoriora; eta gogozko Komunioa egitea, bigarren Partean esan den bezala.

OGEI TA EMEZORTZIGARREN ERAKUSALDIA

*Meza entzuteko bide edo modu
erraza.*

Zoaz Elizara mugonean, ta zertara zoazen gogora ekartzen dezula. Jarri zaite belauniko, eta Ebanjelioko denboran ez, beste guzian zaude onela, al dezunean, Meza errezatuetan bederik. Ebanjelioko denboran zaude txutik, adirazten dezula, prest arkitzen zerala, Jaunak Ebanjelioan aginzen dizkigun gauzak egiteko. Adora ezazu, Jauna, ta eskeñigiozu, enzutera zoazen, Meza, era onetan.

Trinidade guziz Santa, Aita ta Semea ta Espiritu Santua, Jainko bat bakarra, eta hiru Persona zerana. Adoratzen zaitut umiltasun eta errespeto guziarekin. Eskeintzen dizut enzutera noan Meza hau, lenengo lekuan: Zuri gauza guzien Asiera eta iturburuari bezala, onrarik andiena emateko. Bigarrena, egin dizkidatzun ontarte eta mesede guzien esker zure diñakoak emate-

ko. Hirugarrena, nere eta lagun urko biziaren bekatuen barkazioa iristeko. Laugarrena, Purgatorio-ko animen alde. Azkenean eskintzen dizut Jesus maitearen ofrenda au, eman degidazun Zerurako bidean bear eta on izango dedan guzia, batez ere bekatutik aldegitoko eta bizitz onean irauteko doaia.

Mezaren asieratik Sagararaño oroi zaite ondo, ostegun Santu arratsetik Jesusek igaro zituan neke-oñazeaz, eta nola bigaramonean eman zuan gurutzean bere bizitza

Irteten da Apaiza Mezaren Sakrifizio izugarria eskeintzera. Irten zan Jesus Jerusalendik Jetze-maniko baratzara gugatik Aita Eternoari Pasioko neke-oñazeak eta bizitza eskeintzera. Asitzen da bere Aitari erregutzen; ekusten ditu animako begien aurrean Munduaren bekatu guziak, eta oek gatik igaro bear dituan nekeak. Ekusten du, geienak ala ere utzi naiko ez duela bekatua, eta galduko dirala; eta oetatik bat izango dala Judas. Illuntzen eta tristuraz betetzen zaio barren guzia: izutzen due pasioko neke oñazeak, ta

eskatzen dio Aitari, *igaro dedilla Pasioko Kaliza berak edan gabe. Ala ere egin bedi, esaten dio, Zuk nai dezuna, eta Zuk nai dezun eran.* Jartzen da odolezko izerditan eta hiltzeko zorian.

Nere anima: Zure eskergabekeriak eta bekatuak onenbesteraño nekatzen due Jesus, eta zu etzera mugituko oen gañean negar egitera, eta bizitz on bat artzera?

Jetzemaniko neke oen ondoren bereala asi ziran neke, oñaze eta naigabeen ujola berriak. Badator Judas Saltzallea eta adiskidearen idurian ipintzen du Jesus bere etsaien atzaparretan. Iges egiten due Apostoluak. Badarabilte Jesus Jerusalem en etxez etxe, Kalez Kale, emen zorotzat, an Munduan zan gizonik errebesena ta gaiztoena bezala. Zeatzen eta urratzen due azotez. Begira, nere anima, nola utzi duen zure bekatuak Jesus! Burutik asi, ta oñeteraño zauri bat egiña dago guzia: eta ala ere zuri onginaiez ontzat artzen ditu ainbeste neke ta oñaze. Eta Jaun hau ez dezu amatuko ta serbituko?

Jesusen borrero ta etsaiak etziran ala ere aspertu eta ase beraren odolez. Aditu zuen, Juduen eta Isreeltarren Errege egin nai izan

zuala bere burua eta aitzakia onekin ekin zioen bidegaberik andienak berriro asmatzeari. Kentzen diozkee bere soñekoak oñaze andiakin, eta utzitzen due lotsa andian. Janzitzen dioe soñeko gorri bat. Erregeren idurian ipintzeko. Sartzen dioe buruan aranzazko Koroa bat, nortaki zenbat oñazerekin. Ipintzen dioe Erregeren zetro edo bastoitzat kañabera bat; eta asitzen zaizka isekaz, Erregeri bezala agurrak egiten. Zer geiago? Loitu zioen aurpegi eder hura beren karkaixa eta txistu zikiñakin. Begira Errege guzien Errege eta guzien Egilleari pauso onetan! Ai! Eta hau nigatik? Adora ezazu, nere anima, adora ezazu zure Jaungoikoa, zure Erregea eta Salbatzalea.

Etziran oraindik juduak Jesus nekatzez asperitu. Kuturtu zuen Pilatos, Jesusi gurutzean bizitza kentzeko, Sententzia ematera. Ipintzen dioe soñean bere gurutzea. Asitzen da Kalbariorako bidean; baña, igaro zituan arratsa ta goiza igaro ondoan, nola joan al zitekean Jesus Kalbarioko mendira? Erorka noaski, eta borreroak eztenka ta ostikoka eraikitzen zuela! Eta bidean geldi zekien beldurrez, gurutzea eramateko eman zioen laguntzat Simon zeritzan Zireneko gizon

bat. Onenbesteraño nekatu eta aunatu zuan Jesus nere bekatuen kargak!

Noiz bait iritsi zan Jesus Kalbarioko mendira. Josten due gurutzean iltze sendoakin. Agertzen da Munduaren Salbatzallea gurutzean josia, ta lapur biren erdian. Miragarriak dira denbora onetan gertatu ziran gauzak. Janzi zan Zerua beltzez, ukatzen ziozkala eguzkiak bere argi ederrak lurrari. Erregutu zion Jesusek Aita Eternoari bere etsaien alde. Lapur onduari agindu zion Paradisoa. Hitzegin zion bere Ama maite penaz eta naigabez beteari. Aditzera eman zion Aita Eternoari len, ta gero zeraman neke izugarria. Agertu zuan egarri andi bat, eta eman zioen ozpiña. Esan zuan orduan: *Bukata da*; bukatu dira, Eskritura Santak eta Profetak nere pasioaren gañean anziñatik adirazi zituen gauzak, eta egin det nik nere gaiñ artu nuan egiteko andia. Egin zuan ots andi bat esaten zuala: *Aita, zure eskuetan uzten det nere espiritua*. Hil zan Jesus munduaren Salbatzallea.

Ekusten dezu, nere anima, zer neke oñazeak gure amorioz igaro zituan Jesusek? Ekusten dezu nola gurutzean eman zuan bere bizitza? eta

eztakizu Meza Santua dala Jesusen neke-oña-
zeen, eta gurutzeko eriotzaren Anza, iduria ta
Oroipena! Ala aditzera eman zigun San Paulo
Apostoluak. *Emen gogoan ongi erabilli ezazu
nolako onginei eta amorioa zor diozun Jesus
onari.*

Sagarako denboran

*Denbora onetan zaude ixillik, Konsagrazioko
hitzakin egiten diran gauza miragarriak gogora
ekarriaz. Jauna altxatzen duanean Apaizak, egin
giozkatzu Jesusi zure agurrak, eta ongi-etorriak.
Esaiozu.*

Nere Salbatzalle guziz maitagarria! Ongi eto-
rria izan zaitezela. Adoratzen zaitut nere Jaun-
goikoa, Errege guzien Erregea eta Munduaren
Salbatzallea. Bedeika zaitzeela Zeruko Ainge-
ruak eta doatsu guziak; bedeika zaitzeela anima
on guziak, eta kanta dezela Eliza guziarekin:
Bedeikatua Jaunaren izenean etorri zakuna.

Egitzu Fede, Esperanza, Karidade, ta Kontriziozko afektoak

Jesus ona! Nere animaren bizitza eta doata-suna! Zu zera Trinitadeko bigarren Persona. Zu, guretzat Zerurako grazia eta esku edo deretxa irabazteko, gizon egiñ ziñana, ta ainbeste neqe-oñaze, ta azkenik gurutzeko eriotza igaro zinduana; hirugarren egunean piztu, eta gero Zerura igo ziñana. Zu, Zeruan dezun jarlekua utzi gabe, Meza Santuan gugana etorri Zerana. Zertara ote? Gugatik igaro zenduan gurutzeko erioztaren oroipena guri berritzera. Zertara geiago? Gurekin eta gure artean bizitzera, guri ematera zure gorputza, anima, odola eta zeran guzia. O Ontasun miragarria! Sinisten ditut Misterio hoek guziak, zeren Zuk agertu diozkatzun Eliz Ama Santari, eta onek ala erakusten dizkidan. Esperatzen det, Jauna, zugaran nere bekatuen barkazioa eta betiko bizitza, zure lagunzarekin bekatutik aldegiten, eta bizitz onean irauten dedala. O Edertasun paregabea! Zeiñ berandu ezagutu zaitudan! Zeiñ berandu amatu! Amutzen zaitut biotz guzitik; eta zure izenean amutzen ditut nere lagun urko guziak. Ai! Eta utzi nik Zu ain-

beste bider! Izan ni noizbait zure etsai andietatik bat! O pena! Ojala lenago milla bider hil baninz! Damu det Jauna, eta damu det zure ontasun baztergabeari begiraturik: arzen det asmo osoa ez geiago bekaturik egiteko.

**Agertu giozu Jesusi bera zure biotzean
artzeko gose ta egarri andi bat, eta hau
da gogozko Komunioa**

Zeiñ andiak eta ugariak diran, Jesus maitagarria, zure serbitzarienzat Sakramentu orretan gorde dituzun ondasunak! Zori onekoak Sakramentu hori ongi artzeko eran prestatuak dauden animak! Zori onekoak, zeren zurekin bat egingo diran. Zori onekoak, zeren betiko bizitzaren emallea bera eta doatasun guziaren Iturburua berengan idukiko duen. Zori onekoak, zeren zure gozotasun miragarriak progatuko dituen. Zori onekoak atzenean, zeren etsai guziak garaitzeko indarrez beteko dituzun. Nai nuke, Jauna, nik ere Zu nere Ongille andia, nere biotzean idukitzea, baña aitortzen det; *ez naiz ni Zu nere etxean sartzeko diña*. Ala ere fedeak erakusten dit, Zuk egin ditzakezula Sakramentua artu gabe ere,

Sakramentuarekin egiten dituzun mesedeak. Asko da Zuk nai izatea: asko da Zuk hitz bat esatea, guzia egiña geratzeko. Esazu bada, nere Jesus ona, hitz bat, eta nere anima sendatuko da, eta artuko ditu, guretzat ekarri dituzun ondatsunetatik Zuk nai dituzunak, eta nai dezun neurrian. Amen. *Hau egiten da Apaiza Komulgatu artero denboran, ez lasterka, baizik soseguz.*

Jaunari eskerrak, Komunio ondoko orazioak Apaizak esaten dituan bitartean

Esker milla, Jauna, zeren gugana etorri nai izan dezun, eta gure onerako eskeñi diozun Aita Eternoari, gurutzean eskeñi zenion Sakrifizioa bera.

Apaizak bendizioa ematean

Trinidade guziz Santa, Aita ta Semea ta Espiritu Santua! Meza eman duan Apaizak orain dion eran, indazu Zure bendizioa, egun hau, eta beste guziak igarotzeko Zu adoratzeko, serbitzen eta amatzen.

Mezaren bukaeran

Jauna, Zure baimenarekin banoa orain nere lan eta egin bideai erantutera. Lagun zaikizkit oek zure onran eta gloriarako egiten. Ala biz.

OGEI TA EMERETZIGARREN ERAKUSALDIA

*Aurrag Meza laguntzen ongi
ikasteko, Eskola-Maisuetatik aditu
bear litukeen zenbait gauza.*

Nai dezu ikasi Meza ongi laguntzen? Aditu bada arretarekin esatera noan gauz oek. 1.^a Garbitu bear dituzu eskuak. 2.^a Asitzen danean Apaiza Mezarako soñekoak ipintzen, eman zaiozu gerrikoa edo *Zingulua albaren* gañetik, esku batarekin erz bata, ta bestearekin bestea. Hau egiten da Mezemallearen atzetik. 3.^a Albaren beko ertzak ipiñiko diozkatzu berdiñ eta aldarririk gabe, lurra baño beatz betez gorago. 4.^a Prestatua ezpadago Aldarea, eramaitzu Misala ta argiak: ipintzu Misala bere lekuan ez idikia batzuek egiten duen bezala, baizik itxia. 5.^a Ez dira Kandelak erazeki bear, Meza esatera Apaiza dagoan Aldarean, baizik lanparan. 6.^a Mezemallea dijoanean Aldareaurrera, argiozu eskuieko aldetik bonetea (bonetaduna bada); ipintzu Alda-

re ondoko edo alboko maitxoan. An egon bear due ardoaren eta uraren onziak ere. Aldarearen aldean mairik ez danean, ipintzu bonetea al dezun lekuan. 7.^a Mezaren asieran jarri zaite Apaizaren ezkerretik belauniko, ez Apaizaren parean, baizik atzeraxeago: eta beti egon zaite Misala ez dagoan aldetik: Misala badago Epistolaren aldetik, zuk egon bear dezu Ebanjelioarenetik; eta Misala dagoanean Ebanjelioaren alde-tik, zu egongo zera bestetik. 8.^a Ebanjelioa esaten dan bitartean, eta Apaizari zerbait ematen diozun denboran, zaude zutik, baña gañerakoan belauniko. 9.^a *Confiteor Deo* esaten ari zera-nean, hitz oetan: *Et tibi Pater, Et te Pater* Itzuli ezazu gutxi bat burua Apaizaganonz. Ez esan, batzuek bezala, *Et vovis fratres, et vos fratres*, zeren Mezemalleak bakarrik onela esan bear duan. 10. *Kyrie eleysonak* esan oi ditu Mez-emalleak berak, berak, zeren laguntzalle gutxi diran dakienak nola eranzun, baña obeto izango lizake biak txandaka esatea, gero ipiñiko diran eran. 11. Aldarearen alde batetik bestera igarotzen zeranean, belaunika zaite erdian belaun batarekin. 12. Garizuman Profezien ondoren Mez-ema-

Ileak esaten du. *Flectamus genua*; eta eranzuten zaio: *Levate*: eta Profesia bakoitzaren bukaeran eranzuten da: *Deo gratias*. 13. Garta-tenporetan hau bera egiten da, ez ordean larunbatean azkeneko Profesiaren ondoren. Era berean ez da erantzuten *Deo gratias*. Ostiral Santuz, ta larunbat Santuz Profezien ondoren, ez eta askoren iritzian Espiritu Santuaren Pazkoaurreko larunbatean ere. 14. Ogiardoak eskeintzera dijoanean Apaiza, ez dezazula kendu Kalizaren estalkia, eta are gutxiago patenarena, zeren Mez emallearen egitekoa dan hau; baña ongi dirudian gauza da Kalizaren estalkia dolestatzea. 15. Apaizak Kalizara ardoa bota nai duanean, arrezazu ardonzia, muñekin, eta emangiozu Apaizari berari kirtenez arganonz. Ezaio onziari baizik muñegiten. 16. Gero arrezazu uraren onzia; ipiñi giozu aurrean prest Mez-emalleari, artu dezan bear dan ura: eta hau egiñ ondoan, eramango dituzu onziak beren tokira. 17. Prestatuko dezu, Aldarearen ertzean Epistolaren aldetik dagoan, Esku-zapitxoa: artuko dezu esku ezkerrean platera, eskuiean uraren onzia, eta botako diozu Apaizari ura beatzetara, oek garbitzera datorrenean.

Mez-emalleak dionean *Orate fratres*, zaude ixilik *Abe Maria* bat esateko denboran, eta gero ezazu: *Suscipiat Dominus &c.* 19. Mez-emalleak dionean *Sanctus*, jo ezazu txintxerria hiru bider, aldi bakoitzean bi golperekin (Denbora onetan Eliza batzuetan ipintzen due Korporalen aldame-nean Epistolaren aldetik Kandela erazeki bat, len zeudenaz gañera, eta itzaltzen due Komunioa bukatzean). 20. Ostia Konsagratua altxatzeko denboran jo ezazu txintxerria hiru bider, aldi bakoitzean bi golperekin, lenbizia Konsagrazioko hitzak esanik belaunikatzen danean Apaiza; bigarrena goratzen duanean Ostia Konsagratua, hirugarrena beeronz dakarrenean. Hau bera egizu Kaliza Konsagratzen duanean. 21. Txintxerria ez da jotzen *Sanctus*-eko eta Konsagrazioko denboran baizik, eta beste denboraren batean jotzen badue zenbait lekutan, hori ez da Elizaren Zeremoniak ala agintzen duelako, baizik zeren Sakristauren batzuei ala gogoak eman dien. 22. Apaizak goratzen duanean Ostia Konsagratua, jasotzen da Kasullaren beko ertza pixka bat, eta hau bera egiten da Kaliza altxatzen duan denboran ere 23. Apaizak Jauna arzero edo komulga-

tzera dijoanean, arritzatzu uraren ta ardoaren onziak, jarri zaite belauniko beraren aldean: altxa zaite gero, eta bota giozu lenbizioan ardoa bakarrik Kalizara, eta bigarrengoan ardoa eta ura beatzen gañera (*atzen* esaten due beste leku askotan). Ez dezu onziarekin ukitu bear, ez Kaliza, ez Apaizaren beatzik. 24. Ipiñi itzatzu ardoaren ta uraren onziak beren lekuan: arritzatzu Kalizaren eta patenaren estalkiak, eta eramaitzu beste aldera — eta andik alda ezazu Misala Epistolaren tokira. 25. Ez dezazula estali zerorrek, ez patena, ez Kaliza: eman zaiozu eskuetara Apaizari beiñ patenaren estalkia (baldin badu), eta gero Kalizarena. 26. Apaizak, Komunioaren ondorengo orazioa, edo orazioak esan ezker, utzitzen badu Misala zabalik, igaro ezazu hau Ebanjelioaren aldera. 27. Azkeneko Ebanjelioa bukaturik, beera datorrenean Apaiza, eman giozu bonetea eskura. 28. On lizake Eliza bakoitzean Meza laguntzen duen mutillentzat ipintzea janzi egokiak. 29. Meza bitartean Komunioa eman bear bada, presta itzatzu Sagrarioko giltza eta Komuniorako zapia; eman giezu hau Komulgatzeko daudenai, eta esazu *Confiteor Deo, &c.*

30. Apaizak Komunioa emateko denboran, Komulgatzen dan bakoitzari esaten dio: *Corpus Domini nostri Jesu-Christi custodiat animam tuam in vitam aeternam: eta berak esaten du: Amen.* Argatik es dezazula eranzun zuk, askoren gisara, *Amen.* 31. Mez-ondoan Komunioa ematen bada, egizu orain esan dana bera. 32. Mezaz kanpora ematen danean, prest ipintzu giltza, beatzak garbitzeko apaizak bearko duan ura eta esku-zapia; gero Komunika emateko denboran esazu *Confiteor Deo.* Hau esaten da, Kopoia ateratzen duanean Apaizak Sagrariotik Korporalen gañera. 33. Apaizak batzuetan, Komunioa ematen duanean Mezaz kanpora, egiñ oi du oraiñ esango dedana: badijoa Aldare aurrera, eta asitzen da esaten: *In nomine Patris &c. Adjutorium nostrum &c. Confiteor Deo &c.* eta laguntzalleak eranzuten dio: *Ad Deum, qui laetificat &c Qui fecit Coelum &c. Confiteor &c.* Gañerakoa da len esan dan bezala.

Mezaren mamia edo Sustanzia Munduko leku guzietan bat da; baña ezta guzietan esaten Zeremonia berdiñakin. Erromako Misalak dakartzian Zeremoniak esaten due Apaiz Sekularrak,

baita Erlijioko ordenetako batzuek ere. Baña Santo Domingoren Ordenakoak, Karmergoak, San Bernardorenak, Kartujarrak esaten due beren modura. Toledon bada Kapilla bat non esaten dan Meza, Españan anziña esaten zan gisara, eta deitzin zaio *Mozarabeen Meza*. Emen ipiñiko da Meza laguntzenko modua, Apaiz Sekularrai eta Erromako Misalak dakarren eran esaten duenai.

BERROGEI GARREN ERAKUSALDIA

*Erromako Misalak dakarren eran
Meza esaten duan Apaizari
laguntzeko modua.*

Apaizak dio: In nomine Patris, & Filij & Spiritus Santi. Amen.

Introibo ad Altare Dei.

Laguntzalleak erantzuten du: Ad Deum, qui laetificat juventutem meam.

Ap. Judica me, Deus, & dicerne Causam meam de gente non sancta, ab homine iniquo, & doloso erue me.

Lag. Quia tu es Deus fortitudo mea, quare me repulisti, & quare tristis incedo, dum affligit me inimicus.

Ap. Emitte lucem tuam, & veritatem tuam, ipsa me deduxerunt adduixerunt montem Sanctum tuum, et in tabernacula tua.

Lag. Et introibo ad Altare Dei, ad Deum, qui laetificat juventutem meam.

Ap. Confitebor tibi in cithara, Deus, Deus meus, quare tristis es anima mea, & quare conturbas me?

Lag. Spera in Deo, quoniam adhuc Confitebor illi, salutare vultûs mei, & Deus meus.

Ap. Gloria Patri, & Filio, & Spiritui Sancto.

Lag. Sicut erat in principio, & nunc, & semper, & in saecula saeculorum. Amen.

Ap. Introibo ad Altare Dei.

Lag. Ad Deum, qui laetificat juventutem meam.

Ap. Adjutorium nostrum in nomine Domini.

Lag. Qui fecit Coelum, & terram.

Ap. Confiteor Deo::: Et vos fratres orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

Lag. Misereatur tui Omnipotens Deus & dimissis peccatis tuis perducatur te ad vitam aeternam.

Ap. Amen.

Lag. Confiteor Deo Omnipotenti, Beatae Mariae; semper Virgini, Beato Michaeli Archangelo, Beato Joani Baptistae, Sanctis Apostolis Petro, & Paulo, omnibus Sanctis, & tibi. Pater; quia peccavi nimis cogitatione, verbo, & opere,

mea culpa, mea culpa, mea maxima culpa. Ideo precor Beatam Mariam Semper Virginem, Beatum Michaellem Archangelum, Beatum Joannem Baptistam, Sanctos Apostoles Petrum, & Paulum, omnes Sanctos, et te, Pater, orare pro me ad Dominum Deum nostrum.

Ap. Misereatur vestri Omnipotens Deus, & dimissis peccatis vestris perducatur vos ad vitam aeternam.

Lag. Amen.

Ap. Indulgentiam, absolutionem, & remissionem peccatorum nostrorum tribuat nobis Omnipotens, & misericors Dominus.

Lag. Amen.

Ap. Deus tu conversas vivificabis nos.

Lag. Et plebs tua laetabitur in te.

Ap. Ostende nobis, Domine, misericordiam tuam.

Lag. Et salutare tuum da nobis.

Ap. Domine, Exaudi orationem meam.

Lag. Et clamor meus ad te veniat.

Ap. Dominus vobiscum.

Lag. Et cum spiritu tuo.

Hillen edo *Requiem*-go Mezan apizak sarre-
ran dio: *In nomine Patris... Introibo ad Altare Dei:*
gero *Adjutorium nostrum in nomine Domini.*
Urren: *Confiteor Deo* &c. gañerakoa emen ipiñi
dan eran.

Ap. Kyrie eleyson.

Lag. Kyrie eleyson.

Ap. Kyrie eleyson.

Lag. Christe eleyson.

Ap. Christe eleyson.

Lag. Christe eleyson

Ap. Kyrie eleyson.

Lag. Kyrie eleyson.

Ap. Kyrie eleyson.

Ap. Dominus vobiscum.

Lag. Et cum spiritu tuo. *Eta orazioen bukae-*
ran erantzuten da: Amen. Epistolaren bukaeran:
Deo gratias.

Ap. *Ebanjelioaren asieran, dio: Dominus*
vobistum.

Lag. Et cum spiritu tuo.

Ap. *Sequentia, edo initium Sancti, &c.*

Lag. Gloria tibi Domine. *Lenengo Ebanjelioaren bukaeran erantzuten da:* Laus tibi, Christe.

Ap. Orate, Fratres.

Lag. Suscipiat Dominus Sacrificium de manibus tuis ad laudem, & gloriam nominis sui, ad utilitarem quoque nostram, totiusque Ecclesiae suae Sanctae.

Ap. Per omnia saecula saeculorum.

Lag. Amen.

Ap. Dominus vobiscum.

Lag. Et cum spiritu tuo.

Ap. Sursum corda.

Lag. Habemus ad Dominum.

Ap. Gratias agamus Domino Deo nostro.

Lag. Dignum, & justum est.

Ap. *Pater noster* asitzeko dio: Per omnia saecula saeculorum.

Lag. Amen.

Ap. *Aita gurea bukatzean dio:* Et ne nos inducas in tentationem.

Lag. Sed libera nos á malo.

Ap. *Ostia puskatzen duanean:* Per omniá saecula saeculorum.

Lag. Amen.

Ap. Pax Domini sit semper vobiscum.

Lag. Et cum spiritu tuo = *Komunio ondoko orazioaren bukaeran erantzuten da amen.*

Ap. Dominus vobiscum.

Lag. Et cum spiritu tuo.

Ap. Ite Missa est.

Lag. Deo gratias = *Baldin Apaizak Ite Missa est ez, baizik esaten badu Benedicamus Domino, erantzuten zaio: Deo gratias. Pazkoako astean esaten du Apaizak: Ite Missa est alleluia, alleluia, eta erantzuten da: Deo gratias alleluia alleluia. Hillen Mezan esaten du Apaizak: Requiescant in pace: erantzuten da: Amen. Bendizioa ematen duanean ere bai.*

Ap. Azkeneko Ebanjelioa asitzean: Initium, edo Sequentia Sancti Evangelij, &c.

Lag. Gloria tibi Domine.

Lenago dio Apaizak: Dominus vobiscum, eta jakiña da zer erantzun bear dan. Azkeneko Ebanjelioa bukatzean erantzuten da: Deo gratias.

IRARURLEARI

Bukatzen ditut Erakusaldi oek. Gauz onik arkitzen badezu, hori da on guziaren Emalleangandik datorrena; baña utsegiteak izango dira nereak bakarrik, eta guziak, diranak dirala, ipintzen ditut Eliz Ama Santaren eta Iruñeko gure Apaiz nagusiaren mendean. Ukitu diran gaiak dira ederrak eta doai obeetako besteren batek edertu eta apaindu litzake erraz.